ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2010-12-06
ASTELEHENA
301. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET

TOKIKOM

Atletismoko epaile izateko ikastaroa jarri dute abian Arrasaten | 22-23

Petreñas eta Ormaetxea. | XABIER URTZELAI

Gipuzkoako jaialdiaren ondotik, nazioartekoaren txanda egunotan | 31

Hemengo esperientziak, Hego Amerikara bidean | 2

Durangon aurkituko dituzu

Gure sortzaileen azken lanak euskal kulturgintzaren zita nagusian

Domeka eguerdian batu genituen ibarreko hainbat ordezkari, Durangoko azokako prentsa gunean; euren lanak azokan izango dituzue eguaztenera arte. | JULIO CALLEJA

Lurraldebusen txartela urbanoan erabilgarri

Urtarriletik aurrera egongo da Arrasaten txartela erabilgarri | 14

Batzuk opor barik, beste batzuk etxera itzuli ezinik

Aire kontrolatzaileen auzia igarri da gurean ere | 4

"Etorkinek, zerga gehiago ordainduta, ez dute pentsiorik jasotzen"

Tania Cañas. | LANDER MUÑAGORRI

ESK sindikatuak Bergaran duen bulegoan etorkinei bideratutako zerbitzua eskainiko du; etorkinen bulegoko arduradunarekin izan gara berbetan | 7

Zubiaren hasieran turista gutxi izan da ibarrean | 4

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 10 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

Euskal Herriko esperientziak Hego Amerikara bidean dira

- Joan den eguenean amaitu zen IV. truke programa
- Eskoriatzako Udalak agurra egin zien partaideei
- Guatemala, Bolivia eta Ekuadorko 8 lagun izan dira

Garabide elkarteko eta udal ordezkariak aurtengo Truke programan parte hartu duten zort

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

"Zerbait nahi duzunean egin egiten duzu. Mugek ez dute inporta". Hori erakutsi dio aurtengo hizkuntza eta herrien arteko IV. truke programak Boliviako aimara komunitateko Flora Oyardori. Beste zazpi lagunekin batera, hiru astez egon da boliviarra Debagoienean, eta eguenean amaiera borobila eman zioten programari Eskoriatzan egindako agurrarekin.

Lanpetuta eman zuten arratsalde osoa. 17:00etatik 18:45era bitartean, aurtengo programan parte hartu duten herri indigenetako partaide bi ludotekan izan ziren, umeekin jolasean. Gainerako seiak, berriz, Elizoste elkarte gastronomikoaren sukaldean zeuden, euren herrietako jaki gozoak gertatzen.

Horrekin amaitzean, udaletxera joan ziren guztiak, udal ordezkariak eta Garabide elkarteko kideak zain zituzten-eta osoko bilkuren aretoan. Pedro Lasagabaster alkateak hartu zuen lehengo hitza. Truke programako partaideak ondoan izatea "ohore handia" zela aipatu ostean, gaineratu zuen europarrok "zor handia" dugula eurekin: "Zuen kulturak eta hizkuntzak suntsitzera iritsi ginen-eta". Horren harira, herria eta kultura berreskuratzeko egiten ari diren "esfortzua" txalotu zuen. "Euskal herritarrok ere zuengandik asko ikasi dugu", esan zuen, azkenik.

Aimararendako akademia

Jarraian, Garabide elkarteko Andoni Muxikak egin zuen berba. Garapen bidean dauden herrietako hizkuntza komunitate minorizatuekin lankidetza bideratzen duen elkartea da hori. Muxikak partaideek erakutsi duten "interesa" azpimarratu zuen. Gonbidatuen artean, Boliviako aimaren helburuetako bat azpimarratu zuen: "Euren asmoa da aimararendako akademia bat sortzeko lehenengo urratsak egitea".

Ez hori bakarrik. Hilarion Chinahuanca aimararrak *San Gabriel, La voz del pueblo Aimara* irratian egiten du lan. Aimara hizkuntza erakusten du hor egunero 04:00etatik 22:00etara eskaintzen dituen saioen bidez. Chinahuancaren arabera, "ez da irrati komertziala, hezigarria baizik. Boliviaz gain, Peru, Txile eta Argentinako iparraldean ere entzuten naute, ez naiz bakarrik 2.000 entzulera iristen. Euskal Herrian bizi izan dudan esperientzia nire testuingurura egokitzen saiatuko naiz".

Kooperazioaren garrantzia

Egueneko ekitaldian, Garabideko kideak aurtengo programaren balorazio positiboa ere egin zuen. Horren harira, euskalgintzarako "kooperazioak" duen garrantziaz jardun zuen. Udal eta Garabideko ordezkarien ostean, programan parte hartu dutenek euren burua aurkeztu zuten; lehenengo, bakoitzaren hizkuntzan egin zuten berba, eta jarraian, gazteleraz. Ondoren, guztien izenean, bik hartu zuten hitza. Ekuadorko Manuel Pazak azaldu zuen azken egunotan Euskal Herrian bizitako esperientzia "oso aberasgarria" izan dela, eta euskal kultura eta hizkuntza gertutik ezagutzeko aukera izan dutela.

Boliviako Flora Oyardo iritzi berekoa zen. Hiru asteotan "asko" ikasi dutela esan zuen. Horren harira, hizkuntzaren estandarizazioa lortu dela azpimarratu zuen: "Dialektoak izanda ere, hizkuntzaren estandarizazioa lortu egin da hemen, eta euskarazko akademia, komunikabide eta erakunde kopurua handitu egin

Irakasle, ikerlari eta hizkuntzalari

Gurean izan diren zortzi lagunok hizkuntzarekin eta hezkuntzarekin lotutako lanak dituzte. Rudy Camposeco izan ezik (soziolinguista da), gainerako beste guztiak irakasleak dira; eta horietako asko hizkuntzalariak ere badira. Hilarion Chinahuanca, Flora Oyardo eta Manuel Paza, gainera, komunikabeetan ibilitakoak dira.

MANUEL PAZA
KITXUA

"Euskal Herrian jaso dudana aztertuko dut, nire komunitatean egokitzeko. Hemengo egoerarekin eta euskararekin identifikatzen gara; bertute eta ahuleziak ikusi eta ikasitakoa aplikatuta gure herri eta hizkuntzan egingo dugu lan".

FLORA OYARDO
AIMARA

"Euskara maite duzue eta horrekin harrituta geratu gara. Euskara debekatuta bazegoen ere, etxeetan ezkutuan hitz egiten zela ikasi dugu eta horrek erakutsi digu zerbait nahi duzunean lortu egiten duzula. Horrekin geratzen naiz".

HILARION CHINAHUANCA
BOLIVIA

"Garabide elkartekoen lana txalotu nahiko nuke, esperientzia elkartrukatzeko gonbidatu gaituztelako. Herriak duen nortasuna eta euskarari dion leialtasuna azpimarratuko nuke. Hori erabiliko dut nire hizkuntza eta herrirako".

RUDY CAMPOSECO
MAIA POPTIA

"Truke programa oso inportantea da, herrien arteko elkartasuna globalizatzeko balio du-eta. Euskal Herriak asko dauka ezagutarazteko, tartean; hizkuntzarekiko eta komunitate-lanarekiko duen nortasuna. Hori eroango dut hara".

ILEANA SOTO
KITXUA

"Oso esperientzia aberasgarria izan da. Hainbat arlotan zuekin identifikatzen gara, atzerriko kultura eta hizkuntza baten zapalketak batzen gaituela ikasi dugu. Baina Euskal Herrian irten gaitezkeela erakutsi digute".

tzi lagunekin, eguen iluntzean Eskoriatzako udaletxeko osoko bilkuren aretoan egindako ekitaldian. | MIRIAN BITERI

da". Horren harira, 70eko eta 80ko hamarkadetan euskararen alde egin zutenen lana txalotu zuen, "euskara hilzorian egotetik hobera egitea lortu zutelako".

Ekitaldia amaitu aurretik, herriko hiru dantzarik aurreskua dantzatu zieten, eta oparien elkartrukea egin zuten. Udalak txapel bana eman zien eta indigenek, trukean, zapi bana. Azkenik, arratsaldean gertatutako jakiekin merienda ederra egin zuten guztiek tokian bertan.

Hiru aste gurean

Azaroaren 15ean hasi zen aurtengo programa, eta hiru aste iraun du. Hego Amerikako zortzi lagun izan dira: Guatemalako Edna Patricia Delgado, Rudy Camposeco eta Romelia Isem Mo maiak; Ekuadorko Manuel Paza eta Ileana Soto kitxuak; eta Boliviako Eulogio Chavez, Hilarion Chinahuanca eta Flora Oyardo aimarak. Zortzi lagun guztira, hizkuntzalari, irakasle eta ikertzaile profiletakoak.

Hizkuntza eta herrien arteko truke programa Garabide elkarteak hegoaldeko herriekin hizkuntzen garapen esperientzien trukaketa bultzatzeko asmoz urtero antolatzen den egitasmoa da. Hain justu ere, herri indigenek euren hizkuntza eta identitatearekiko dituzten bizipenak eta esperientzia eta Debagoienean dagoena trukatzean datza proiektua, elkarren aberasgarri.

Hizkuntza eta hezkuntza

Aurten, hizkuntzaren estandarizazioa eta hezkuntzaren garrantzia izan dituzte ardatz, eta helburu horren harira, formazioko saioak, askotariko testigantzak eta hainbat bisita egin dituzte. Euskararen errekuperaziorako esanguratsuak izan diren esperientziak ezagutzeko, Euskal Herriko hainbat bazter bisitatu dituzte hiru aste hauetan Ameriketatik etorri direnek. Azaroaren 24an, esaterako, Bilbon izan ziren. Goizean Euskaltzaindiaren egoitza bisitatu zuten eta erakundearen gaineko informazio asko jaso zuten, hala nola historia, osaera, gizartean duen eragina eta babes publikoa eta erakundearen funtzionamendua. Horren ondotik, Kafe Antzokian izan ziren bazkaltzen eta horren ere historia ezagutu zuten.

DATUA

3

HIZKUNTZA GUTXITU

Abenduaren 2ra arte izan ziren Guatemalako maiak, Ekuadorko kitxuak eta Boliviako aimarak.

Ipar Euskal Herriko egoera

Hurrengo egunean, Usurbilen izan ziren, Uzei bisitatzen; eta azaroaren 26an eta 27an, Ipar Euskal Herrian. Lehenengo egunean Baionako Elkar argitaletxea bisitatu zuten, eta Seaskakoekin ere izan ziren Euskal Lizeoan, Ipar Euskal Herriko hizkuntza eta hezkuntzaren egoeraz jarduten. Hurrengo egunean, ostera, Itsasun izan ziren egoera soziopolitiko eta ekonomikoaren berri jasotzen. Bestalde, azaroaren 28an, bueltan zetozela, Perurena museoa ezagutu zuten.

Bisitez gain, jardunaldi asko izan zituen taldeak; saio gehienak Eskoriatzako Huhezi fakultatean izan zituzten. Horrez gain, publikoari begirako hainbat ekitaldi ere izan zituzten; tartean, azaroaren 15ean, Oñatiko udaletxean izandako harrera. Ostatu, berriz, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak duen egoitzan hartu zuten; Arrasateko Biteri egoitzan, hain justu.

Guzti horrekin honako helburuak bete nahi izan dituzte: euskalgintzak hizkuntzaren corpusean eta hezkuntza mailan duen esperientzia zuzenean transmititzea; soziolinguistika, hizkuntzen estandarizatze eta bateratze prozesuen estrategia eta pausuen gaineko formazioa ematea; euskalgintzako eragileei hegoaldeko ekarpen eta hizkuntza errealitateak ezagutaraztea; eta bisitarien interesaren arabera, azken horiekin lankidetzazko harremanei hasiera eman.

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUEN ETORKIZUNEKO EREDU BERRIA

Desgaitasunen bat duten pertsonen Gipuzkoako Kontseiluko lehendakariordea

"Desgaitasunen bat duten pertsonentzat behar-beharrezkoa da gizarte zerbitzuak beste laguntza mota batzuekin koordinatuta izatea; esate baterako, osasun, enplegu edota beste laguntza mota batzuekin. Alderdi hori jasota dago gizarte zerbitzuen eredu berrian".

"Gizarte Zerbitzuen eredu berria lantzen aritu garenean, kolektiboei buruz ez baizik eta pertsonei eta pertsona horien behar konkretuei buruz hitz egitea bultzatu dut nik; izan ere, iruditzen zait laguntza horiek behar konkretuei erantzutera bideratu behar direla".

"Loiuko aireportuan Alemaniako neskatoa zegoen bakarrik, negarrez"

Kontrolatzaileen greba dela-eta oporretan joan ez den Antxon Sagastak dio hori

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri ondoren, kontrolatzaileak euren lanpostuetara itzuli eta aireportuak apurka normaltasunera bueltatzen hasi baziren ere, egubakoitz iluntzean eta zapatu goizean kaosa izan zen nagusi. Zubi luzea genuen aurretik, eta jende asko zegoen oporretan joateko desiratzen, baina ezin; tartean, debagoiendar asko.

Antxon Sagasta arrasatearra izan zen horietako bat. Mozanbikera joateko asmoa zuen egubakoitzean: "17:00etan heldu ginen Loiura. Hasieran normal zebilen dena, baina gero hegaldiak atzeratzen hasi ziren. Eguraldiagatik zela uste genuen, baina kanpotik zetorren jendeak kontrolatzaileengandik zela esan zuen. Haserretuta baina jendea lasai zegoen. Dena dela, oso egoera tristeak ikusi genituen; tartean, egubakoitzean bisatua bukatzen zitzaion txinatarrarena edo Loiun bakarrik zegoen 16 urteko neskato alemaniarrarena, negarrez. Egoeraz jabetuta, etxerantz abiatu ginen 22:00etan".

Stanstedetik irten ezinda

Hemengo asko oporretara joan ezinda ibili ziren; baina, kanpoan lan egiten duten asko etxera itzuli ezinda ibili ziren. Egubakoitzean, Olatz Olabe arrasatearra Londresko Stansted aireportuan geratu zen, ez aurrera ez atzera: "Denboraz joan ginen aireportura, hemen elurte handiak izan direlako, eta zailtasunak egon direlako errepideetan. Arazorik ez izateko, 15:00etarako aireporturako bidea hartu genuen, 18:00etan genuen-eta hegaldia. Hala, 17:40 inguruan, hegazkinera sartu behar ginenean esan ziguten Espainian arazoak zeudela, eta hegaldia ez zela aterako. Ordubete izan ginen terminalera eramango gintuen autobusaren zain, eta hara iristean, kaosa. Pentsa, Ryanair-ekin hegan egin behar genuen 500 lagun ginen ilaran, zain. Konpainia guztiak kontutan hartuta, imajinatu zenbat geunden han... Beste hegaldi bat hartzen saiatu ginen. Zapatuan ez zegoen aukerarik, eta domekarako eman ziguten. Hori ikusita, Londresen geratzea erabaki genuen. Gauerdian iritsi ginen etxera".

Bestalde, bidaia agentzietan ere zoroen pare ibili ziren zapatu goizean, hegaldi barik geratu zirenekin harremanetan jartzen. Arrasateko Eroski, Halcon eta Barcelo Bidaiakoek esan ziguten 100 kaltetu inguru zituztela. Jakinarazi ziguten egubakoitzean eta baita zapatuan ere orduak eman zituztela kaltetuek aireportuan, eta aspertu zirenean, etxerako bidea hartu zutela gehienek. Halcon Bidaiakeko Itziar Urangak esan zigun batzuk alternatibak topatu zituztela: "Zubia Madril edo Sevillan pasatzeko asmoa zutenek eta autoan joatea erabaki zuten bezeroak ditugu". Gehienek, dena dela, Kanarietara eta Europara joateko asmoa zuten.

Arrasateko Portaloiko Eroski Bidaiakeko bulegoa, zapatu goizean. | MIRIAN BITERI

Frogagiriarekin agentzietara

Kontroladoreen lanuztea dela-eta, hegazkina hartu barik geratu direnak erreklamatzeko aukera dutela jakinarazi digute bidaia agentzietan. Aireportuetan hegaldia bertan behera geratu zela frogatzen duen orria eskatu eta horrekin bidaia agentzietara joan behar direla azaldu digute. Bidaia agentzietan bezeroari dirua bueltatzeaz arduratuko direla esan digute.

ESANAK

"Egoera tristeak ikusi genituen; tartean, bisatua egubakoitzean bukatzen zitzaion txinatarrarena"
ANTXON SAGASTA | KALTETUA

"Londresko Stansteden Ryan air-ekin hegan egin behar genuen 500 lagun ginen ilaran, zain "
OLATZ OLABE | KALTETUA

"Zubia Madril edo Sevillan pasatzeko asmoa izan eta autoan joatea erabaki zuten bezeroak ditugu"
ITZIAR URANGA | HALCON BIDAIAK

Elurra eta hotza oztopo izan dira abenduko zubian turistak erakartzeko Debagoienera

Hala ere, datozen egunotarako espero dituzte bisitari gehienak turismo bulegoetan zein ibarreko landetxe eta hoteletan

EDU MENDIBIL | ARRASATE

Abenduko zubian, aurreko urtetan baino turista gutxiago hurbildu da aurten Debagoienerako. Elurrak, hotzak, garraioetan izandako arazoek eta krisiak ere zerikusia izango zuten horretan. Edozelan ere, Oñatiko Turismo Bulegoan (943 78 34 53) bihar martitzenerako dituzte aurreikuspen onenak. Han emandako informazioaren arabera, Bartzelonatik autobus bat etortzekoa da eta beste bi talde espero dituzte bisita gidatuak egiteko. Atzo domeka Mallorcako talde baten bisita bertan behera geratu zen aire kontroladoreen grebaren erruz. "Hala ere, abenduko zubi honetan inguruko jendea etortzen da gehienbat", diosku Edurne Urteaga bertako langileak. Arrikrutzen (943 08 20 00) ere datozen egunetan bisitari kopuruak gora egitea espero dute. Gaur, astelehena, Madrildik 13 laguneko taldea jasoko dute eta bihar katalanak izango dira kobak bisitatzen. Elgetan, atzo goizean, 20 bat lagunek zuten hitzordua 10:00etan Intxortan Espainiako Gerraren gaineko ibilbidea egiteko. Zapatuan baino eguraldi epelagoa izan zuten atzo Elgetan. Espaloia Kafe Antzokian (943 79 64 63 edo 943 71 89 11) egin daitezke erreserbak aipatutako ibilbide tematikorako. Bergaran ere gaur, bihar eta etzi zabalik izango da Turismo Bulegoa San Martin plazan (943 77 91 28) eta Debagoieneko Turismo Informazio eta Interpretazioa Zentroa zabalik dago Arantzazun (943 79 64 63).

Jardunaldi gastronomikoak

Bestetik, Debagoieneko IV. Jardunaldi Gastronomikoen barruan, abenduaren 12ra arte menu bereziak eskaintzen dituzte Oñatiko Etxe-Aundi eta Goiko Benta jatetxeetan, Arrasateko Hilarion jatetxean, Bergarako Lasan eta Gatzagako Soran hotelean. 33 euro eta 43 euro (BEZa gabe) bitarteko menuak dira eta kasu gehienetan haurrendako menuak ere badituzte. Domekan, hilaren 12an, bukatuko dira jardunaldiak. Argibideak: *www.turismodebagoiena.com*

Arrikrutzen aurrez erreserba egitea gomendatzen dute. | GOIENA

ESANAK

"Abenduko zubian inguruko jendea etortzen da batik bat"
EDURNE URTEAGA | OÑATIKO TURISMO BULEGOA

Dirua itzulita, izandako akatsak zuzenduko ditu Lurraldebusek

Eguaztenean, autobusetako txartel makinetan gertatutako akatsen ondorioz, Lurraldebusek ohikoa baino gehiago kobratu zituen autobus tarifak. Konpainiak diru hori itzuliko die erabiltzaileei. Ohiko lekuetan txartela kargatzerakoan, modu automatikoan itzuliko dute diferentzia. Pilar Arana Lurraldebuseko lehendakariak eta Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko zuzendariak barkamenak eskatu ditu eragindako eragozpenengatik.

San Nikolas bolo-boloa gaur eguerdian Arrasateko plazan

Gaur, astelehena, San Nikolas eguna ospatuko dute Arrasateko haur eta gaztetxoek. Aspaldiko ohiturari eutsiz, kopla zaharrak abestearren goxoki eta litxarreriak izango dituzte bolo-boloa etxe eta ohiko tokietan. Azken urteotan egin ohi denez, udaletxeko balkoitik egingo da bolo-boloa baldin eta eguraldiak laguntzen badu. Hitzordua 12:00etan. Euria egiten badu, Uarkapen egingo da.

Sistema txertatuen gaineko jardunaldia egin zuen Microsoftek Garaian

▸ Azken nobedadeak eta MUko ikasleak izan ziren protagonista egubakoitzeko jardunaldian

Ikasle talde bat Surface pantailarekin jolasean. | E.M.

Kinecteko pantailen aurrean dantza edo kirola egin ahal da. | E.M.

EDU MENDIBIL | ARRASATE

Garai berriak, teknologia berriak, enpresa berriak izenburuko jardunaldia egin zuten egubakoitzean Garaia Berrikuntza Gunean. Microsoft-ek antolatu zuen bereziki ikasleendako antolatutako jardunaldia, eta hain zuzen, atera berri diren azken nobedadeen berri eman zieten Garaian batutakoei. Besteak beste, Kinect, Surface Computing eta Windows Phone 7 delakoaren ezaugarriak eta abantailak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten ikasleek. Guztira, 60 lagun inguru batu ziren. Erakustaldien aurretik, Nati Herrasti ETICeko zuzendariak zerbitzu ekintzaileen gaineko hitzaldia egin zuen. 2008ko ekainetik dihardu Embedded Technologies Innovation Center (ETIC) delakoak Garaian lanean eta, gaur egun, Herrastirekin batera 13 lagun dabiltza lanean. Gaur egun, besteak beste, bakarrik bizi diren pertsonen jarraipena egiteko, eta dementzia kasuak-eta detektatzeko helburuarekin, haien mugimenduak nolabait erregistratzeko sistemak garatzen ari dira. "*Gran Hermano* moduko bat, baina kamerarik gabe...", dio Herrastik.

MUren masterra 2011n

Mondragon Unibertsitateko informatika, elektronika eta telekomunikazioko ikasleek hartu zuten parte egubakoitzean. Eta, MUk, datorren urtean eskainiko duen sistema txertatuen gaineko masterra aurkezteko aprobetxatu zuen jardunaldia. Eñaut Muxika arrasatearra izango da masterreko koordinatzailea.

Bestetik, Windows Phone 7rako aplikazio bat sortzeko ideia lehiaketa jarri du abian Microsoftek: *www.imaginecup.com*. Uztailean New Yorkera bidaiatu ahal izango dute irabazleek.

ARANTXA LARRAÑAGA
ETIC

Windows Phone 7aren erabilera azaldu zuen: "Erabilgarritasuna azpimarratuko nuke; interesatzen zaizuna bat-batean bistan izan dezakezu. Movistar, Vodafone eta Orangek eskaintzen dute gaur"

EÑAUT MUXIKA
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

"Sistema txertatuen masterra jarriko dugu abian 2011ko irailean; bi urtekoa izango da, enpresara eta ikerkuntzara bideratuta. Oso ohikoak dira sistema txertatuak gaur, toki askotan erabiltzen dira".

NATI HERRASTI
ETIC-EKO ZUZENDARIA

"Eguneroko bizitzan sistema txertatuek gero eta presentzia handiagoa daukate eta ikasleekin hartu-emana handitu nahi dugu. Izan ere, haien ideiak ezinbestekoak izango dira laster".

AITOR MTZ. DE ESTARRONA
IKASLEA

Automatikako azken kurtsoan eta proiektuarekin dabil Aitor: "Jendeak agian ez ditu gehiegi ezagutzen sistema txertatuak eta batez ere azken nobedadeak ezagutzeko asmoz etorri gara"

BEÑAT TXURRUKA
IKASLEA

"Gaur ikusitako nobedadeen artean, Kinect delakoa iruditu zait berritzaileena. Windowseko mugikorrarekin ere pixka bat saltsatzen ibili gara...". Informatikako 3. kurtsoan dabil Beñat.

Aurreko astean ekin zioten materiala batzeari. | ULMA FUNDAZIOA

Elkartasun azoka jarri du abian Ulma Fundazioak

Hermansoloña GKErekin elkarlenan, Argentinara bidaliko dute batutako materiala

E.M. | OÑATI

Keinu txiki batekin asko lagundu dezakezu lelopean, elkartasun azoka jarri du abian Ulma Fundazioak. Urtarrilaren 31ra arte, Ulmako langile eta bazkide guztien artean kontainer bat betetzea da asmoa. Batutako materiala, Argentinako Jose C. Paz herrira bidaliko dute, Oñatiko Hermansoloña gobernuz kanpoko erakundearekin elkarlanean hain zuzen.

Material ezberdina

Esandako moduan, urtarrilaren amaierara arte egingo dute material bilketa. Parte hartu nahi duten bazkide eta langile guztiek Ulma taldeko zerbitzu zentraletan, Oñatiko Garagaltza auzoko 51. zenbakian, utzi ahal dute materiala. Ordutegia honakoa hau da: astelehenetik egubakoitzera, 08:30etik 13:00etara eta 14:00etatik 17:30era.

Arduradunek jakitera eman dutenez, bereziki honako materiala jasotzeko interesa daukate: haurren arropak, jostailuak, haur eta gazteen arropak, haurrendako zapatak, kirol materiala eta eskolako materiala. Edozein modutan, lagungarri izan daitekeen edozer gauza jasoko dute Ulma Fundazioan.

Elkartasun azoka parte hartzen duten bazkide eta langile guztiak, Oñatiko irudi historiko baten zozketan sartuko dira.

Eroskiren sortzaileetako bat izan zen Antonio Canceloren ideiak, liburuan

Fermin Garmendia eta Manolo Gonzalez izan dira egileak

TXOMIN MADINA | ARRASATE

1936an Zamoran jaioa, Antonio Canceloren ibilbidea berezia da: formazioz osasun-laguntzaile teknikoa, soldaduska eginda etorri zen Euskal Herrira; Eibarrera, hain zuzen ere. 30 urteak ondo beteta sartu zen enpresa munduan, zehazki Eibarren bertan sortutako Juan XXIII. kontsumo-kooperatiban. Eroskiren sortzaileetako bat izan zen eta baita bertako zuzendari eta MCCko presidente ere.

Bera da *Principios, pensamiento e innovación empresarial. La visión de Antonio Cancelo* izeneko liburuaren protagonista. Manolo Gonzalez donostiarra eta Fermin Garmendia bergararra dira egileak, eta ESIC argitaletxeak kaleratu du.



José María Pérez, "*Peridis*" marrazkilariak liburuaren hitzaurrea idatzi eta kontrazala diseinatu du. | FERMIN GARMENDIA

Kudeaketa eta baliabideak

Bi zati ditu liburuak: hasteko Cancelori egindako elkarrizketa luze bat jasotzen da eta gero, 1968tik 2005era bitartean eman zituen hitzaldi eta idatzitako hainbat artikulu biltzen dira. Fermin Garmendiaren ustez, Canceloren testu eta esanetatik atera daitekeen ideia nagusia da pertsonengan duen sinismena: "Pertsonok, ondo bideratuta eta ondo kudeatuta, uste ez genuena egiteko gai garela adierazten du Cancelok". Horren adibide da, bergararraren hitzetan, gerora Eroski bihurtuko zen Eibarko kooperatiba txikia eta baita Canceloren beraren ibilbidea ere. Horren harira, baliabideak helburuei lotu behar zaizkiela ere bada Canceloren beste ideia bat. "Hasierako kooperatiba aurrera ateratzeko, helburuen araberako sakrifizio pertsonal eta enpresarialak egin behar izan zituzten" dio Garmendiak. Bere iritziz koherentzia da Canceloren beste ezaugarrietako bat: "1968an atera zuen lehen artikuluan idatzitakoak irakurri eta bere bizitzan zehar izandako ibilbidea ikusita, argi geratzen da koherentzia hori".

Bilduma baten lehen alea

Garmendiak esan digunez, liburu hau bilduma proiektu baten lehen fruitua da. Mugimendu kooperatibistaren bultzatzaile eta lider historikoei buruzko liburua jasoko ditu bildumak.

ESANAK

"Canceloren ustez, ondo bideratuta pertsonok uste ez genuena lor dezakegu''

"Koherentzia da Canceloren ezaugarrietako bat"

FERMIN GARMENDIA | IDAZLEA

Langabe kopuruak behera egin zuen azaroan Debagoieneko ia herri guztietan

Azaroa amaieran, aurreko hilean baino 85 langabe gutxiago zegoen ibarrean

TXOMIN MADINA| ARRASATE

Hego Euskal Herrian eta Gipuzkoan ez bezala, Debagoienean positiboak izan ziren azaroko langabezia datuak. Hala, bigarren hilabetez jarraian, azaroan behera egin zuen lanik barik zegoen debagoiendarren kopuruak.

INEMetik emandako datuen arabera, hilabete amaieran denera 2.933 langabe zeuden ibarrean, urria amaieran baino 85 gutxiago. Langabezia tasari dagokionez, %9,46an kokatu zen azaroko langabezia tasa.

Beherakada, ia herri denetan

Datuak herriz-herri aztertzen jarrita, Debagoieneko ia herri guztietan egin zuen behera langabeziak. Bi herritan bakarrik egin zuen gora langabe kopuruak: Eskoriatzan sei langabe gehiago zeuden azaroa amaitzean; Leintz Gatzagan, pertsona bat gehiago zegoen lanik barik.

Jaitsierei dagokienez, Oñatin nabaritu da batez ere beherakada: urria amaieran baino 34 langabe gutxiago zeuden azaroa amaieran. Bigarren jaitsiera handiena Bergarako izan zen: 20 langabe gutxiago zeuden hilabetea bukatzean.

Leintz-Gatzagan tasa txikiena

Langabeziak gora egin arren, Leintz-Gatzagakoak jarraitzen du izaten beste behin ere ibarreko langabezia tasa txikiena, %6,02 hain zuzen ere. Bigarren txikiena Oñatikoa da, %6,68. Tasari dagokionez, aipatzekoa bi herritan gainditzen duela %10aren muga: Arrasaten eta Antzuolan.

Urtea bukatzeko hilabe baten faltan, 2010ean hobera egin du langabeziak aspektu guztietan: urte hasieran baino langabe gutxiago dago herri guztietan, eta ondorioz, tasek ere behera egin dute. Debagoieneko datuak orokorrean hartuta, urtea hasi zenetik 386 pertsonatan egin du behera langabe kopuruak.

Inguruan, langabeziak gora

Esan bezala baina, inguruko datuak ez dira hain baikorrak izan. Hego Euskal Herrian, azaroa 1.133 langabe gehiagorekin amaitu zen eta langabe kopurua 175.514 pertsonan kokatu zen. Gipuzkoan, 236 langabe gehiago zeuden eta langabe kopurua 39.492 izan zen.

LANGABEZIA DEBAGOIENEAN (AZAROA)

HERRIAK	LANGABEAK	URRIAREKIKO	TASA
ANTZUOLA	92	-10	% 10,11
ARETXABALETA	304	-16	% 9,42
ARRASATE	1.242	-11	% 10,73
BERGARA	679	-20	% 9,46
ELGETA	40	-1	% 8,13
ESKORIATZA	207	+6	% 9,96
LEINTZ-GATZAGA	8	+1	% 6,02
OÑATI	361	-34	% 6,68
DEBAGOIENA	2933	-85	% 9,46

INEM

426 euroko laguntza kenduko diete langabeei

T.M. | ARRASATE

Krisiari aurre egiteko neurri berriak onartu ditu Espainiako Gobernuak eta horietako batek eragin zuzena izango du langabeengan. Izan ere, otsailetik aurrera, bestelako babesik jasotzen ez duten langabeek ez dute orain artean jasotzen zuten 426 euroko laguntza jasoko.

Gobernuaren esanetan 40.000 enpresa txiki eta ertaini onuragarri izango zaizkion beste bi neurri ere hartu dituzte. Batetik, sozietateen gaineko zergan beherapen fiskalak aurkeztu ditu Gobernuak; horretarako zergak tipo murriztuan ordaintzen duten enpresei zerga oinarria handituko zaie, egungo 120.000 euroetatik 300.000 eurotara. Bestetik, enpresa txikien definizioa aldatu egin da: aurrerantzean, muga zortzi milioi euroko fakturazioa izan beharrean, 10 milioi euroko fakturazioa izango da.

Tabakoaren gaineko zerga ere igo dute eta aurreikuspenen arabera, igoerarekin 780 milioi euro irabaziko dira.

Mondragonek 1.300 enplegu berreskuratu ditu

T.M. | ARRASATE

Jose Maria Aldekoa Mondragon Taldeko presidenteak joan den astean Bilbon emandako hitzaldi baten azaldu zuenez, urteko lehen hamar hilabeteetan, eta esportazioetan egondako hazkundeari esker, Taldeak lortutako emaitzetan "hobekuntza argia" antzeman da.

Aldekoaren arabera, urte hasieratik urrira bitartean esportazioak %10 igo ziren baina barne merkatua "bere horretan'' mantendu zen. Honen ondorioz, urrira bitartean, 2008an baino 110 milioi euro gehiago irabazi ditu Taldeak. Aldekoak gaineratu zuen 2008ko uztailetik 2009ko uztailera 5.000 langile bota behar izan zituztela krisiaren eraginez, baina iazko uztailetik aurtengo urrira artean 1.300 enplegu berreskuratu direla.

2011ra begira, "aurreko bi urteetako tentsioa" mantentzearen alde egin zuen Aldekoak, bere esanetan egoera aurtengoaren "antzerakoa" izango delako.

Tania Cañas | ESK sindikatuko etorkinen bulegoko arduraduna

"Etorkinek, bertakoek baino %23,5 zerga gehiago ordainduta, ez dute pentsiorik jasotzen"

- ESK sindikatuak Bergaran duen bulegoan etorkinei bideratutako zerbitzua eskainiko du
- Debagoiena gune interesgarritzat jo du Tania Cañasek, etorkin kopuru handia baitaukagu

LANDER MUÑAGORRI | BERGARA

Salvadorren jaioa, Tania Cañas orain dela 9 urte etorri zen Euskal Herrira, Gasteizen bizi izaten jartzeko. ESK sindikatuko etorkinen bulegoko arduraduna da egun. Urtarriletik aurrera sindikatuak Bergaran duen egoitzan etorkinei bideratutako bulego bat zabaltzeko asmoa daukate. Astean behin eskainiko dute zerbitzua, eguazten arratsaldeetan, hain zuzen, eta Tania Cañas bera han egongo da. Bulego horren aurkezpena eta Debagoieneko etorkinak zein egoeratan dauden aztertzeko, joan den eguaztenean immigrazioaren eta giza eskubideen inguruko jardunaldiak egin zituen ESK-k Bergarako Zabalotegi aretoan.

Bergaran zabalduko duzuen bulego honetan, zein zerbitzu jasoko dute etorkinek urtarriletik aurrera?

ESK sindikatuak Bergaran duen bulegoan egongo gara astean behin etorkinei harrera egiten. Egun horretan etorkinen aldarrikapenak jasoko ditugu. Besteak beste, lan eskubideen, sustraitze sozialaren eta erregimen orokorraren inguruan. Horretaz gain, informazioa ere eskainiko diegu, jakin dezaten zein den jaso beharko luketen gutxieneko soldata, oporrak, ordutegiak eta beste hainbat eskubide. Horretaz gain, bailaran etorkinen egonezin eta salaketak bideratzen dituen beste pertsona batzuekin lan egiteko asmoa ere badaukagu. Era horretan, salaketarako sare bat osatu nahiko genuke. Baina eskubide urraketak gerta ez daitezen, prebentzioan sakontzea ere gure helburuen artean dago. Jardunaldi hauek, esaterako, asmo horrekin antolatu dira, eta urtarrilean ere beste jardunaldi batzuk egingo ditugu.

Eskualdeko immigrazioaren tipologia nolakoa da?

Bailara hau oso gune interesgarria dela iruditzen zaigu; izan ere, Debagoieneko biztanleriaren %4,9 etorkina da. Multikulturalismoa eta pertsonen eskubideak garatzeko leku aproposa dela iruditzen zaigu. Tipologiari dagokionez, Gipuzkoarekin alderatuz gero ezberdina da. Gizon-emakumeen arteko orekari dagokionez, antzeko mailan daude bi generoak. Hala ere, egiten dituzten lanak Euskal Herriarekin eta Espainiarekin alderatuz gero antzekoak direla esan behar da. Hau da, gizonek eraikuntzan egiten dute lan eta emakumeek, berriz, etxe zerbitzuan eta ostalaritzan. Etorkinen gehiengoa 20-40 urte artean banatzen da, eta merkatuak eskulana eskatzen duenez, era horretako lanak egiten dituzte, gehienbat, gurera datozen etorkinek.

Nongo jendea etortzen da, gehienbat?

Bergarako Udalak 2006an egin zuen diagnostiko baten arabera, pakistandar eta boliviarrak gailentzen dira herrian. Arrasateko Udalak, berriz, 2008an egindako ikerketa baten arabera, bestalde, kolonbiarrak nagusitzen dira. Udal hori, gainera, etorkinei bideratutako plan baten ari da lanean. Aipatu dut lehenago ere gizon eta emakumeen artean oreka dagoela, baina jatorriari dagokionez aldatu egiten da hori. Esaterako, Bergarako pakistandarren artean gizonezkoak nagusitzen dira eta boliviarren artean, emakumeak.

Eta zein salaketa egin daitezke etorkinen eskubide urraketei dagokienez?

Salaketa gehienak euren lan baldintzetatik datoz, kontratu eta ordutegirik gabe egiten baitute lan, kasu gehienetan. Eskubiderik gabe egiten dute behar, hain zuzen. Ezegonkortasun egoeran egiten dute lan, gainera, eta pobrezia ere etorkinekin lotu daitekeen bereizgarrietako bat da. Lan merkatuaren zatiketak ere eragiten die euren egoerari, eta askotan ez dute lan kontratu egonkorrik lortzen.

Askotan, eskulan merkearen truke egiten dute lan, gainera...

"Lan merkatuaren zatiketak kontratu egonkor barik uzten ditu etorkinak"

"Etorkinek kontratu eta ordutegi barik egiten dute lan, kasu gehienetan"

Hori ezkutuko ekonomiaren eragina da. Erakundeek nahiko luketena baino pertsona gehiago daude lan eskubiderik gabe, eta horrek esan nahi du ezkutuan egiten dutela lan. Eta hori nori interesatzen zaio? Merkatuari, noski. Egoera horretaz aprobetxatzen da, gainera.

Eta gizarteari zer eskaintzen diote etorkinek?

2006an egin zen ikerketa batek etorkinek ordaintzen duten zerga kopurua adierazten zuen. Neurketa horren arabera, etorkinek batez beste bertakoek baino %23,5 zerga gehiago ordaintzen dute. Hori kontuan hartuta, eskuko atzamarrekin konta daitezke pentsioa kobratzen duten etorkinak. Izan ere, etorkinak hona lan egiteko adinarekin etortzen dira eta Gizarte Segurantzari euren ekarpena egiten diote.

Baina etorkizunean bueltan jasoko dute pentsioa, ala?

Ez dut uste. Izan ere, etorkin asko hona etortzen da lan egin eta ondoren sorterrira itzultzeko asmoz. Bergarako pakistandarrek, esaterako, hamar urtez lan egin eta itzultzeko asmoz etortzen dira, han etxebizitza bat egiteko dirua biltzeko asmoz etortzen dira. Askok euren sorterrian familia eta lagun ugari ere uzten dituzte, eta horrek eragin sakona dauka.

Azkenaldian entzun da kriminalak diren etorkinak euren herrialdetara deportatzeko asmoaren berri...

Bai; Suitzan egin berri dute erreferendum bat horren harira. SOS Arrazakeria elkarteko kide batek zioen moduan, "Europa zaharreko arrazakeria berria da honakoa". Kataluniako kanpainan PP alderdiaren ildo arrazista ere hor dago, atera duten bideojokoa adibidetzat hartuz. Krisi garaian arrazakeriak gora egiten duela esaten da, eta orain ere hori gertatzen ari da. Izan ere, halako egoera ekonomiko zailetan, gizarteari ondo datorkio etsai bat sortzea. Baina hau guztia gezur gainean sortzen da, eta halako batean behera erori beharko dute errazkerian oinarritutako argudio hauek.

Tania Cañas, joan den eguaztenean, Bergarako Zabalotegi aretoaren kanpoaldean. | LANDER MUÑAGORRI

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Resu Abasolo | EAJko zinegotzia Aretxabaletan (1991-1995)

- EAJrekin oposizioan egon zen udaletxean
- 25 urtez Kurtzebarri eskolan izan da lanean
- Hezkuntza Ikuskaritzan dabil gaur, Gasteizen

"Hezkuntzako balioak politikan ez zirela aplikatzen ikustea dezepzioa izan zen"

Resu Abasolo Aretxabaletako udaletxearen ondoan, zapatuan. | E.M.

EDU MENDIBIL | ARETXABALETA

Aretxabaletako udaletxean egindako sasoiaren gainean ez dauka oroitzapen onegia Resu Abasolok (Aretxabaleta, 1958); "Oroitzapen gris-iluna daukat", dio. Kurtzebarri eskolan 31 urtez lanean egon ondoren, Gasteizen, Hezkuntza Ikuskaritzan hasi da aurten. Gizonarekin batera aspalditik ari da Atzegi elkartearekin lanean, eta Durana kalean duten egoitzan berba egin genuen berarekin zapatu goizean.

Zergatik oroitzapen ilun hori?

Batez ere heziketan, urtetan ikasitako edo bereganatutako hainbat balio (guztiekin lan egin, inor atzean ez utzi, talde onura bilatu...) politikan aplikatzen ez zirela ikusi nuelako. Fede osoa daukat balio horiengan eta dezepzioa izan zen niretako, horien ordez, tentsioa, amorrua edo elkarri aurka egitea ikustea. Luze egin zitzaidan udaletxeko agintaldi hura, 1991tik 1995era bitartekoa. Asko sufritu nuen udaletxean aurkitu nuen tentsio giroarekin. Gauzarik onena ezagututako jendea izan zen, siglei erreparatu barik; oraindik ere hurbileko sentitzen ditut.

Nolatan eman zenuen politikan hasteko urratsa?

Baneukan inguruan aurretik udaletxean ibilitako lagunak, gizona tartean. Esperientzia aberasgarria zela esaten zidaten guztiek. Nik ez neukan hain garbi, baina konfiantzazko lagunek aurkezteko konbentzitu ninduten azkenean.

Oposizioan lan egitea tokatu zitzaizuen EAJkoei...

Bai, EA eta HB ziren udal gobernuan; lehenbiziko bi urteetan Pedro Mendieta izan zen alkatea eta ondoren Aitor Antxiak ordezkatu zuen. EAJko hiru ordezkariak oposizioan ginen. Ni euskara batzordean nenbilen eta euskara ez zen orduko gai izarra...

Udaletxea barku bat moduan ikusten nuen, guztiok egin beharko genuela arraun norabide baten. Baina zer egin baino zeinek egin, horrek du garrantzia. eta ondokoari traba jartzen bazaio, hobe. Gaur egun ere politika ulertu barik jarraitzen dut, desengainua hartu nuen orduan.

Orduan herrian egindako egitasmoren bat nabarmentzekotan?

Aurreko agintaldien inertziaz -edo, hirigintza planek gehiegizko garrantzia zeukaten, ordurako iparra galtzen hasi ginela uste dut. Etxeak, azpiegiturak, eraikuntzak ziren aurrerakuntzaren adierazgarriak; pertsonengan, herritarrengan ez zen horrenbeste inbertitzen. Nire kezka hori da: zer erakutsi diegu atzetik datozenei? Kontsentsuetara iristeko metodorik lantzen edota atzean daudenei lehentasuna ematen erakutsi diegu?

"Hirigintza planek gehiegizko garrantzia zeukaten sasoi hartan"

"Zer egin baino zeinek egiten duen, hori da politikan inportanteena"

Nola ikusten duzu herria gaur?

Herri polita daukagu eta baserri ingurua aparta da, bereziki ingurukoek zaintzen dutelako. Baina gutxi inbertitzen da pertsonetan. Esaterako, Arkuperekin asko animatu da giroa, baina nola egon daiteke liburutegia itxita edo ordutegi murritzagoarekin uda partean? Herritarrak lanean jartzea falta da, kirolean neska -mutilen berdintasuna suspertu... Bestetik, ikusten da hezkuntza ez dagoela lehentasunen artean, espaziorik gabe geratu delako. Partaidetza ere ez dago momenturik loratuenean... Niretako osasuna eta hezkuntza izan behar dira lehentasunak. Herritarren hobekuntza bilatu behar da beti, horrek du garrantzia gehien.

Resu Abasolo beste agintari batzuekin, kanposantu berriaren inaugurazioan, 1994ko martxoan. | ARETXAGAZETA

DURANGOKO AZOKA
GOIENA TELEBISTA | GIPUZKOA KULTURA | DURANGOKO AZOKA
EGUENA, ABENDUAK 9, 22:15
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

Gorbeian duzu gabonetako
SARI NAGUSIA
6.000€
Banatzen ditugu
Sartu:
www.centrocomercialgorbeia.com
Eta hauetako sari bat irabazi:
Lehenengo Saria: 3.000€
Erosketa txarteletan
Bigarren Saria: 2.000€
Erosketa txarteletan
Hirugarren Saria: 1.000€
Erosketa txarteletan
Baldintzak ikusteko sartu:
www.centrocomercialgorbeia.com
GORBEIA
gehien aurrezten duzun tokia
2010eko Abenduaren 21era arte
Carrefour DECATHLON Norauto BRICO DEPOT i'm lovin' it merkal calzados YELMO CINES DIGITAL 3D GORBEIA MUEBLES MAX DESCUENTO CIMER el outlet del electro SAMIRA FASHION OUTLET CÓCTEL haurrak CORTEFIEL Asian Center

ZABALIK

MAITE ARISTEGI
'http://goiena.net/iritzia/'

Independentzia lor daiteke

Abenduaren 6a. Eta Euskal Herriak ezezko biribila eman zion arren, liburu zaharkituari umeltasun kiratsa badario ere, Espainiak burdinazko kortseak bezala estutzen gaituen Konstituzio dontsu hori ospatuko du gaur berriz ere, itxurakeria galantekin.

Krisi latza dagoela... berdin dio; beti egongo dira euskaldun gehiago atxilotzeko, irmo eta tente, ez eta ez esaten segi eta Estatuaren indarra frogatzeko. Estatua bankarrotan dagoela... berdin dio; denok jakin arren horrek ez duela arazoa konpontzen, babes txikiena dutenei larriki eragiten dien neurriekin jarraitu eta kitto! Orain arte langileei, erretiratuei... eta orain, bestelako laguntzarik ez duten langileei jasotzen duten apurra kendu eta pribatizazioak bideratu; hau da, Europako Banku Zentralak eta FMIk agintzen dutena txintxo-txintxo bete.

"Beste eszenatoki ekonomiko-sozial baten beharra nabariagoa da"

Erreskatea, langileen eskubideen errematea! Eskerrak Gobernu honek bere burua ezkerrekotzat duen! Eta arrazoi horiegatik ere, iritsi da garaia independentziaren aldarria ozen plazaratzeko, kultura, historia, lurralde, hizkuntza eta bihotzaren arrazoiez gain, argudio ekonomikoz jantzteko. Independentzia ekonomiko barik ez dago independentzia politikorik. Baina gutxi ezagutzen diren txostenek frogatzen dute ditugun errekurtso fiskal, finantzario eta pertsonal ugariak ondo bideraturik Euskal Herriaren independentzia bideragarria dela eta horrela askoz hobeto bizi gaitezkeela. Gainera, krisiarekin beste eszenatoki ekonomiko-sozial baten beharra nabariagoa bada, herri txiki honen aldarrikapen historikoak herritar guztion etorkizuna aldatzeko benetako aukera eman beharko liguke, deslokalizazioa, langabezia, pobrezia larria, kontsumismo ankerra... baztertu eta eredu berri bat pizteko.

Horretarako, geuk ere irakurri, hausnartu eta sinistu egin behar, gure elkarbizitzarako balioak ere majo aldatu ditu-eta kapitalismoak, auzolanetik indibidualismorako salto izugarria adibidetzat. Esnatzeko garaiak!

USTEAK USTE

GOIATZ ARANA | 'goarana@goiena.com'

Segundo bakoitza 12 euro

Berezia izan zen atzo Realak eta Athleticek jokatutako derbia, talde bien arteko lehena izan zelako hiru urtean eta ikurrinari omenaldia egin ziotelako, 1976ko derbia oroituz. Hain justu, duela 34 urteko irudi haiek eskuratu nahian ibili ginen joan den astean Goiena Telebistan. Bergaran apaiz egondako On Serafin Esnaolak egin zuen grabazio hura. Euskadiko Filmategira eraman zuen, ordea, eta hark ditu orain irudi horien gaineko eskubideak; 12 eurotan saltzen du segundoa. Garai bateko irudiak etxean gordetzeak ez du ezertarako balio, eta filmategira eramateak? Puntuan jarri eta baldintza egokian gordetzen dituzte, baina... norentzako?

KALE INKESTA

Sinisten duzu objektu hegalari ezezagunetan?

AINHOA GARITANO
BERGARA

Ez dakit horretan sinisten dudan edo ez; hobe da ez pentsatzea. Misterio bat da. Horrelako kontuak entzutean harritzen naiz.

AINHOA LARRAÑAGA
BERGARA

Kosta egiten zait sinistea. Egia da askotan ezin dela horren gaineko azalpenik topatu eta errespetua ematen duela.

FERNANDO AZULA
BERGARA

Horrelako kontuetan sinisten dut; hemen bizitza baldin badago zergatik ez egon behar beste toki batzuetan?.

GONZALO DIAZ
BERGARA

Sinisten dut eta ez diet inongo errespeturik. Normala iruditzen zait hemendik kanpo bizitza egotea.

HANDIK ETA HEMENDIK

Pinpilin...

Pello Zabala
http://berria.info/blogak/pellozabala/

-Pinpilinpauxa aukeratu dutela sarean, internauten bozetan, euskal hitzik pullitena delakotz..

-*Dugula* esan beharko, aizak, nik ere pinpilinpauxa bozkatu nian eta...

-Ba nik *xuxurlatu*...

-Ta...? Beste inork ez duzue bozka halako izen dotore horietakoren bat...?

-Ba, gaur goizean berria entzutean, niri barrettikia piztu zaidak. Akordauko ez ninduan, ba? Gure ikastetxetako batean ginela –ez niak esatera non zen– bagenian taldean lagun bat, hitzak koadratzen gure koadrillako artista: izan zetian dozenaka asmakizun zein baino zein... izan ere, sasoi harekin, edozeri eta edozeini egiten genioan barre, ez burlarik...

Ba, kontua duk, tipo bat –ez niak esatera geure artekoa edo herriko gaztea zenik– hola, 'amaneratu' edo, halamoduzko itxuratxuak zituena bazuan eta, ez ziok ba asmatu, zer izango eta... 'pinpilinpauxo'!... hura izan huen algaraz lehertu beharra.

Hilabete pare batean, han erabili genian gora eta behera delako 'pinpilinpauxo', beti barrealgaretan. Eta azkenean, asmatzaileari 'pauxo' deitu genioan aldi luzean...

Chillida Leku Museoaren gorabeherak

Mikel Iturria
http://eibar.org/blogak/iturri/

Publiko egin zuen atzo eskultorearen familiak urtarrilaren 1ean itxiko dituela ateak museoak.

Esan bezala, atzo iragarri zuen familiak Enplegu Erregulazio Espedientea aurkeztuko dutela eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ateak itxiko dituela Museoak. 2000ko irailean inauguratutakoa, hamar urte hauetan 800.000 bisitaritik gora izan ditu Zabalaga finkako eraikinak.

Ez da albiste ona Chillida Lekuren itxiera. Euskal artista puntako baten lana ezagutzera emateko toki zoragarria delako, besteak beste. Horrelakoak bota nitzake duintasun osoz. Eta beste aldera begiratu.

Goizean ederra muntatu zen ChillidaLeku-ko twitter kontuak eskatuta. Izan ere, erraza da norbaiten aldeko edo kontrako tuit bat botatzea. Nik ere egin nuen eta langileei bidali nien besarkada eta animo mezua.

Baina nire buruari galdetzen badiot zenbat aldiz joan naizen Museora, zein da erantzuna? Behin bakarrik joan naizela.

Mezu askok pena eta haserrea adierazten dute, baina egon da ere marketing usaina ikusi duenik. Hau da, ez ote den mugimendu taktikoa erakundeekin negoziatzeko. Ez dakit horrela den edo ez, baina nik ere berdin pentsatzen dut. Aita behin eta berriro aipatzen duen familiak baitaki 2016ko kultur hiriburu izan nahi duen hiri batek (nahiz eta museoa Hernaniko lurretan egon) ezin duela horrelako proiektua antzarrak perratzera bidali.

Esan bezala, mugimendua sortzea lortu dute, behintzat.

[...]

Oraingoz, baina, galderak ditut buruan bueltaka: Luis Chillida da museo horren kudeatzailea? Izenez hala da, baina izatez ere bai? Kudeaketa ona egin al du? Erakundeak dira museoaren etorkizuna salba dezaketen bakarrak? Familiaz gain, bestelako diru-iturri pribaturik ez dago horrelako ekimenik laguntzeko? Eta abar.

Galdera gehiegi eta erantzun gutxi, baina uste dut museo honek aurrera egingo duela.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak eta Kultura), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko ediozio arduraduna Xabier Urtzelai
Maketazioa Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Edurne Gorosabel, Aintzane Muruamendiaraz
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 1697-3542
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK

Neurri, errima eta doinu artean, Aramaioko Bertso Eskolak 13 urte

- Oihane Pereak abiarazi zuen eta bere esanetan, 100 ikasle inguru pasa dira bertatik
- Urteurren berezia ospatzeko, egitarau berezia antolatu dute datorren astebururako

TXOMIN MADINA | ARAMAIO

1997rako Araban dagoeneko bazeuden ibilbide luzeko bi bertso-eskola, Gasteizen bata, Aiaraldean bestea. Urte horren bueltan, Bertsozale Elkarteak bertso-eskola gehiago zabaltzea erabaki zuen, eta hala abiatu ziren Legutio eta Aguraingoa. Eta hortik etorri zen Aramaioko Bertso Eskola sortzeko ideia Ohiane Pereak, bertako lehenengo irakasleak gogoratzen duenez: "Pentsatu genuen, ze arraio! Aramaio da Arabako herririk euskaldunena eta bertso-eskola bertan ere izatea da naturalena, zirikatu ditzagun apurtxo bat ea zer ateratzen den!". Badirudi desafioa ondo irten zela, Aramaioko Bertso Eskolak hamahirugarren urteurrena bete du-eta aurten.

Bertsozale Elkarteak jarri zuen Perea irakasle, azpiegitura aldiz, Elkarteko Aramaioko bazkide eta eskolako jendearen kontu izan zen. Andere Arriolabengoa eta Manex Agirre izan ziren besteak beste eskolaren lehen ikasleetako batzuk. Umorez gogoratzen ditu Pereak garai horiek: "Ez neukan gidabaimenik eta hala edo nola lortzen nuen astero Aramaiora iristea. Euskara batuan egiten dudanez gainera, haurrek arraro hitz egiten nuela esaten zidaten...".

Aramaioko Bertso Eskolako talde bat Garazi Eriz irakaslearekin. Goian, eskolaren logo berria. | LIERNI ALTUNA

Lur onean ereindako hazia

Zein zen garai hartan bertsozaletasunaren egoera herrian? Perearen ustez, gazte eta haurren artean ez zegoen zaletasun handirik; helduen artean ere ez gehiegi. "Adineko jendearen artean, auzoetan, elkarteetako giroan, hor bai, baina halako eten bat sumatzen zen" zehazten du, eta gaineratu: "Haur eta gazteen artean egun dagoen zaletasunaren errudun nagusia Bertso Eskola bera izan da".

Zentzu berean mintzo da Xabi Agirre. Gertutik bizi izan zuen berak Bertso Eskolaren sorrera; hasieran guraso moduan, Manex semea ikasle izan zen-eta, eta duela hamar urtetik hona, koordinatzaile lanetan. "Lehenengo ikasleak ez ziren bereziki bertsozaleak, baina ondoren izandako ibilbidea ikusita, lehen urrats horiek lur onean ereindako hazia izan zirela esan daiteke", dio Agirrek. Udaletik jasotako babesa ere aipatu du. Bertsozaletasuna baina, ez da bertsoak kantatzera bakarrik mugatzen eta halaxe gertatu da Aramaion ere. Bertsolariak ez ezik, gai jartzaileak, bertso-eskoletako irakasleak eta txapelketen antolatzaileak ere irten dira eskola horretatik.

Lehenengo ikasleen artean egon zen Lierni Altuna. 16 urte zituen ikasle hasi zenean, eta ordura arte bertsozalea izan ez arren, Manex Agirrek xaxatuta eman zuen eskolan hasteko pausua. Errima-jolasak, doinuak... Denetarik lantzen zuten.

Eta duela hamahiru urte ikasle izan bazen, gaur egun Bertso Eskolako irakasle da. Egun, hiru taldetan banatuta, 8 eta 16 urte bitarteko 15 neska-mutiko ditu Eskolak, eta hauek guztiak bertso munduan barneratzeko, bi irakasle: Altuna bera eta Garazi Eriz. Altunaren iritziz gainera, irakasleak ikasle ohi izana eskola bera osasuntsu dagoen seinale da.

Herrian erreferente

Iaz jokatu zen Arabako Bertso txapelketan lau aramaioarrek hartu zuten parte: Manex Agirrek, Iker Agirrek, Andere Arriolabengoak eta Xabier Igoak. Eta laukote horixe bera izan da, hain zuzen ere, aurten jokatu den Arabako koadrila arteko Txapelketako irabazlea. Eskolartekoetan ere, gaztetxoek lan bikaina egin dute. "Bertso Eskolaren sorreratik Aramaiok asko eman digu beretik, gorde eta zaindu duen arabarron euskara goxo eta bizi horretatik, mundua ikusteko duten modu berezitik, herrigintzarako aramaioarren parte-hartze eta konpromisotik...", dio Oihane Pereak. Eman bai, baina jaso ere bai. Bere hitzetan, bertso mugimendu dinamiko, gazte eta desberdin bat. Perearen kalkuluen arabera, urte hauetan guztietan 100 ikasle inguru pasa dira Bertso Eskolatik,

Lierni Altunaren iritziz, Bertso Eskola erreferente bihurtu da herrian: "Herriko bertsozaleak elkartu bezala egin dira". Erreferente osasuntsua gainera, bere esanetan jendeak erantzuten duelako Bertso Eskolatik ekitaldiak antolatzen direnean, eta urtero sortzen direlako bizpahiru talde.

Ospakizun asteburua

13 zenbakia zenbaki borobila izan ez arren, hainbat ekitaldi antolatu dituzte datorren egubakoitz eta zapaturako. Barikuan bertso trikipoteoa eta bertso-trama egingo dira; zapatuan, aldiz, bertsopilota eta bertso-gala.

Honetaz gainera, Aramaioko Bertso Eskolak logo berria estreinatu du, Naia Bailezek eta Maider Aldaik egindakoa.

ESANAK

"Haur eta gazteen artean egun dagoen zaletasunaren errudun nagusia Bertso Eskola bera izan da"

OIHANE PEREA | SORTZAILEA

"Osasuntsu ikusten dut Eskola: jendeak erantzuten du ekitaldietan, eta taldeak ere sortzen dira"

LIERNI ALTUNA | EGUNGO IRAKASLEA

DATUA

15

IKASLE

Eskolak bi irakasle eta hamabost ikasle ditu egun

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!
AZAROKO IRABAZLEAK
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro

LIBURU SORTA BAT
Pamiela etxearen liburu sorta bat.
PAMIELA argitaletxea
IRABAZLEA
Luis Elexpuru Unzueta
Aramaio

SKUN-FUNK-EKO KAMISETA+POLTSA
Skunk-Funk etxearen kamiseta eta poltsa bat.
skunkfunk
IRABAZLEA
Ines Elorza Iriarte
Bergara

UMEENTZAKO PUZZLEA
Ikastolen elkartearen umeentzako puzzlea.
Ikastolen Elkartea
IRABAZLEA
Miren Amasorrain Lizarralde
Bergara

ERREMEIXUAK DVD-A
Euskal erremeixuen DVD bat.
kutxa · Bergarako Udala · goiena
IRABAZLEA
Agustin Bolinaga Zubia
Oñati

AITZOROCK-ERAKO SARRERAK
Aitzorrock kontzerturako sarrerak
Aitzorrotz Kultur elkartea
IRABAZLEA
Aitziber Soriano Labrador
Arrasate

SARI NAGUSIA AZAROA-URTARRILA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
26 HAZBETEKO TELEBISTA
• 26"-ko TFT-LCD pantaila.
• TDT integrado.
• HDMI.
• USB 2.0
EROSKI

ARETXABALETA

Ikasturtean ikasitako euskal dantzak erakutsi zituzten Arkupen

Leizarra musika eskolako 4 eta 6 urteko 50 neska-mutikok egin zuten dantza

MIRIAN BITERI | ARETXABALETA

Azken urteko ohiturari jarraituz, dantza emanaldi bereziak ikusteko aukera egon da azken egunotan Aretxabaletako Arkupe kultura etxean; Leizarra musika eskolako ikasleek eskainitakoak, hain justu ere. Abendu osoan zehar musika eskolakoek eskainiko dituzten musika eta dantza emanaldien artean daude horiek.

Guztira, 50 neska-mutiko inguru igo ziren abenduaren 1etik 3ra bitartean Zaraia aretoko agertoki gainera; parean, eserita, gurasoak eta gertukoak zain zituzten argazki kamerak ondoan zituztela. Ikasturtean zehar ikasitakoa erakusteko gertu zeuden lau eta sei urte bitarteko umeak. Lau taldetan zeuden banatuta horiek; hilaren 1an eta 2an, talde banak eta egubakoitzean, ostera, talde bi.

Musika eskolako ikasleak, egubakoitzeko emanaldian. | JULIO CALLEJA

Adinaren araberako dantzak

Ordubete inguruko emanaldia eskaini zuen talde bakoitzak; euskal dantzen pausuak ederto ikasi dituztela erakutsi zuten gehienek, bakoitzaren adinaren neurrirako dantzetan. Txikienak txulalai bezalakoekin ausartu ziren, eta nagusitxoagoak, ostera, arin-arin eta fandangoekin. Batzuk zein besteak oso gustura geratu ziren egindako lanarekin.

Abenduaren 13an, nagusiak

Esan bezala, dantza saioak ez dira joan den asteko emanaldiekin amaituko. Abenduaren 13an, musika eskolako dantzari nagusienen txanda izango da. Leizarra musika eskolako Mariatxe Urkiak jakinarazi digu emanaldi hori Herriko plazan egingo dutela, 18:00etan. Horrekin batera, gaineratu digu 7tik urtetik 18 urtera bitartekoek dantzatuko dutela egun horretan. Horretaz gain, aurten ere, musika emanaldiak eta Gabonetako kontzertua egongo direla iragarri du.

JULIO CALLEJA

BERGARA

Garirekin, Xabier Lete gogoan

Iazko udazkenean plazaratutako *16 lore* diskoa aurkezteko zeukan Garik Bergaran eta atzo iluntzean emanaldia egin zuen Zabalotegiko aretoan. Jarraitzaile ugari ditu legazpiarrak gurean aspalditik eta atzo ere aretoa jendez lepo egon zen Gariren 16 lore kuttunenak eta bestelako abesti ezagunak entzuteko. Emanaldia berezia izan zen, eta Garik Xabier Lete omendu nahi izan zuen kontzertuaren hasieran. Gustura asko geratu ziren Zabalotegin batutako ikusleak. Bi musikari izan zituen alboan Garik agertokian eta giroa zertxobait berotzeko ikuskizun aproposa izan zen.

DEBAGOIENA

Euskaraz bizi gaitezen aldarrikatu dute egunotan bailarako kaleetan

Aretxabaletan manifestua irakurri dute eta Arrasaten Lip duba grabatu dute, besteak beste

Euskaltegiko ikasle Mario Alvarezek irakurri zuen Aretxabaletako euskararen aldeko manifestua. | JULIO CALLEJA

Udaletxeko balkoiak, joan den egubakoitzean. | ESTEPAN PLAZAOLA

Bergarak "himnotzat" hartutako kantua

Euskararen egunerako "himnotzat" hartu zuten *Egiozu euskaraz* kanta baten hitzak jarri zituzten egubakoitzean Bergarako udaletxeko balkoietan. Kanta horren hitzak Ainhoa Agirreazaldegi bertsolari bergararrarenak dira eta Pirritx eta Porrotx pailazo ezagunen abesti batean agertzen dira.

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Euskararen aldeko mezuak han eta hemen entzun ahal izan ziren Debagoiena osoan zehar, joan den egubakoitzean. Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta, ekimen asko antolatu zituzten gurean; guztien artean, Loramendi elkarteak eta Leintz Udal Euskaltegiak, iluntzean, Aretxabaletan egindako ekitaldia azpimarra daiteke.

Manifestua irakurriz hasi zen hori, 18:00etan. Ohikoa den moduan, euskaltegiko ikasle batek irakurri zuen; Mario Alvarez mexikarrak, hain justu. Haren esanetan, "han eta hemen. Han barik, hemen; momentu bakoitzean gauden leku horretan, bizi garen eta bizi dugun leku horretan, nonahi erabili dezakegu euskara, bizi gaitezen euskaraz".

Idatziak, dena dela, ohartarazten zuen bizi garen eta bizi dugun leku askotan "leku txikia" duela euskarak, edo, are gehiago, "lekurik ez duela", nahiz eta leku horretan erabili dezakegun euskara. Horren aurrean, honakoa aldarrikatu zuen: "Bai han, bai hemen, bai hor, momentu bakoitzean gauden leku horretan, bizi eta biziko dugun leku horretan erabiliz zabalduko, geureganatuko eta biziko dugu euskara, erabiliz eta geure eginaz".

Basotxo abesbatzak

Manifestuaren ondotik, argazkia atera zuten, eta jarraian, Basotxo abesbatzak emanaldia eskaini zuen. Kantaldia amaitzean, udaletxe zaharrera joan ziren guztiak, trikitixaz lagunduta. Gustura jan zituzten txistorra pintxo beroak, kantuan egin zuten bitartean. Ekitaldi bikaina Aretxabaletakoa. Orain manifestuan esandakoa aplikatzea baino ez da falta.

Gazteak Arrasateko Monterronen, Lib dup antzekoa grabatzen. | MIRIAN BITERI

Txatxilipurdik Lip duba grabatu zuen

Euskararen egunaren harira Txatxilipurdik egin zituen ekimen guztien artean, zapatuan grabatutako Lib dup modukoa azpimarra daiteke. Zapatuan arratsaldean egin zuten hori. Monterronera joan ziren eta mozorroak jantzi ostean, hainbat eszena grabatu zituzten parkean; alde zaharrean, Santa Barbara parkean eta Garagartza aldean berdina egin zuten. Ilundu zenean, berriz, auzoetako gaztetxokoetan hartu zituzten beste zenbait irudi.

Umeak seminarioko jolastoki estalian jolasean. | MIRIAN BITERI

Haurren jolasak eta kantuak, Bergaran

Bergaran, Jardunek antolatuta, jolasean ibiltzeko aukera izan zuten egubakoitz iluntzean umeek. Seminarioko jolastoki estalian, tailerrak antolatu zituzten; batzuek, marrazkiak koloreztatu eta artaziekin moztu ostean maskarak egiten zituzten bitartean, beste batzuek, txapak egiten ikasi zuten begirale baten laguntzarekin. Haurrak jolasean ibili ziren bitartean, Jarduneko Maitane Arizabaletak guztiendako txokolate beroa gertatu zuen jolastokian bertan.

Gazteak pintxo ederrak gertatu zituzten. | JULIO CALLEJA

Pintxo guztiak saldu ziren Antzuolan

Antzuolako gaztetxokoan lanpetuta ibili ziren egubakoitz arratsaldean, txorizo eta urdaiazpiko eta gazta tortilla pintxoak gertatzen. 19:30an Zurrategiko kioskoan saltzen hasi ziren; lehenengoak, euro baten truke, eta bigarrenak, euro eta erdi. Denak saltzea lortu zuten. Bestalde, euskararen aldeko leloekin egindako kartelak ere egin zituzten.

Eskoriatzan, gustura hartu zuten txokolate beroa. | JULIO CALLEJA

Gaztaina eta txokolate usaina Eskoriatzan

Eskoriatzan ere giro ederra egon zen egubakoitz arratsaldean. Luis Ezeizako ikasleek zabaldu zuten ekimenen egitaraua, frontoian egindako dantza emanaldiarekin. Hori amaitzean, bolalekura joan ziren guztiak, gaztaina erreak jatera. Jarraian, neska-mutikoendako jolasak egin zituzten ludotekan. Txokolate janarekin amaitu zen guztia.

Lurraldebusen txartela urbanoan erabilgarri, urtarriletik aurrera

Zirkulazio aldaketak eragingo ditu autobus zerbitzu berriak

UBANE MADERA | ARRASATE

Urtarriletik aurrera, Arrasateko urbanoaren erabiltzaileek Lurraldebus txartelaren abantailak aprobetxatu ahal izango dituzte, hain justu, txartel hori erabiltzeko makinak ipini behar dituzte-eta hemengo urbanoetan. Berez, urtarrilaren 7an gura dute txartelaren erabilera aplikatzen hasi, baina urbanoaren zerbitzu berriaren menpe izango da behin betiko data.

Izan ere, 2011. urte hasieran, berritasun ugarirekin etorriko da Arrasateko urbanoa.

Autobus urbanoa Otalora Lizentziaduna kalean, herritarrak hartzen. | U.M.

Autobus berriak

Batetik, autobus berriak estreinatuko dituzte. Bost guztira, Mercedes markakoak, eta une honetan Alemanian daudenak. Leintz Garraioak enpresaren aurreikuspenaren arabera, abenduaren 22ko asterako izango ditugu Arrasaten, eta autobusak estreinatu arte Pesaren kotxeretan gordeko dituzte.

Oraingoak baino txikiagoak eta ekologikoagoak izango dira autobus berriak, besteak beste, kontsumoa ia erdira jaitsiko delako.

Zerbitzu bikoizketa

Bestetik, orain arte baino autobus gehiago izango denez, autobus zerbitzuaren maiztasuna bikoiztu egingo dute, eta orain arte urbanoa orduro pasatzen bazen, bada, urtarriletik aurrera ordu erdian behin pasako da geraleku bakoitzetik. Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 21:30ak arte ibiliko da; zapatuetan, 09:00etatik 22:00etara; eta ohikoa den moduan, domeka eta jaiegunetan ez dute zerbitzurik emango.

Salbuespenak ere badaude, hori bai: abuztuan urbanoa orduro pasako da; eta baita zubiak diren astelehen eta egubakoitzetan ere.

Herriko zirkulazioan hainbat aldaketa

Zirkulazioan aldaketak urtarrilaren 7an sartuko dira indarrean. Musakolan, esaterako, kiroldegi ingurura autoz joateko San Isidro ermita paretik sartu beharko da; hau da, Joan Bengoa kaletik ezingo da sartu. Era berean, Joan Bengoatik Santa Teresa auzora joan ahal izango da; Elkano kalera ezin izango da sartu. Kiroldegitik irteteko, berriz, gaur egungo moduan, San Isidro ermitatik zein Joan Bengoatik atera ahal izango da.

Eta beste aldaketa pare bat Erguin auzoan egingo dituzte: Udalpe kalea norabide bakarrekoa izatera pasako da, batetik; eta bestetik, Garaiako biribilgunetik ibilgailuak sartu ahal izango dira, Itxaropena kalea zeharkatu eta handik Erguin kalera sartu.

Hiru geraleku berri

Bukatzeko, hiru geraleku berri izango ditu autobus urbanoak: Etxaluzen bata, Garaia Berrikuntza Gune inguruan bestea eta kiroldegian hirugarrena.

Ibilbide aldaketa

Aldaketa horien guztien berri emateko eskuorria bidaliko du Udalak etxez etxe. Urte amaiera baino lehen egingo dute hori.

Bestalde, urbanoaren zerbitzu berria abiarazteko, aldaketak egingo dituzte herri barruko zirkulazioan. Goian informazioa.

"Harrobiaren gaineko azken berba Udalak du"

Jaurlaritzak onespena eman dio Udalatx barruko harrobiaren ingurumen eraginari

UBANE MADERA | ARRASATE

Jaurlaritzak Kanpanzar harrobiaren lur azpiko esplotazioaren gaineko ingurumen eragina onartu egin du. Dio harrobia lur azpian egiteko proiektua "berritzailea" dela eta ingurumenarendako "abantaila garrantzitsuak" dituela, "paisaiari, landareei eta faunari eragiten dizkion kalte nagusiak eliminatu" egiten dituztelako.

Horrela, bada, Jaurlaritzaren aldetik ez dago arazorik Cantera de Campanzar enpresak Udalatx barrutik harria ateratzen segi dezan.

Ur-iturriak aztertu behar

Hori bai, Jaurlaritzaren txostenak azpimarratu du, besteak beste, ondo aztertu beharko liratekeela harrobi mota horrek lur azpiko iturrietan izan ditzakeen eraginak, "iturriok ez eteteko", eta komeni dela zundaketa gehiago egitea, "ahalik eta zehatzen finkatzeko esplotazio mailarik baxuenak" zein izan beharko lukeen.

Bada, Jaurlaritzaren onespena jakinda, Ino Galparsoro alkateari galdetu diogu zer gertatuko den orain harrobi horrekin, eta, labur esanda, alkatearen erantzuna da harrobi horrek ez duela lekurik Arrasaten.

Harrobi asko izandako herria

"Jaurlaritzaren txostenak ez dakar hori aurrera eraman daitekeenik. Udal planen arabera, ez dago aurreikusita harrobi hori aurrera joan daitekeenik", esan du Ino Galparsorok.

Gaineratu du Arrasate "harrobi asko izan dituen" herria dela; eta Udalatxen harria mendi barrutik ateratzen segitu ahal izateko "kanpotik zati bat gehiago egitea planteatzen" dutela. Beraz, "orain, aukera izanda urte batzuetara Udalatxeko harrobia ixteko, "udal honetan gehiengoa proiektu berri horren kontra" legokeela.

Bestalde, Arrasateko alkateak azpimarratu du auzi horren gaineko azkeneko berba, "oraingoz", Arrasateko Udalak berak duela; hain justu, harik eta Jaurlaritzak harrobien gaineko Lurraldeko Plan Sektoriala egin arte. "Baina orain dela 30 urte-edo hasi ginen esaten horren planifikazioa egin gabe zegoela EAEn, eta egin gabe jarraitzen du", adierazi du Galparsorok.

Alegazioak erantzun barik

Horrekin batera, alkateak "harridura" erakutsi du orain "Jaurlaritzak ingurumen eraginaren aldeko jarrera" azaldu duelako; izan ere, Arrasateko Udalak joan den martxoan alegazioak aurkeztu zizkion harrobiaren proiektuari eta Jaurlaritzak ez dio erantzun ere egin.

Bukatzeko, alkateak uste du Udalatxek ez duela "halako tratamendurik merezi", Arrasaterendako "ikur bat" delako, eta "duen balioarengatik". Gogora ekarri du, gainera, AHTren kontura beste makina bat zulo egin behar dizkiotela.

Uarkape pilotalekua, egubakoitzean. | UBANE MADERA

Jolasparke estalia eskatu du guraso talde batek, neguan umeek ez dutelako non ibili

U.M. | ARRASATE

Arrasateko guraso talde batek jolasleku estalia eskatu dio Udalari. Proposamen zehatza ere egin diote: Uarkape frontoia. Eta egunero ez bada, astean hirutan zabal dezala eskatu diote, umeek bertan jolas dezaten; eta Uarkape ez bada, Caixako parkea estal dezala... "10 guraso-edo izan gara iniziatiba hartu dugunok, baina beste askorekin berba egin dugu gai honi buruz parkeetan, eta badakigu beste asko daudela ados", kontatu du Maria Ubarretxenak, eskaera aurkeztu duen gurasoetako batek.

Arrasatek gabezia

Guraso horiek uste dute ume txikiek ez dutela aukera handirik Arrasaten: "Arkupeez aparte, ludoteka primeran dago, baina gure haurtxoak txikiak dira eta ezin dira joan. Eta Kulturate oso ondo dago, baina liburutegi bat da eta umeek aktibitate fisikoa ere behar dute. Horretaz aparte, Arrasatek daukan biztanle kopururako pobre gelditzen dela pentsatzen dugu", gaineratu dute.

Kutxi Romero eta Antonio Belarteren 'Las moscas lo devorarán todo' abenduaren 11n

800 lerroko poema bakarra duen liburua egin dute bi artistok; aurkezpen berezia egingo dute gaztetxean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Kutxi Romero Marea taldeko abeslariak eta Antonio Belarte poeta valentziarrak –Sor Kampana moduan ezaguna dena– elkarlanean atera duten liburua aurkeztuko dute gaztetxean zapatuan, abenduak 11: *Las moscas lo devorarán todo*. Bi artistak ezagunak dira euren hitz zuhur bezain basatiengatik. Kutxi Romerok arrakasta handia lortu du Marea taldearekin –arrakastaren errua, hein handi baten, Romeroren hitzek eragin dute– eta Sor Kampana ere ezaguna da Espainia osoan, poemengatik. Sor Kampanak ere hainbat proiektu musikaletan hartu du parte.

800 lerroz osatutako poema bakarra aurkituko du irakurleak liburuan. Liburua aurkezpenean egongo da salgai, eta baita Interneten ere, *www.tiendalosmarea.com* helbidean.

La Banda del Abuelo taldearen emanaldi berezia izango da aurkezpean. | JOSETXO ARANTZABAL

La Banda del Abuelo ere bai

Aurkezpenak 20 minutu eskas iraungo du eta bertan, Romero eta Belartek liburuaren hainbat pasarte errezitatuko dituzte, alkandora hertsagarriak jantzita dituztela eta plantxa egiteko gertu. Aurkezpen berezia, beraz. Ziur bi artistek ez dutela ikuslea axolagabe utziko. Musikarik, noski, ez da faltako; etxeko talde baten eskutik, gainera. La Banda del Abuelok saio berezia emango du, Australiako didjeridu eta guzti; Sor Kampanak egindako abesti bat joko dute. Aurkezpenaren bideoa *www.myspace.com/labandadelabuelo.com*-en ikusi ahalko da.

Musakolako igerilekuak, datorren urtera arte

J.B. | ARRASATE

Aukeak urte amaierarako espero zuen Musakola kiroldegiko obrak amaitzea. Lanen alde garrantzitsuena da igerileku handiaren sakonera murriztea, baina atzerapena ren arrazoia sabaian izandako arazo batek eragin du. Arazoa ez dute zehazterik izan oraindik, eta, beraz, igerilekuak erabilgarri noizko egongo diren ez dakite. Hala jakinarazi zuten Aukeako Yolanda Perez de Arenatza eta Olatz de Miguelek.

Lanak udan hasi ziren eta hasieran espero zuten azaro erdialderako edo abendu hasierako amaitzea. Hala ere, azken orduko aldaketek epea abendu erdialdera arte atzeratu zuten. Bada, epe hori ere ez da beteko: 2012ra arte itxaron beharko da.

136 lagun elkartu ziren 1960an jaiotakoen ospakizunean

1960an jaiotakoen ospakizun berezian 136 lagun elkartu ziren. Azaroaren 27an batu ziren egun osoko plana egiteko: goizean txikiteoa trikilari eta guzti, gero Sara merenderoan bazkaldu eta, azkenik, bidaia batzuen zozketa eta giltzatako bana opari moduan. Bazkariaren ostean 50 lagunek Txalaparta elkartean afaldu zuten.

MARCE GONZALEZ

'Maka' futbol taldekoek bazkaria egingo dute

Futbol talde mitikoaren parte izan zirenek Lukas jatetxean bazkalduko dute abenduaren 18an

1975-1976 denboraldiko taldea, Roman Lopez bertan dela. | ROMAN LOPEZ

J.B. | ARRASATE

Makatzena futbol taldeko jokalari, entrenatzaile eta zuzendariek bazkaria egingo dute datorren abenduaren 18an, Iturriotz kaleko 11. zenbakian dagoen Lukas jatetxean (14:30). *Maka* albiste izan zen duela pare bat aste, Roman Lopez klubaren *alma mater* izan zenak argazki bilduma atera zuelako. Hainbat argazki zahar aurki daitezke bertan. Bada, horrek klub handi haren –gazte mailan Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten 1975-1976 denboraldian, adibidez– parte izan zirenei mahaiaren bueltan esertzeko grina piztu die.

Roman Lopez bera izan da bazkaria antolatu duena, eta, futbol partiduen aurretik moduan, deialdia egin du bazkarirako gonbidatuta daudenen abizenekin. Izena emateko azken eguna abenduaren 15a izango da.

Saharako "gizateriaren kontrako krimena" salatu zuen udalbatzak

Nubi gobernuz kanpoko erakundeak Sahararen egoera dela-eta mozioa aurkeztu zuen egueneko osoko bilkuran. Garazi Hach Embarek-ek, ama sahararra eta aita euskalduna duenak, hartu zuen hitza. PSOEk Saharan erabiltzen duen "joko bikoitza" salatu zuen: "PSOEk alde batetik laguntzarako hegazkinak bidaltzen dituen bitartean, beste alde batetik armak ematen dizkio Maroko Gobernuari".

Mozioa onartu egin zen: PSE-EEK aurka bozkatu zuen eta EAJ abstenitu egin zen. Gainerakoek bat egin zuten Nubirekin, adierazi zutenez, "Saharako errealitatea gertutik ezagutzen dutenekin".

La Pulga taldearen flamenkoaren txanda da eguen honetan

Aurrera doaz Kooltur ekintzaren *Kooltur ostegunak*. Joan den eguenean Jon & Sugramas taldea izan zen genuen. Arima Beltza taldeko Jon Gurrutxaga gidari, iraganeko rock doinuak freskotasunez ekarri zizkiguten. Eguen honetan, bestalde, La Pulga taldeak joko du. Asko Etxebarrietak f amenkoa ekarriko digu gaztetxera, eta, bere taldekideen ezinbesteko laguntzarekin, ikuslegoa dantzan jartzeko moduko saioa eskainiko dute. Flamenkoa ez da ohikoa gurean, eta eskertzekoa da, beraz, Kooltur Ekintza taldekoek eskaintza plurala izan dadin egiten duten lana. Gogora ezazue: 22:00etan, gaztetxean; sarrera, bost euro.

Erakusleiho, jaiotza eta postal lehiaketak Gabonen atarian

Erakusleiho lehiaketan parte hartzeko, abenduaren 13rako prestatuta egon beharko dute

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Udaleko Kultura Sailak erakusleiho lehiaketa deitu du, Gabonen atarian.

Ohi bezala, herriko merkataritza-establezimendu guztiak aintzakotzat hartuko dira lehiaketan, aurrez izena eman beharrik gabe. Kontuan izan behar da, dena den, abenduaren 13tik urtarrilaren 7ra bitartean, biak barne, egon beharko dutela erakusketarako prestatuta erakusleihook.

Sariak ematerakoan epaimahaiak kontuan hartuko ditu publizitate-mezuaren imajinazioa, originaltasuna eta eraginkortasuna, erakusleihoaren kalitatearekin batera. Bestetik, establezimenduan saltzen diren ohiko artikuluak agertu beharko dira, eta, horrekin batera, erakusleihoak apaintzeko gorosti, goroldio, erratz eta izei naturalik ez erabiltzeko eskatu du Udalak.

Gure Ametsa elkartekoek San Antonion jartzen duten jaiotzaren detaile bat. | GOIENA

Hiru sari egongo dira

Sariei dagokienez, hiru egongo dira: 300 euro eta garaikurra lehenengoarendako; 250 euro eta garaikurra bigarrenarendako; eta 200 euro eta garaikurra hirugarrenarendako. Epaimahaiari dagokionez, Kultura batzordeak, Bedelkar Bergarako merkatarien elkarteak eta Beart Bergarako arte elkarteak izendatutako pertsonek osatuko dute.

Abenduaren 20an emango dituzte aditzera erakusleiho irabazleen izenak, 15:30ean kultura etxean egingo duten sari banaketa ekitaldian.

Erakusleihoak piztuta

Lehiaketak irauten duen bitartean erakusleihoak argiztatuta edukitzea komeni dela ere ohartarazi dute Kultura Sailetik, epaimahaiaren lana errazteko: lanegunetan, dendak ixteko ordura arte eta jaiegunetan eta bezperetan, 21:00ak arte.

Belen eta postal lehiaketak ere deitu dituzte

Belen eramangarrien IX. lehiaketa eta Gabonetako postalen VI.a –Serafin Esnalola memoriala– ere deitu ditu San Antonioko Gure Ametsa elkarteak.

Jaiotza lehiaketan nahi duten guztiek har dezakete parte, baina hiru maila ezarriko dira: 12 urtera artekoak, 13tik 17ra artekoak eta 18 urtetik gorakoak. Jaiotzok oinarri sendoan egindakoak izan beharko dute eta oinarri horrek 30 eta 80 cm arteko neurria izan beharko ditu alde bakoitzean.

Lanak aurkeztu behar dira hilaren 17an, 19:00etatik 21:00etara, Gure Ametsa elkartean.

Postalen lehiaketari dagokionez, 3 eta 12 urte arteko umeendako da eta hor ere hiru maila egingo dira: 3-6 urte artekoak, 7-9 artekoak eta 10-12 artekoak.

Postalen neurriak orri laurdenekoa izan beharko du, eta, ahal bada, kartulinan egindakoa. Irudiak Gabonei buruzkoa izan beharko du. Lanak aurkeztu beharko dira abenduaren 17an, 19:00etatik 21:00etara, Gure Ametsa elkartean.

Datorren urtean udal pilotalekuak erabiltzeko izenematea zabaldu dute

Ohi bezala, pilotalekuok 2011n erabiltzeko izenematea Agorrosin Ekintza Gunean egin behar da

M.B. | BERGARA

Urte berria hasteko geroago eta gutxiago falta da eta Kirol Saila datorren urteko ekintzei begira dago dagoeneko.

Batetik, datorren urtean udal pilotalekuak erabiltzeko izenematea zabaldu dute abenduaren 15era bitartean, Agorrosin Ekintza Gunean. Behin-behineko zerrendak argitaratuko dituzte abenduaren 16an eta zozketa egingo dute abenduaren 17an. Hori horrela, behin betiko zerrenda argitaratuko dute hilaren 18an.

Ordurik hartzeko geratuz gero ere, hilaren 18tik aurrera egin ahal izango da eskaria.

Elorregiko pilotalekua. | GOIENA

Txikiendako ur jarduerak

Bestalde, sei hilabetetik hasi eta bi urtera arteko umeendako ur jarduerak antolatu ditu Kirol Sailak 2011rako. Izenematea zabalduko dute hilaren 9tik 15era, Agorrosinen. Izena ematen dutenen behin-behineko zerrenda argitaratuko dute hilaren 20an eta zozketa egingo dute 21ean. Behin betiko zerrenda argitaratuko dute hilaren 22an eta plazarik libre geratuz gero, egun horretatik aurrera hartu ahal izango dira.

Uretako sorospidetza

Azkenik, uretako sorospidetza eta kanpoko desfibriladore automatikoaren gaineko ikastaroa egingo dute abenduan Agorrosinen. Abenduaren 11n eta 12an izango da eta parte hartzeko ezinbestekoa izango da uretako sorosle titulua izatea. Hilaren 11n, saio teorikoak egingo dituzte, 09:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Hilaren 12an, saio teorikoarekin batera ur saioa ere egingo dute, 09:00etatik 13:00etara.

Ikastaroaren prezioari dagokionez, 40 euro da Debarrokoendako eta 60, Debarrokoak ez direnendako. Dirua sartu behar da 3035.0009.13.0090016873 kontu zenbakian eta adierazi behar dira eskatzailearen izen-abizenak eta *SOS birziklaketa* kontzeptua.

Izenematea da hilaren 9ra arte eta horretarako eraman behar da ordainagiria Agorrosinera. Gutxienez, 16 ikaslerekin osatuko da taldea eta gehienez 30endako lekua egongo da. Debarrokoek lehentasuna izango dute.

Saharari elkartasuna adierazi dio udalbatzak

M.B. | BERGARA

Zutik Sahara!! Elkartasuna Sahararekin!! delako mozioa onartu zuen udalbatzak aurreko astelehenean egindako osoko bilkuran. Udal Gobernu taldearen, EAJren eta EAren aldeko botoekin eta PSE-EEren kontrakoarekin onartu zuten. Mozio horrekin, "protesta baketsuan parte hartzeko okupatutako hirietatik irten ziren 20.000 sahararrei elkartasuna" adierazi die udalbatzak eta "Marokok eta haren bazterketa politikak saharar herriaren giza eskubideen aurka egiten dituen urradura larriak" salatu. Era berean, gogor gaitzetsi dute "Marokoko armadaren esku-hartzea", "Saharako herriari babes osoa" adierazi diote eta "askatasuna lor dezan laguntzeko konpromisoa" berretsi.

Mugatutako kaleetan erraz sartzeko Giltzagune programa abiarazi dute

Pibotez itxitako kaleetan larrialdi zerbitzuak errazago sartzeko giltza bakarra egotea da gakoa

M.B. | BERGARA

Larrialdi kasuetan denbora urrea da, eta, Udalak hori aintzat hartuta Giltzagune plana jarriko du herrian. Sistema erraz baten bidez, pibotez itxitako kaleetarako sarrera erraztea du helburu plan horrek, modu horretan, suhiltzaileek, anbulantziek eta halako larrialdi zerbitzuek denbora aurrez dezaten.

Hain justu ere, Zubillagako suhiltzaileengandik izan du Udalak Giltzaguneren berri, Agurne Barruso alkateak azaldu duenez: "Duela denboratxo bat Martoko kalean izandako sute batera hurreratu nintzenean, Zubillagako suhiltzaileburuak eman zidan Giltzaguneren berri", esan du. Eta gehitu du: "Zentzuzkoa iruditu zaigu, larrialdi zerbitzuen lana errazten dela kontuan izanda, eta horregatik erabaki dugu herrian abiaraztea. Bestalde, ezartzeko ere erraza da".

Sinplea eta erraza

Gakoa giltza bakarra egotea da. Barruso alkateak honela azaldu du: "Geroago eta kale gehiago ixten dira eta gaur egun egiten duguna da jartzen dugun pibote bakoitzeko giltza edo mandoa eman suhiltzaileei, ospitaleei, Ertzaintzari... Azkenean, giltza pila bat izaten dute...".

Giltzagunek planteatzen duen irtenbidea honakoa da: 15 bat zentimetro luze eta 8 zentimetroko diametroa duen altzairuzko kutxatxoaren barruan pibotea zabalduko duen giltza gordeko da. Kutxatxo hori pibotearen ondoko eraikinaren paretan txertatuko da. Kutxa zabaltzeko ere giltza beharko da, baina kutxa guztiek izango dute giltza bera; hortaz, larrialdi zerbitzuek giltza bakar hori bakarrik izan beharko dute, kutxa zabaldu eta barruko ateratzeko.

DATUA

19

GILTZAGUNE

Herriko 19 lekutan jarriko dituzte giltzak gordetzeko guneak.

Barrusok azaldu duenez, eskaria egin dute Foru Aldundian herrian 19 lekutan jartzeko kutxa horiek, eta gehitu du: "Udaltzain eta brigadaburuek eta suhiltzaileek aztertu dute non komeni den jartzea eta 19 leku erabaki dituzte. Kutxak ere eskatuta daude, eta, hortaz, iristen direnean, udal brigadako langileek jarriko dituzte aurrez erabakitako lekuetan".

MONIKA BELASTEGI

Txukun-txukun jarri dute Santa Marinako espaloia

Santa Marina parrokia aurreko espaloia txukun-txukun jarri dute. Usondo parkearen kontra zegoen espaloia kendu egin dute eta maila berean jarri dute zoru guztia. Horrekin batera, zubiko zoruari jarraipena emateko, harri berbera erabili dute, modu horretan Bideberrin egindako urbanizazio hobekuntzetan integratuz. Dagoeneko bukatu dituzte lan handienak eta azken boladan zoruan zeuden zuloak desagertu egin dira.

Asteon detaile txikiren bat edo beste baino ez zen falta guztia bukatzeko, irudian ikus daitekeen moduan.

Toribio Jauregiren argazki erakusketa ikusgai dago hilaren 12ra arte

Antzuolan jaiotako argazkilariak txirrindularitzaren gainean egindako argazkiek osatzen dute

M.B. | BERGARA

Txirrindularitza lasterketak, iruditan erakusketa hilaren 12ra arte egongo da ikusgai Aroztegin. Antzuolan jaio baina Bergaran bizi izan zen Toribio Jauregiren erakusketako argazkiek txirrindularitza dute oinarri eta ziklismoaren ikuspegitik herriak izan duen bilakaera ikus daiteke.

Bildumako argazki zaharrena 1925. urtekoa da eta berrienak 1960ko hamarkadakoak. Guztira, ziklismoaren gaineko 998 erretratu egin zituen Jauregik, eta erakusketan horietako batzuk jaso dira lau multzotan banatuta: probetako irteerak, ibilbidekoak, helmugakoak eta sari banaketa ekitaldietakoak.

Herritarrak Aroztegin Toribio Jauregiren erakusketa ikusten. | GOIENA

OHARRAK

1989KOEK AFARIA EGINGO DUTE ABENDUAREN 11N

Tartufon egingo dute. Bulen egin dute hitzordua, 19:00etan, eta 21:00etan hartuko dute autobusa afaltzera joateko. Izena emateko azken eguna da hilaren 8a. Horretarako sartu behar dira 35 euro Euskadiko Kutxan (3035 0189 3 0 1891033861).

ERRETIRATUENDAKO LUNCHA LASAI TOKIN

Urtero bezala emango dute eta herriko erretiratu guztiak dauden gonbidatuta. Abenduaren 8an izango da, 12:30etik 14:00etara.

VALDEZCARAYRA ESKIATZERA

Udaleko Gazteria Sailak antolatu du 12-18 urte artekoendako eta izango da abenduaren 18an. Materiala etxetik eramaten dutenek 20 ordainduko dituzte eta materiala alokatzen dutenek, 40 euro. Izenematea da abenduaren 10era arte, kultura etxean: 943 77 91 60.

ARANZADIKO DBH-KOAK POLBOROIAK SALTZEN

Laugarren mailako ikasleak hasi dira polboroiak eta bonboiak (14 euro) eta *Argia* egutegiak (8,50 euro) saltzen ikas bidaiarako dirua lortzeko. Eskuratzeko, bidali behar zaio dirua irakasleari seme-alaben bidez.

GENEALOGIA BERBAGAI HILAREN 11N

Genealogiarako iturri dokumentalak: artxiboak izeneko jardunaldi irekiak egongo dira hilaren 11n, zapatua, osoko bilkuren aretoan. Egun osoko jardunaldiak izango dira, 09:30ean hasita, eta Antzinako elkarteak eta Udal Artxiboak antolatuta. Hitzaldiak eta tailerrak egongo dira eta genealogia gaietan interesa duten herritarrek har dezakete parte.

Artzuaga eta Arlanzonen fondoak laster 'guregipuzkoa.net' atarian jarriko dituzte

- Bi argazkilari oñatiarren 16.000 argazki jarriko dituzte ikusgai urte bukaerarako
- Hondarribia, Zaldibia eta Zestoako udaletako fondoak kontsulta daitezke dagoeneko

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Urte bukaerarako jarriko dituzte ikusgai eta erabilgarri Andres Arlanzonen eta Miguel Angel Artzuagaren argazki fondoak *www.guregipuzkoa.net* atarian. Guztira, 16.000 argazki digitalizatu eta katalogatuko dituzte. Udal Artxiboan dauden argazkiak guztiondako eskuragarri egongo dira aurrerantzean.

Askotariko erretratuak

Arlanzon eta Artzuagak egindako argazkietan Oñatin egindako irudiak ikus daitezke. "Paisaiak, jaiak, ospakizunak eta miss desfile bat ikus daitezke. Bi fondoak oso aberatsak dira", esan digu Udal Artxiboko arduradunak. 1960ko hamarkadatik hasi eta 2000. urtera arteko erretratuak dira digitalizatu eta katalogatuko dituztenak.

Guregipuzkoa.net atarian jartzen dituzten momentutik edonork erabil ditzake. "Helburua da herritarrek eskura izatea argazkiok. Dagoeneko hainbat udaletako fondoak jaso ditugu, eta horietan, Gipuzkoan barrena egindako erretratuak daude", esan zuen aurkezpenean Maria Jesus Aranburu diputatuak.

100.000tik gora

Hondarribia (4.978 erretratu), Zaldibia (1.705) eta Zestoako (1.205) udaletako fondoak ikusgai daude Aldundiaren atarian, eta laster ipiniko dituzte Oñatikoak, Beasaingoak (9.643 argazki) eta Urnietakoak (12.275 argazki). Euren asmoa da urte bukaerarako prest egotea. Hori horrela, 100.000 erretratu egongo dira *guregipuzkoa.net* atarian.

Dena den, hainbat udalek utzitako argazkiez gain, herritarrek ere igo ahal dituzte erretratuak atari horretara. Dagoeneko 20.000 bat erretratu igo dituzte partikularrek.

Erabiltzeko deia

Guregipuzkoa.net ataria Gipuzkoa 2.0 programaren barruan sortutako egitasmoa da. Argazkiak oinarri hartuta Gipuzkoaren patrimonioa guztion eskura jarri gura izan dute. "Erabiltzeko oso erraza da. Atarian sartu eta han zehazten dugu zer egin behar den argazkiak erabili ahal izateko", esan zuen Aranburuk.

Argazki zaharrak 'Euskomedia'-n

Udal artxiboan zeuden argazki zaharrenak Eusko Ikaskuntzaren *www.euskomedia.org/galeria* webgunean ikus daitezke dagoeneko. XX. mende hasierako 450 bat argazki daude; besteak beste, Lizaur arkitektoa, Socorro markesa eta Antia Jauregiko fondoetako erretratuak dira, hain zuzen ere, 1910-1917 urte artekoak.

Argazki zahar horiek ere kontsulta daitezke Udalaren webgunean dagoen loturan: *www.oinati.net/zerbitzuak/artxiboak/bildumak*.

Bidaurretako elizako erretaula. | UDAL ARTXIBOA

Uribarrin erre zen Baltzategi baserriarendako laguntzak jasotzeko kontua zabaldu dute

M.B. | OÑATI

Urrian Uribarri auzoan erre zen Baltzategi baserriarendako laguntza-deialdia egin du herritar talde batek. Kutxan kontu korrontea zabaldu dute, herritarrek ekarpenak egin ditzaten: 21010057580012730487.

Era berean, Udalak dirulaguntza emateko erabakia hartu zuen azaroaren 11ko tokiko gobernu batzordean, Gizarte Zerbitzuak egindako proposamena aintzat hartuta.

Etxekoak burumakur

Baltzategi baserrikoek oraindik burumakur jarraitzen dute. Hilabete pasa da etxe barik geratu zirena, eta penatuta daude. "Ezer barik geratu gara. Zapatila ziztrin bat hartzeko aukera ere ez genuen eduki. Oso gogorra izan da. Kalean geratu gara, ezer barik. Esku hutsik gaude" esan digu Begoña Lopezek. Aseguruarekin dabiltza hartu-emanetan, eta oraindik ez dakite noiz itzuli ahalko diren baserrira. "Luze joko du, ziur. Etxearen harrizko egitura bakarrik dago zutik. Berria egin beharko genuke", dio Lopezek.

Baltzategi baserria urriaren 29an erre zen. Sua etxeko tximinian piztu eta etxe osora zabaldu zen oso azkar.

Azaroaren 11n erre zen Baltzategi baserria. | JOSETXO ARANTZABAL

Erakusleiho lehiaketako izenematea zabalik dago

M.B. | OÑATI

Oñatiko Udalak III. erakusleiho lehiaketa deitu du. Parte hartu gura duten komertzioek abenduaren 10a baino lehen eman behar dute izena udaletxeko harrera bulegoan, turismo bulegoan edo Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Merkataritza Sailean (Bidebarrieta 12). Udalak 4.500 euro banatuko ditu. Sari banaketa ekitaldia abenduaren 30ean egingo dute.

Epaimahaiak diseinua, originaltasuna, irudimena, argiztapena, gaia eta berrikuntza baloratuko ditu. Guztira, sei sari banatuko dituzte: lehen saria (1.500 euro), bigarrena (1.000 euro), hirugarrena (500 euro), laugarrena (300 euro), bosgarrena (200 euro), herritarrek aukeratutako saria eta sari berezia (500 euro bakoitzarendako). Azken horretan urtean zehar egindako erakusleiho aldaketa baloratuko du epaimahaiak. Bestalde, herritarrek boto bidez aukeratuko dute gustuko duten erakusleihoa. Botoa eman ahalko dute abenduaren 28ra arte *Kontzejupetik* aldizkarian jasoko duten txartelarekin.

Hermansoloñak batzarra egingo du hilaren 14an

M.B. | OÑATI

Hermansoloña gobernuz kanpoko erakundeak urteko batzar nagusia egingo du hilaren 14an kultura etxean, 19:00etan. Argentinako elkartasun taldeko bazkideak, adiskideak eta laguntzaileak gonbidatu dituzte batzarrera.

Zortzi gai landuko dituzte. Bilera hasiko dute aurreko batzarreko akta irakurri eta onartzen. Ondoren, 2010ean egindako jardueren txostena aurkeztuko dute, baita 2011rako jarduera-plana ere. Era berean, Argentinara egindako azken bidaiaren gaineko informazioa, zuzendaritza batzordeko kideak aldatzeko proposamena, txosten ekonomikoa eta bazkideekiko komunikazio -plana aurkeztu eta aztertuko dituzte. Batzarra galde-erreguen tartearekin bukatuko dute.

Bestalde, batzarrean esango dute Hermansoloña GKEko bazkideek 300 euro ordaindu beharko dituztela 2011n. Gainera, gogorarazi gura dute Euskadiko Kutxan kontu bat zabalik dutela ekarpenak egiteko. Interesatuek 30350005360051037392 kontuan egin dezakete diru-sarrera.

OHARRAK

ODOL-ATERATZEA

Hilaren 10ean egingo dute urteko azken odol-ateratzea Oñatin. 18:00etatik 20:00etara egongo dira medikuak eta erizainak Txantxiku ikastolako aretoan. 2011ko egutegia gertatzen dihardute eta laster bidaliko dute odol-emaileen etxeetara.

KINTADA

1965. urtean jaiotakoek kintada egingo dute, bost urteren ondoren, Etxe Aundi jatetxean. Hilaren 11n elkartuko dira, bazkaltzeko, 14:30ean. Interesatuek 30 euro sartu beharko dituzte 30350005360051043269 kontuan lehenbailehen. Informazio gehiagorako: 636 85 75 63 edo 689 23 11 93 telefonoak.

ANTZERKIA

Ikusi Makusi antzerki taldeak hilaren 10ean egingo duen emanaldirako sarrerak salgai jarriko dituzte bihar eta eguenean: Pake Leku elkartean erosi ahalko dira 18:30etik 20:00etara, lau eurotan.

ANTZERKIA

Zurrumurru antzerki taldeak *Bihotzez pailazoak* emanaldia egingo du domekan, 17:30ean Zuazola Institutuaren aretoan, Errekalde Herri Eskolako guraso elkarteak antolatuta. Sarrerak salgai daude 1,5 eurotan eskolan bertan eta 3 eurotan egunean bertan.

ARETXABALETA

Giza eskubideen aldeko ekitaldia egingo du Udalak Iturrizar plazan

Abenduaren 10ean izango da, Giza Eskubideen Aldeko Egunean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Azaroaren 29an egindako osoko bilkuran proposatu zuen Eusko Alkartasunak giza eskubideen aldeko ekitaldia egitea abenduaren 10ean –Giza Eskubideen Aldeko Nazioarteko Eguna– Deba ibaiaren beste aldean dagoen Iturrizar plazan jarritako oroigarriaren inguruan. Gainerako zinegotziak –EAJ-korik ez zen izan bilkuran– konforme agertu ziren, baina ekitaldian irakurriko duten manifestua aurretik landu eta adostea proposatu zuten.

Bedarretako San Migel auzoko etxebizitza blokeak. | M.A.

Igogailuak egiteko araudia

Bestalde, osoko bilkuran Kurtzebarri eskola handitzeko prozesua behin-behinean onartu zuten, alegaziorik ez delako egon; eta behin betiko Bedarretako San Migel auzunean dauden lau etxe bloketan igogailua jartzeko araudia. Azterketa egin du Udalak azken hilabeteotan igogailuendako irtenbiderik egokiena bilatzeko –igogailua barrutik eta eskailera kanpotik– eta jasota geratu da hori orain. Andramari auzuneko bizilagunek ere agertu dute interesa eta hori aztertzen dabiltza teknikariak. Konponbidea ez dela samurra Andramariko etxeetan adierazi du Hirigintza teknikariak, eta gaineratu du ahaleginduko direla egokiena topatzen.

Ume eta helduak dantzan, egueneko Udazkeneko Jaian. | ANA NOGUEIRAS

ARETXABALETA

Hotzari aurre eginda giro bikaina izan dute Kurtzebarri eskolako kideek Udazkeneko Jaian

M.A. | ARETXABALETA

Urtero egiten duten Udazkeneko Jaia berezia izan da aurten Kurtzebarri eskolako kideendako; izan ere, Karmele Igartua ikaskide eta lagun izandakoari omenalditxoa eginda hasi zuten eguenean. Aurreskua dantzatu zuten guraso batzuek haren argazkiaren aurrean, jaiari hasiera emateko.

San Simon eta San Juda abestiarekin jarraitu zuten gero, negua gainean den seinale; eta Irrintzi Lehiaketak ikasleen *lekaixorik* onenak elkartu zituen. Dantzek ere izan zuten lekua Iturrigorri pilotalekuan: lehenengo, txikienen erakustaldia izan zen; eta gero, guztiek elkarrekin, txiki eta heldu, egin zuten; eguen ilunkerako hotz giroari aurre egiteko aparteko ekitaldia. Eta barrua berotzeko ezin falta buzkantzak, gaztainak eta sagardoa.

ESKORIATZA

Sahararen aldeko mozio bi onartu ditu udalbatzak

M.A. | ESKORIATZA

Eskoriatzako udalbatzak Saharako egoera izan du gogoan egindako azken osoko bilkuran, azaroaren 24an, eta mozio bi onartu ditu: bata, Ezker Batuko zinegotziak aurkeztutakoa; eta bestea, Udal Gobernuak.

Ekitaldietan agertzeko deia

Mozio bien helburua da saharar herriak azken asteotan bizi duen egoera larriaren aurrean elkartasuna adieraztea eta giza eskubideen urraketak salatzea. Era berean, onartu dute sahararrei babesa emateko antolatzen diren ekimenetan parte hartzea. Gainera, mozio bietan eskatu dute Europako Batasunak Marokorekin dituen harremanak bertan behera uztea eta Marokori exijitzea nazioarteko legedia errespeta dezala.

Udal Gobernuak aurkeztutako mozioan jaso dute, gainera, Udalak Marokorekin dituen harremanak eten egingo dituela eta horren berri emango dietela herrian bizi diren marokoarrei.

Eusko Alkartasunak, Hamaikabat alderdiak eta EAJk bi mozioak onartu zituzten. Ezker Batuak eta Udal Gobernuak –Elizateak izan ezik– nork berearen alde egin zuen. Eta alderdi sozialistako zinegotzia eta Elizateetakoa abstenitu egin ziren bi bozketetan.

Udal langileen soldata, behera

Osoko bilkuran, gainera, udal langileen soldata izan zuten eztabaidatzeko. 8/2010 lege-dekretuaren ondorioz defizit publikoa murrizteko hartutako neurriak udal langileen soldatei aplikatuko dizkiete. Udal Gobernuko kideak dekretuaren aurka agertu ziren udal autonomia eta negoziazio kolektiboa zalantzan jartzen dituelako, baina, derrigorrez betebeharrekoa denez, betetzea proposatu zuten. Erabakiarekin ez ziren bat etorri gainerako alderdiak eta aurka bozkatu zuten Ezker Batuko, Hamaikabateko eta EAko zinegotziek. PSEko eta EAJko zinegotziak, ostera, abstenitu egin ziren.

ARETXABALETA

EGUZKI ALDE ELKARTEA

Arrese eta Etxebarria onenak

Mus txapelketa jokatu dute egunotan Eguzki Alde elkartean eta ez dutela aurkaririk erakutsi dute Felipe Arresek eta Adolfo Etxebarriak. Bigarren postuan geratu dira Xabi Astaburuaga eta Alberto Gutierrez. Bikote biak Eguzki Aldeko ordezkari izango dira Aretxabaletako elkarteen artean jokatzen duten txapelketan. Udaberri inguruan jokatuko dute hori, baina oraindik ez dauka data zehatzik.

ESKORIATZA

Udal hauteskundeetan bozkatzeko eskaera egin behar dute etorkinek

2011ko maiatzean egingo diren dira udal hauteskundeetan Espainiarekin akordioa sinatu duten herrietako etorkinek parte hartu ahal izango dute. Hona hemen hitzarmen hori sinatuta duten herrialdeak: Txile, Kolonbia, Ekuador, Norvegia, Zeelanda Berria, Paraguai eta Peru.

Herrialde horietako herritarrek hauteskundeetan parte hartzeko eskaera aurkeztu behar dute udaletxean. Eskaerak egiteko epea abenduaren 1ean zabaldu zuten eta 2011ko urtarrilaren 15ean bukatuko da. Interesa dutenek Eskoriatzako udaletxeko arreta zerbitzura jo dezatela.

Aitzorock jaialdirako sarrerak oraindik salgai daude

Abenduaren 11n egingo dute bigarren Aitzorock jaialdia Aitzorrotz kultura elkarteak antolatuta, Udalaren laguntzarekin. Punta-puntako musika taldeen kontzertua bizi izateko aukera izango da kiroldegian (20:30): Gatibu –disko berria aurkeztera etorriko da–; Zea Mays; Amaiur; eta Pastors of Muppets (Frantzia).

Sarrerak salgai daude; hona tokiak: Eskoriatzan: Aldatz, Inkernu eta Goxo Txiki. Aretxabaletan: Txiki bar eta Orly. Arrasaten: Irati eta Ekaitz. Bergaran: herriko taberna. Eta Oñatin: Aker.

Espetxe Pastoraltzak materiala jasoko du Martutenera eroateko

Eskoriatzak eta Aretxabaletak osatzen duten Leintz Pastoral Barrutiko espetxe taldeak materiala jasoko du Martuteneko kartzelara bidaltzeko. Hona behar dituztenak –dirurik ez–: barruko arropa berriak; galtzerdiak; txankletak; haginetako pasta eta eskuila; gorputzerako xaboia; paperezko mukizapiak; gosarirako ontzia (plastiko gogorra); turroi biguna; pilak; pinik gabeko Telefonicaren txartela; kartazalak eta seiluak.

Abenduaren 18a bitartean eroan behar dira horiek parrokietako sakristiara.

ARETXABALETA

Fandango eta arin-arin ikastaroa antolatu du Loramendi elkarteak

Fandango eta arin-arin eskolak izango dira abenduan Loramendiren eskutik. Hona egunak: 13, 15, 20 eta 22. Maialen Elortza aretxabaletarra izango da irakaslea eta udaletxe zaharrean izango dira eskolak (18:00-20:00). Izena emateko Loramendira jo; azken eguna: hilaren 10a. Bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 15.

Loramendik, bestalde, gertu dauka Aretxabaletako bigarren ibilbide historikoa. Egunotan jasoko dute liburuxka bazkideek etxean eta urtarril inguruan aurkeztuko dute.

Gabon aurreko emanaldiak dituzte musika eskolakoek

Leizarra musika eskolako ikasleak Gabon aurreko emanaldiak egiten dabiltza Arkupeko Zaraia aretoan. Dantza erakustaldiak egin dituzte egunotan, eta orain, musikari egingo diote tartea. Hilaren 14an f auta emanaldia izango da (18:30) eta hilaren 15ean, piano emanaldia (18:30).

Gabonetako kontzertua, ostera, abenduaren 21ean, martitzena, egingo dute. Bi saio izango dituzte: 18:30ean eta 19:30ean. Orduan hainbat musika tresnatako ikasleek egingo dute erakustaldia, baita bandak ere.

Begoña Ardantza, Pedro Mari Ubera, Jose Luis Larrañaga eta Sebas Arantzabal. | L.Z.

ANTZUOLA

Lau baserritarrek eta hamar herritarrek eman dute izena zuzeneko salerosketarako

Baserritarren batzordetik abiarazi zuten egitasmoa; asteon, eguenean, egingo dute salerosketa horiek antolatzeko lehenengo bilera

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Helburu argia du ekimenak: bertako produktuak baloratzea eta herriko baserrietako produkzioa bultzatzea. Baserritarren batzordetik abiatu zen ideia. Etxez etxe egindako kanpaina baten bitartez Elgetako baserrietan egindako produktuak zuzenean baserritarrei erosteko proposamena egin die Udalak herritarrei. "Oraingoz, lau dira euren ortuetako produktuak zuzenean etxeetara banatzeko gertu azaldu diren baserritarrak", adierazi du Patxi Montero teknikariak. "Baserritar horiek Sebas Arantzabal, Jose Luis Larrañaga, Jose Antonio Ojanguren eta Pedro Mari Ubera dira. Erosle potentzialak, berriz, dozena bat dira uneotan". Dena den, egitasmo irekia dela gogorarazi du Monterok, eta, interesa duen beste edonork informazioa behar izanez gero, udaletxera jo besterik ez duela esan du. "Hau hasiera bat besterik ez da. Ikusi egin beharko dugu proiektuak etorkizunean zer emango duen".

Udala, oraingoz, zubi lanak egiteko prest azaldu da; baserritarrak herrian egon daitezkeen erosle potentzialekin harremanetan jarriko ditu, alegia. "Gero, baserritarraren eta eroslearen arteko harremana euren arteko kontua izango da", azaldu du Monterok. Udal teknikariak azaldu du proposamena herriko jatetxeei ere egin dietela, baina ez dutela, oraingoz, erantzunik jaso.

Berehala martxan

"Berehala astea da gure asmoa", adierazi du Monterok. "Datorren astean bilera egingo dugu gauzak antolatzen hasteko eta hamar herritar horiek lau baserritarrekin harremanetan jartzeko".

Beste zenbait ortuzainek herriko dendetara eramaten dute etxean egindako jeneroa. Begoña Ardantzaren kasua da. "Niri orain arte moduan jarraitzea gustatuko litzaidake", adierazi du.

Salmenta mota horrekin lotuta proposamen bat aztertuko dute hurrengo baserritarren batzordean. "Pentsatzen dugu bertako produktuak nabarmendu egin beharko liratekeela dendetan", adierazi du Monterok. "Gainerakoengandik nolabait desberdindu". Urtean behin, irailean, egiten den baserritarren azoka gehiagotan egitea ere batzordean mahai gainean duten beste proposamen bat da. "Azoka egun polita izaten da, ikusi egin beharko da gehiagotan egitea komeni den eta zein maiztasunarekin".

ANTZUOLA

Udal zergak ikuskatzeko laguntza kontratatuko du udalbatzak

Aldeko bederatzi boto izan zituen proposamenak, eta bi aurkako: Zutik-Aralar-EB

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA

Udalbatzak onartu egin du zergak ikuskatzen lagunduko dion zerbitzua kontratatzea. Horretarako, 58.000 euroko diru partida onartu du udalbatzak. Prezio hori egingo diren ikuskapenen eta horietatik aterako diren emaitzen araberakoa izango da. Eguazteneko osoko bilkuran onartu zuten esleipena egiteko jardunbideari hasierako onespena ematea, aldeko bederatzi botorekin. Zutik-Aralar-Ezker Batua udal taldeko bi zinegotziak abstenitu egin ziren.

Herriko enpresak

"Fiskalizazioak ondo ematen diren edo ez ikustea da helburua", azaldu zuen alkateak. Horretarako, herriko enpresa nagusiak aztertuko dituzte. Jose Mari Iturbe zinegotziak galdetu zuen ea Udalak ez duen zergak ikuskatzeko baliabiderik. "Zuzenean kanpoko enpresa bat sartzea ez zait egokia iruditzen", gaineratu zuen. Alkateak erantzun zion beste herri batzuetan ere horrelako jarraipenak egiten direla kanpoko enpresak kontratatuz; eta, kasu askotan, konturatu direla Udala ez dela guztia kobratzera iritsi. Hau da, fiskalizazioa ez dela ondo eman.

Enpresei jarraipena egiteak izan dezakeen eraginaren gainean, alkateak esan zuen batak ez duela bestea baldintzatu behar. "Udalak berari dagokiona eskatuko du", gaineratu zuen, gauzak ondo egiteko abiapuntua izango delakoan.

ARAMAIO

Agenda 21eko bilera deitu dute herritarrekin abenduaren 15erako

Diagnosiaren ondoren, datozen zortzi urteei begira Ekintza Plana lantzea da helburua

EDU MENDIBIL | ARAMAIO

Agenda 21eko batzarra izango da datorren eguaztenean, abenduaren 15ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 18:30ean. Datozen zortzi urteei begira Ekintza Plana lantzen hastea da asmoa eta datorren asteko batzarrean herritarren hitza entzun nahi da, ekintzen lehentasunak markatzeko eta ekintza berriak proposatzeko.

Hain zuzen, urtebetez diagnostiko fasean egon eta gero, antzemandako gabezietan oinarritutako ekintzak zehaztea da hurrengo urratsa. Orain arte, besteak beste, Udaleko batzordeen, auzo alkateen eta udal teknikarien proposamenak jaso dituzte, eta, esan bezala, herritarren iritzia kontuan izatea da helburua. Behin ekintzak zehaztu eta gero, udalbatzak aztertu egingo ditu osoko bilkuran. Udaletxean bertan orain arte landutako dokumentuak ikusgai izango dira eta, era berean, informazioa *www.aramaio.org* helbidean jarriko dute eskuragarri. Udalak dei egiten die herritarrei abenduaren 15eko bileran parte hartzeko.

Herri afaria zapatuan

Bestalde, zapatuan, hilaren 11n, Aramaioko Bertso Eskolaren 13. urteurrena ospatzeko afaria izango da Iturrieta sagardotegian. Txartelak 20 eurotan daude salgai Añai eta Eki tabernetan.

Aramaioko irudi bat. | GOIENA

LEINTZ GATZAGA

Gabonetarako apainduko du herria Gurelek

Euskal pertsonaiak jarriko dituzte han eta hemen: Olentzero, Anbotoko Mari, Tartalo...

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Abendua ekitaldiz gainezka hasi dute Gurel guraso elkarteko kideek. Joan den egubakoitzean, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu zuten ume eta helduek, herriko euskaltzale guztiekin batera. Ludotekan egindako pankartaren atzean jarri eta argazkia atera zuten lehenengo, eta ondoren, txokolate beroa hartzera joan ziren elkartera. Herriko umeek bertsoak banatu zituzten orduan helduen artean eta elkarrekin abestu zuten euskararen alde.

Euskal kutsuko apaingarriak

Eta ekitaldiak hasi bakarrik ez dira egin; izan ere, datozen egunotan Gabonetarako apaintze lanetan hasiko dira. Abenduaren 11rako ekitaldiren bat antolatu gura dute, baina orain-dik ez dute zehaztuta zer. Eta 12an, domeka, herria apainduko dute. Euskal giroko Gabonak izango dira protagonista aurten eta euskal sukaldea, Olentzeroren baserriko sukaldea hain zuzen, prestatuko dute. Hori bai, Gabon eguna arte ez dela inor egongo sukalde horretan iragarri dute eta Gabon egunean, abestu ondoren, Olentzero bera etorriko dela sukaldera umeen gutunak jasotzera.

Gainera, herri guztia euskal mitologiako pertsonaiekin apaindu gura dute: Anbotoko Mari; Maritxu Teilatuko; euskal sorgina; Tartalo; Basajaun... Pertsonaia bakoitzaren aldamenean azalpen txiki bat jarriko dute, eta lehiaketa egin gero: "Galderak zuzen erantzundakoen artean zozketa egingo dugu Gabon egunean", argitu dute.

Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

AKUPUNTURA

INTEGU
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Oñati / Atzeko kalea 6 behea / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA
(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

AREDHANA YOGA ETA GESTALT

PSIKOTERAPIA ZENTROA
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

KIROLA

ATLETISMOA

Jose Ramon Petreñas eta Jon Ormaetxea
| Gipuzkoako federazioko atletismo epaileak

Ormaetxea: "Carl Lewis haserretu egin zen nirekin; irteera nulua egin zuen"

- Arrasateko bi lagun horiek 28 urte bete dituzte epaile lanetan
- Erretiroa hartzeko asmo barik, erreleboa behar dela onartzen dute
- Epaile beharra ikusita, klubean ikastaroa prestatu dute

Jon Ormaetxea, ezkerrean, eta Jose Ramon Petreñas, eskuman, Mojategiko atletismo pistetan zapatu goizean; oraingo asteburua

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Jose Ramon Petreñasek (Sestao, 1936) eta Jon Ormaetxeak (Arrasate, 1956) 25 urteko lanagatik urrezko ezkurra jaso zuten azaro hasieran, Gipuzkoako Federazioaren eskutik. Arrasateko bi epaile horiek, baina, 28 urte daramatzate kronometroa eskuan, bateko eta besteko atletismo hitzorduetan epaile lanak egiten. Kirol horren gainean, eta epaile izateko Mojategin antolatu duten ikastaroaren gainean egin dugu berba eurekin.

Zelan hasi zineten epaile lanetan?

Jose Ramon Petreñas: 80ko hamarkadan hasi ginen, nire kasuan semea atletismoan zebilelako, eta klubetik gurasoei deialdia egin zigutelako. Epaileak behar ziren orduan ere, eta halaxe hasi nintzen atletismoko epaile moduan. Kuriosoa da, gaur egun ere behar berdinak ditugu.

Jon Ormaetxea: Ni gaztetan atletismoan ibili nintzen, eta ondoren eskubaloian jokatzen hasi nintzen. Konturatu ordurako, baina, atletismoko klubean nintzen berriro ere, laguntzen. Eta, epaile izateko ikastaroa antolatu zutenean, Jose Ramonen moduan, neu ere animatu egin nintzen.

Urte hauetan guztietan, zertan aldatu da atletismoa?

Jon Ormaetxea: Aldaketa handiak izan dira. Batetik, gaur egungo atletismo pistak tartanezkoak dira, eta lehengoetan errautsa botatzen zuten pistara. Gipuzkoako pistetan, esaterako, Pasaiako zentral termikoko errautsa erabiltzen zen.

Horrekin batera, atletak teknikoki askoz ere hobeak dira; lehen korrika gaizki eginez gero zaila zen horretaz ohartzea, orain, ordea, bideoari esker erraza da egiten diren akatsez jabetzea. Atletak askoz ere hobeto prestatzen dira, entrenamenduak, elikadura... eta noski, teknologiak ere izugarri egin du aurrera.

Epailearen lana ere dezente aldatuko zen, bada.

Jose Ramon Petreñas: Asko aldatu da, bai. Pentsa, lehen krosetan helmugan kronometroa zuen epailearen atzean jartzen zen bigarren epaile bat, eta atletek helmuga zeharkatzen zuten neurrian, laguntzaileak kronometroa zuenari helmugaratzeak adierazten zizkion, ahoz. Bitartean, beste epailea kronometroaz klik eta klik ibiltzen zen.

Jon Ormaetxea: Eta pistako lasterketetan, berriz, kale bakoitzak epaile bana izaten zuen, denbora hartzen. Gaur egun, kronometro digitalekin erabat aldatu da hori, momentuan inprimatzen ditugulako emaitzak; eta txipekin egiten diren lasterketek beste aurrerapauso bat egin dute.

> **"Semea atletismo taldean zegoen, eta epaileak behar zituzten"**

> **"Atletismoa asko aldatu da: teknika berriak, teknologia, elikadura..."**

Teknologia horrek guztiak garrantzia kendu dio epailearen lanari?

Jon Ormaetxea: Baliteke, lana asko erraztu digutelako. Atletismoak, baina, betidanik izan du gauza bat ona. Alegia, lasterketa edo proba baten ostean erakutsi bada emaitza ez dela zuzena, akatsen bat egon dela edo erreklamazioren bat, posible da emaitza bertan behera uztea, proba balio gabe uztea. Eta hori, esaterako, futbolean ez da gertatzen; epaileak penaltia adierazi badu penaltia da, nahiz eta hanka sartu.

Noski, erreklamazio horien aurrean oraindik epaileok zeresan handia dugu, teknologiak lagundu egiten duelako, baina erabakiak guk hartzen ditugulako.

Atletismoan modalitate mordoa daude. Eta guztietan ez da erraza izango epaile izatea.

Jose Ramon Petreñas: Niretako, duda barik, martxako lasterketak dira epaitzeko zailenak. Eta horregatik inoiz ez naiz horretara animatu [Barre]. Sekula ere ez naiz horrelako proba batean epaile lanetan ibili. Gainera, martxako epaileek aparteko ikastaroak egin izan dituzte, espezializatzeko.

Eta, modalitate politena?

Jose Ramon Petreñas: Krosa, duda barik. Eta, epaileendako ez da batere erosoa izaten: neguan izaten da, hotz egiten du, askotan euria, lokatz artean ibiltzen gara... Baina, duda barik krosak dira politenak.

DATUA

45

EPAILE GIPUZKOAN

Gipuzkoan 45 epaile ditu federazioak lanean.

FUTBOLA | Bergarak eta Aloñak puntuak banatu zituzten Agorrosinen (0-0) | 24

an atseden izan dute, baina kros denboraldiarekin hasiko dira buru-belarri, segituan. | XABIER URTZELAI

Epaile izateko ikastaroa hilaren 11n

Debagoienean atletismoko sei epaile ditugu, horietako bost Arrasaten: Jon Ormaetxea, Jose Ramon Petreñas, Julian Gallo, Julio Dominguez eta Jesus Soto. Eta, Jaime Gartzia bergararra da. Gipuzkoan, berez, 120 epaile daude, baina 45 lagun baino ez dira ibiltzen aurrera eta atzera, epaile lanetan.

Hori ikusita, Arrasate Atletiko Kanpantzar taldekoek abian jarri dute epaile izateko ikastaroa. Abenduaren 11n hasiko dute: "Harrera ona izan du, dagoeneko 20 laguneko koadrilatxoa animatu da-eta". Ikastaroan parte hartzeko ez da ezer ordaindu behar, eta 9 orduko ikastaroa izango da, hiru saiotan banatuta.

Ikastaroan, besteak beste, kronometro ezberdinak zelan erabiltzen diren irakatsiko dute, kronometro zaharretatik hasita. Eta hor, Arrasateko klubak badu altxor txiki bat, 28 urte dituzten *Juvetud Deportiva Mondragon* taldeko

Klubeko kronometro klasikoak. | X.U.

"Krosak politak, baina lanerako gogorrenak dira: euria, lokatza..."

"Ikustekoa izaten zen Sergei Bubka zelan egiten zuen pertikarekin salto"

Jon Ormaetxea: Nik ere krosa esango nuke, duda barik.

Hogeita zortzi urtetan ehunka anekdota pilatuko zenituzten.

Jon Ormaetxea: Anekdota mordoa ditugu kontatzeko, bai. Orain dela 23 urte Carl Lewis Anoetako belodromora etorri zen, Unipublic etxeak antolatu zuen lasterketa batera. Orduan Carl Lewisen urte onenak ziren, izarra zen, eta ni nengoen irteerako epaile moduan.

Hala, lasterketa hasieran Carl Lewisek balio ez zuen irteera egin zuen, irteera nulua adierazi nuen. Berak ez zuen onartzen, eta nik baietz esaten nion. Eta telebista irudiak daude biok eztabaidan, burua mugitzen: berak niri ezetz, eta nik hari baietz. Kasualitatez, etxean grabatu egin zituzten telebistako irudi haiek, eta bai, arrazoi nuen, irteera nulua egin zuen. Gainera, Simon izeneko kubatar batek irabazi egin zion lasterketan.

Jose Ramon, eta maniarik?

Jose Ramon Petreñas: Beti izaten dugu maniaren bat edo beste. Hasteko, beti izaten ditugu proba gustukoagoak, eta horrenbeste atsegin ez ditugunak. Horrekin batera, aurreko gauean lasterketarako material guztia prest izatea gustatzen zait, baina inoiz izan dugu arazoren bat edo beste. Santamasetako lasterketa batean, esaterako, ez nituen hartu pistolako kartutxoak –Irteera adierazteko– eta etxera etorri behar izan ginen korrika. Beste inoiz ere gertatu izan zait hori, eta txistua erabili behar...

Zeintzuk dira gustukoen dituzuen lasterketak?

Jose Ramon Petreñas:. Niri Lasarteko krosa izugarri gustatzen zait. Igual ez da lasterkari onenak batzen dituen proba, baina giro berezia egoten da han.

Jon Ormaetxea: Korrikalari hobeak Elgoibarren batzen dira, Mugertza krosean, baina Lasarte berezia da, bai. Krosak alde batera utzita, Azpeitian Diego Gartziaren omenez egiten den maratoi erdia ere oso lasterketa ikusgarria da.

Ze atletak utzi zaituzte txundituta?

Jose Ramon Petreñas: Sergei Bubka ikusgarria zen, pertika jauzian sekulako erraztasuna zuen.

Jon Ormaetxea: Atleta on asko egon dira. Hesien lasterketan Javier Moracho madrildarra oso ona iruditzen zitzaidan, zelako erraz gainditzen zituen hesiak. Eta, modalitate berean Edwin Moses ikaragarria izan zen. Zortzi errekor jarraian izan zituen atleta horrek. Eta gaur egunera etorrita, Usain Bolt badirudi extralurtarra dela.

"Arrasatekoon gaua izan zen"

Gipuzkoako Atletismo Federazioak urteroko gala ospatu zuen azaroan, eta zalantza barik Arrasateko ordezkariak izan ziren protagonista, "Arrasatekoon gauza izan zen", Petreñasek adierazi moduan. "Guk bagenekien federazioaren errekonozimendua jaso behar genuela, alde horretatik ez zen sorpresa izan. Gure atletek ere saria jaso zuten, baina gaueko sorpresa handia Fernando Zufiriak jasotako saria izan zen. Uste dut Gipuzkoan gutxik merezi dutela sari hori Fernandok baino gehiago", adierazi du Ormaetxeak. "Arrasateko taldeak aurrera egin dezan norbaitek tira egin badu, hori *Txufi* izan da. Pentsa, ni orain dela 40 urte hasi nintzen Arrasateko atletismo taldean, eta ordurako Zufiria entrenatzaile lanetan zebilen". Zufiriarekin batera sortu zuten taldea Jose Luis Unzuetak, Luis Morak eta Joxe Inazio Elortzak: "Eurak izan ziren klub honen sortzaileak".

Federazioko sari banaketan, Arrasatekoak. |ARRASATE KANPANZAR

FUTBOLA

Tenperatura hotzean, Bergara eta Aloña Mendiren arteko derbia, hutsean

- Bi entrenatzaileek ontzat eman zuten berdinketa; zaleen berotasuna faltan bota zen Agorrosinen
- Gol aukerarik garbiena Bergarak izan zuen, baina oñatiarrek ere izan zuten garaipena eskura

Markel Iltzarbe bergararra baloiaz, hegaletik egindako jokaldian, Aloñako kontrarioak zain dituel

EMAITZA

BERGARA
0-0
ALOÑA MENDI

EDU MENDIBIL | BERGARA

Tenperatura 0 graduren bueltan izan dugu asteburuan eta husnako emaitzarekin amaitu zen zapatuko derbia, Aloñak eta Bergarak ikusle gutxiren aurrean jokatutakoa. Atzean geratu dira garai bateko derbiak, herri bateko zein besteko zale ugari batzen zituztenak. Krisia erregional mailako futbol zelaietara ere iritsi da, nonbait. Zapatuan Agorrosinera hurbildutakoek ez zuten ezta golen arrimuan berotzeko aukerarik izan. Partiduak hotz utzi zituen talde bietako zaleak. Baina hotza ez zen izan partiduko protagonista bakarra. Berdegunea bigunegi, eta lokatza astunegi zegoen futbolean jokatzeko eta nahikoa lan zeukaten jokalariek korrika egitearekin bakarrik. Gauzak horrela, baloia ondo bideratzea artisten kontua zen. Auzi horretan Ilzarbek erakutsi zuen trebeziarik handiena; bolada onean da Bergarako erdilaria.

Bi entrenatzaileak bat etorri ziren partiduaren amaieran baloraziоa egiteko orduan. Oskar Maiztegi mahoneroen entrenatzaileak eta Aloñako Pablo Diezek ontzat eman zuten berdinketa: 0-0. Derbietan maizegi errepikatzen den emaitza. Joko oneko partiduak ere ez dira izaten. Horixe bera gertatu zen zapatuan.

Bergarak hasiera ona eman zion partiduari. Hasierako minutuetan bi gol aukera izan zituen etxeko taldeak: Arazkonagak gogor astindutako falta bat ukabilez urrundu zuen Mikel atezainak eta Ilzarberen errematea gutxigatik joan zen kanpora, ezkerreko postearen ondotik. Lehenbiziko zatian Palaciosen hanketan izan zuen Aloñak gol aukera ona, 25. minutuan, baina Oñatiko erdilariak gehiegi gurutzatu zuen baloia.

Joko biziagoa bigarren zatian

Atsedenaldiaren ondoren, jokoa zertxobait biziagoa izan zen. Bazirudien azkenik berotzen hasiak zirela jokalariak. Jokoa biziagoa zen; horren lekuko, Navasek 6. minutuan area marraren ingurutik egindako txilena; dotorea baina emaitzarik gabe. Edozein modutan, zaleen eskuak berotzeko aitzakia: txaloak.

Aloña ez zen atzean geratzen eta Roberto Idigoras kapitainak bi gol aukera izan zituen jarraian: lehenbizikoan, ezkerraldetik barneraldia egin zuen, Bergarako bi defentsa atzean utzita baina haren erdiraketa Lopez atezainak harrapatu zuen. Handik hiru minutura, area txikian jaso zuen baloia Idigorasek baina berriro ere Lopez atezainarekin egin zuen topo.

Gol aukera aparta Bergarak

Bergarak izan zuen partiduko gol aukerarik onena, 64. minutuan. Eloy Crespok eskumaldetik barneraldia egin eta bakar-bakarrik, atzetik zetorren Macho aurrelariari eman zion baloia, baina Macho ez zen gutxigatik iritsi. Machoren alboan korrika etorritako Ilzarbek jaso zuen baloia, oso behartuta baina, eta haren errematek postean jo zuen. Partiduko jokaldirik onenetakoa izan zen, saririk gabekoa ordea. Etxekoen azken aukera Martin Ibañezek izan zuen, 75. minutuan. Area barruan kontrol polita egin zuen, tartean Macho taldekidea jarri zitzaion eta bien artean zapuztu zuten aukera. Errematatu zuenerako gainean zuen Mikel atezaina.

Partidua hasierako emaitzarekin bukatzear zihoanean, Aloñak beste abagune bat izan zuen, Idigoras kapitainaren ordez zelairatutako Iñigo Agirreren bitartez. Oñatiko aurrelariak area txikian jaso zuen baloia eta haren errematea gutxigatik joan zen kanpora. Gehiegizko saria izango zen oñatiarrentzat.

Esandakoa: joko gutxi eta golik ez. Gauzarik onenak Ilzarbek egin zituen zapatuan. Bi hankekin primeran moldatzen da bergararra; driblina dauka eta luze jokatzeko ere gauza da. Alboan dituen jokalariak ahaztu gabe, bera dugu taldea gidatzen duena, eta arrisku gehien sortzen duena, ezkerraldetik nagusiki. 20 urterekin, taldeko *beteranoetako* bat dugu honez gero eta mahoneroendako seinale ona litzateke bolada onari eusten badio. Gaur egungo futbolean jokalarien zenbakiekin; bingoan bezain aukera zabala dago. Hala ere, Ilzarberen kasuan bezala, justifikatuta dago zenbait jokalarik 10a eramatea bizkarrean.

Aloña, zulotik atera nahian

Amaieran, esan bezala, bi entrenatzaileak konforme berdinketarekin. Bergara sailkapenaren erdialdean dago, 18 punturekin, eta Aloñak zuloan jarraitzen du, 12rekin. Edozelan ere, arnas pixka bat hartuko zuten oñatiarrek derbiaren ostean. Gol gehien jaso duten taldeen artean dago Aloña eta gutxienik atea hutsean mantendu zuten Agorrosinen. Pablo Diezek adierazi bezala aste zaila izan dute Oiartzunen aurkako porrotaren ondoren. Taldearen konfiantza indartzeko sikiera baliagarria izan zen derbia. Zaleek, berriz, nahiago izango dute ikuskizun politagoa hurrengo baterako. Eta golen arrimuan berotzen badira, hobe. Hurrengo astean Bergarak Hondarribian jokatuko du eta Aloñak Tolosa hartuko du etxean. Ea talde biek... eta tenperaturak gora egiten duten.

FITXA TEKNIKOA

Bergara: Lopez, Elorriaga (Longares, 66. min.), Nafarrate, Arazkonaga, Arruti, Agirre, Iñurrieta, Crespo (Azpiazu, 65. min.), Ilzarbe, Macho (Juaristi, 86. min) eta Navas (Ibañez, 60. min.).

Aloña: Mikel, Endika, Olalde, Iker Agirre, Mendoza, Bernal (Xabi Agirre, 83. min.), Zubia, Juaristi (Unai Arregi, 76. min.), Jon Igartua, Palacios eta Idigoras (Iñigo Arregi, 70. min.).

Epailea: Antoñana, Taberna eta Machin marrazainen laguntzaz. Arazorik gabeko partidua. Ilzarbek ikusi zuen txartel hori bakarra.

Bestelakoak: Jende gutxi Agorrosinen. Hotza izan arren (5 gradu inguru) talde bietako jokalariak, atezainak barne, manga motzeko kamisetekin aritu ziren.

FUTBOLA

Ibarrako hiru puntuak, Real Unionendako izan ziren

Aretxabaletak 0-2 galdu zuen domeka arratsaldean Real Unioneko talde filialaren aurka

E.M. | ARRASATE

Atzo galtzea egokitu zitzaion UDAri. Aretxabaletarrek lau partidu irabazi dituzte orain arte eta atzokoa laugarren porrota izan zen. Gainerako bost partiduak berdindu egin ditu UDAk. *Oreka* horren adierazgarri, sailkapeneko erdi-erdian dira, 9. tokian, 17 punturekin. Ez zuen partidu onik egin atzo UDAk. Irundarrek 10. minutuan egin zuten lehen gola, aldaratze bat aprobetxatuta. Gol ikusgarria izan zen. Etxekoek saiakerak egin zituzten berdinketa lortzeko, baina bigarren zatiaren hasieran bisitariek bigarren gola egin eta hortxe amaitu zen partidua.

Bi baja derbirako

UDAk gainera, Aritz Igartua galdu zuen derbirako. Bi txartel hori ikusi ondoren, erdilariak ezin izango du Mojategin jokatu. Era berean, Andoni Pastrianek ere ez zuen partidua bukatzerik izan orkatilan jasandako kolpe batengatik. Zalantza izango da Mondraren aurka.

Atzoko partiduko irudi bat. Merezita irabazi zuen Real Unionek. | JULIO CALLEJA

a. | JULIO CALLEJA

FUTBOLA

Mondra eta Arizmendi, igoera faserako sailkatuta dagoeneko

Zapatu eguerdian biek ere irabazi egin zituzten etxeko partiduak

E.M. | ARRASATE

Arizmendi eta Mondra emakumezkoen taldeek aurrera atera zituzten zapatuan, etxean, jokatutako partiduak. Arizmendik Lagun Onak taldearen bisita izan zuen Almenen eta Aritz Elortzaren taldeak 3-1 irabazi zien azpeitiarrei. Bigarren zatian etorri ziren partiduko gol guztiak: Amaia Del Campok aurreratu zuen etxeko taldea eta berdinketaren ostean. Maialen Zabaletak eta Susana Santorren sartu zituzten garaipenaren golak. Hurrengo astean, Arizmendik Amaikak Bat taldearen aurka jokatuko du eta puntu b bat nahikoa dute igoera faserako sailkatzeko.

Mondra ere igoera fasean izango da. Zapatu eguerdian erraz irabazi zioten Mutrikuri, 4-1. Maitane Roak *hat-trick*a egin zuen eta beste gola Ane Berazarena izan zen. Sailkapeneko bigarren postuan da Mondra eta ikusitakoa ikusita, igoera fasean kontuan hartzeko moduko taldea izango da.

Roak egindako hiru goletako lehena, jokaldi honetan egin zuen. | J. CALLEJA

Ane Gartzia Arizmendiko kapitaina baloia babesten, Lagun Onak taldeko jokalari baten aurrean. | JULIO CALLEJA

OSKAR MAIZTEGI
BERGARAKO ENTRENATZAILEA

"Zelaiaren egoerak baldintzatu du nolabait partidua... Dena dela, biok ere aukerak izan ditugu gola sartzeko, baina berdinketa justua dela esango nuke. Indarreko partidua izan da. Ea poliki-poliki goraka egiten jarraitzen dugun".

PABLO DIEZ
ALOÑAKO ENTRENATZAILEA

"Derbi tipikoa izan da. Ondo ezagutzen dugu elkar eta guretako garrantzitsua zen ez galtzea gaur. Emaitza justua dela uste dut. Aste zaila izan da guretako Oiartzunen aurka 1-4 galdu eta gero; oso pozik nago jokalarien jarrerarekin".

FUTBOLA

Mondrak Tolosaren aurka galdu zuen zapatuan Berazubin, 2-1

E.M. | BERGARA

Punturen bat eskuratzeko aukera ona galdu zuen Mondrak zapatuan, Tolosan. Iban Rodriguezen taldea 0-1 aurratu zen markagailuan, 16. minutuan, Lander Andresek sartutako golari esker baina atsedenaldira iritsi baino lehenagoa banako berdinketa lortu zuten etxekoek, falta jaurtiketa baten bitartez. Bigarren zatian etorri zen etxekoen garaipenaren gola, 65. minutuan, kontraeraso baten ondorioz. Azkenean, esan bezala, esku hutsik etorri ziren arrasatearrak Berazubi futbol zelaitik.

Derbia hurrengo astean

Mondra sailkapeneko 8. tokian dago orain, 18 punturekin, eta hurrengo astean Aretxabaletaren aurkako derbia izango dute Mojategin.

FUTBOLA

UDAk Arenasen aurka 1-0 galdu, gazte maila nazionalean

Gazte mailako Aretxabaleta futbol taldeak 1-0 galdu zuen zapatu eguerdian Arenas liderraren aurka, Gobelas futbol zelaian jokatutako partiduan. Aretxabaletarrak sailkapeneko azken aurreko tokian dira, 9 punturekin. Lehen itzulia amaitzeko bi partidu besterik ez zaizkie geratzen eta hurrengo jardunaldian Aretxabaletak Athletic taldea hartuko du, Ibarran.

FUTBOLA

Bergarako gazteek 8-1 galdu zuten zapatuan, Gasteizen

Partidurik irabazi barik jarraitzen du Bergarako Euskal Ligako futbol taldeak. Zapatuan, 8-1 galdu zuten mahoneroek Gasteizen, Aurrera Vitoriaren aurka. Euskal Ligan 16 talde dira lehian eta Bergara sailkapeneko azken tokian dago, 3 punturekin. Bergarak Antiguoko liderra hartuko du hurrengo astean. Partidu bakarra galdu dute donostiarrek 16 jardunalditan.

FUTBOLA

Lehen erregional mailan, Bergarak irabazi eta UDAk galdu

Lehen erregional mailan, Bergarak 0-5 irabazi zion zapatuan Eibarko Urkiri. Zortzi talde daude multzo berean eta bergararrak hirugarren tokian daude, Soraluze eta Eibartarrak taldeen atzetik. Aretxabaletak, hain zuzen, Eibartarrak taldearen aurka galdu zuen zapatuan, 2-1. Seigarren tokian dira aretxabaletarrak, hiru partidu irabazi, bi berdindu eta zazpi galduta.

ESKUBALOIA

Lehen Territorialeko mutilek ezin izan zuten elgoibartarren kontraerasoekin

Arrasatearrek ez zuten asmatu eta etxean jokatutako partidua galdu zuten

EMAITZA

ARRASATE

30-48

ELGOIBAR

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Zapatu arratsaldean, elgoibartarren kontra Iturripen jokatutako partiduan ez zen batere ondo ibili eskubaloiko Lehen Territorialeko taldea. Elgoibar sailkapenean goian dagoen taldea dela agerian geratu zen eta arrasatearrek gutxi egin ahal izan zuten garaipena eskuratzeko.

Elgoibartarren kontra jokatu zuten arrasatearrek zapatuan. | JULIO CALLEJA

Norgehiagoka hasi bezain pronto erakutsi zuen Elgoibarrek bere nagusitasuna, eta kontraerasoan aldea ateratzen hasi zen, etxekoek defentsan egin zituzten akatsei esker. Erasoan ere ez ziren ondo ibili Migel Angel Salterainen mutilak, eta horri esker, atsedenaldira 11 goleko aldearekin iritsi ziren kanpotarrak (15-26).

Bigarren zatian gauzak ez ziren larregi aldatu. Elgoibartarrak ederto ibili ziren kontraerasoan, eta golak bata bestearen atzetik sartu zituzten. Azkenean, 30-48 emaitzarekin bukatu zen lehia. Esan beharra dago, dena dela, erasoan ondo baina defentsan ez zirela oso fin ibili aurkariak; 30 gol sartu zizkie ten-eta Arrasateko mutilek.

Ford Mugarri liderraren kontra

Bestalde, asteon atseden izan ostean, datorren astean partiduak itzuliko dira Euskadiko txapelketara. Sailkapenean bigarren dagoen Ford Mugarrik norgehiagoka garrantzitsua jokatuko du liderraren kontra, kanpoan. Soraluzek, berriz, Romo Indupime hartuko du etxean.

ESKUBALOIA

Parapente eta hegaldi librearen gaineko hitzaldi-ikastaroa

IRATI GOITIA | ARRASATE

Debagoieneko Amillena Aire Kirola taldeak parapente eta hegaldi librearen gaineko hitzaldia egingo du Oñatiko kultura etxean hilaren 11n, 10:30ean.

Irekia eta doakoa

Parte-hartzea irekia da; bai berriendako eta baita esperientziadunendako ere.

Horrela, bi dira Amillena Aire Taldeak dituen helburuak: pilotu berriei formazioa ematea eta dagoeneko pilotu direnen maila hobetzea.

Landuko diren gaiak ere bi izango dira: alde batetik, hegaldi librean GPSa erabiltzen erakutsiko dute; eta, beste alde batetik, Kurtzebarri-Aloña-Aizkorri ibilbidea parapentean nola egin azalduko dute. Hitzaldia bukatu ondoren, ikasitakoa abian jartzeko parapentean ibiltzera joango dira, eguraldi ona eginez gero.

Parapentetik Urkulu. | AMILLENA

PILOTA

Soraluzeko trofeoko lehen jardunaldian bi bergararrek galdu

Zapatuan hasi ziren jokatzen Soraluzeko Lau t´erdiko saria eta bederatzi partidu jokatu dira asteburuan; tartean, Iñarra eta Perez bergararrek jokatutakoak. Bietan aurkariak gogorragoak izan dira.

ERRUGBIA

Errugbi Eskolak gazteak erakarri nahi ditu kirol hori egitera

Arrasate Errugbi Taldeak ibarreko gazteak animatu nahi ditu errugbian jokatzera, eta, horrela, kirol hau gertutik ezagutzeko Errugbi Eskola jarri du abian. Hitzordua domekero da Mojategin.

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

EMAITZAK

Berio-Roteta	---
Zumaiako-Trintxerpe	0-2
Oiartzun-Hondarribia	5-1
Bergara-Aloña Mendi	0-0
Tolosa-Mondra	2-1
Aretxabaleta-Real Union	0-2
Idiazabal-Anaitasuna	0-1
Pasajes-Ondarroako Aurrera	5-0
Hernani-Ordizia	4-0

SAILKAPENA

	TALDEA	P	J
1	Pasaia	31	13
2	Hernani	31	13
3	Anaitasuna	28	13
4	Oiartzun	24	13
5	Real Union	22	13
6	Aurrera	20	13
7	Trintxerpe	19	13
8	Mondra	18	13
9	Aretxabaleta	17	13
10	Bergara	16	13
11	Tolosa	16	13
12	Hondarribia	15	13
13	Berio	14	13
14	Idiazabal	13	13
15	Aloña Mendi	12	13
16	Ordizia	12	13
17	Roteta	8	13
18	Zumaiako	8	13

HURRENGO JARDUNALDIA

Roteta-Zumaiako
Trintxerpe-Oiartzun
Hondarribia-Bergara
Aloña Mendi-Tolosa
Mondra-Aretxabaleta
Real Union-Idiazabal
Anaitasuna-Pasaia
Ondarroako Aurrera-Hernani
Ordizia-Berio

1. ERREGIONALA

Urki-Bergara B	0-5
Eibartarrak-Aretxabaleta C	2-1

OHOREZKO GAZTEAK

Mondra-Amaikak Bat	5-2
Aloña Mendi-Ostadar	3-1

OHOREZKO KADETEAK

Astigarragako Mundar.-Bergara	1-1

KADETEEN LEHENENGO MAILA

Bergara (atsedena)	
Aloña Mendi-Arizmendi UDA	7-0
Ilintxa-Aloña Mendi B	---
Arrasate-Aretxabaleta	4-2

INFANTILAK OHOREZKO KOPA

Aloña Mendi-Beasain	0-4
Tolosa-Arrasate	1-0Emakumezkoak
Arizmendi-Lagun Onak	3-1
Mondra-Mutriku	4-1

EMAKUMEZKOAK, GAZTEAK

Antigua Luberri-Aloña Mendi	1-3
Lazkao-Arizmendi	9-0
Intxaurdi-Bergara	1-0

EMAKUMEZKOAK, F11

Bergara-Mondra	1-4
Mutriku-Aloña Mendi	4-0
Arizmendi-Ilintxa	---

ESKUBALOIA

LEHEN TERRITORIAL MAILA

Arrasate-Elgoibar	30-48

GAZTE MAILA

Pulpo-Bergara	29-19
Ordizia-Aloña Mendi	22-32

KADETE MAILA

Talleres Chapime-Hondarribia	33-20
Soraluce Bergara	(atsedena)

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Azpeitiko-Eskoriatza	2-7

GIPUZKOAKO BIGARREN M.

Plaza Berri Sport-Aretxabaleta	2-2

GIPUZKOAKO HIRUGARREN M.

Aloña Mendi-Goierri	3-1

ERRUGBIA

SENIOR EUSKADIKO TXAPEL.

Atsedena izan dute.

IRATI GOITIA

MENDIKO ESKIA

Aloña edo Urbiara, eskiatzera

Zapatu goizean eskiatzaile asko animatu ziren autoa Arantzazun aparkatu, mendiko eskiak hartu eta Aloña Mendira edo Urbiara igotzera. Zapatu arratsalderako, baina, giroa dezente epeldu zen, eta elurraren kalitateak behera egin zuen. Anboton Ertzaintzak hainbat mendizale erreskatatu behar izan zituen, ondorio barik.

GURE KIROLA

GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK
ASTELEHENERO, 21:25EAN

goiena

ATLETISMOA

Nere Arregi | Atleta

"Antxintxika egiten hasteko eta gustua hartzeko ez da erlojuari begira egon behar"

- Donostiako maratoia egin zuen arrasatearrak; ibarrekoen artean, emakume azkarrena
- Musakolako kiroldegian egiten du lan Nere Arregik; Tafyd ikasketak egin zituen

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Apustu bat dela-eta hasi zen Nere Arregi arrasatearra maratoiak egiten. Azaroaren 28an Donostian jokatutako maratoian ibarreko neska onena izan zen Arregi. Hain zuzen ere, 3:26:04 egin zuen arrasatearrak.

Nola planteatu zenuen Donostiako maratoia?

Lau hilabete lehenago hasi nintuen entrenamenduak. Baina azken momentura arte zalantzan egon nintzen parte hartu edo ez; izan ere, gaixorik egon nintzen. Urgentzietara ere joan nintzen aurreko domekan.

Esperantza galdu nuen, baina azkenean erabaki nuen hainbeste entrenatu ostean merezi zuela joatea. Hala, poliki-poliki joan nintzen eta helburua lortu nuen.

Arkaitz nebarekin batera egin zenuen lasterketa.

Bai; hasieran aurre hartu ninduen, baina azkeneko momentuan harrapatzea lortu nuen.

Espero zenuen horrelako emaitzarik egitea?

Ez, ez nuen espero horrelakorik. Gaizki egon nintzenez, esperantza galduta nuen. Maratoirako entrenatzen lau hilabete lehenago hasi nintzen, eta guztira 900 kilometro inguru egin ditut.

Egunero entrenatzen zara?

Astean bost egun entrenatzen naiz, ez gehiago. Gimnasioan egiten dut lan; hortaz, spinning edo horrelako ikastaroak ematen ditudanean ez naiz korrika egitera irteten.

Maratoiaren aurretik, Behobia egin zenuen?

Ez, nuen egin. Maratoirako indarrak gorde gura nituen. Egin nuen azkena Donibane-Hondarribia izan zen, 21 kilometrokoa. Nahiko gogorra da, eta gustura geratu nintzen, ondo atera zitzaidan.

Bestalde, Arrasate-Oñati eta antzerako lasterketak ere egin izan ditut.

Maratoiarekin bukatutzat emango duzu denboraldia?

Ez, orain Gasteizko maratoi erdia egingo dut. Gero ez dut beste zer egingo... otsailera arte atseden hartuko dut. Ondoren, Bilboko maratoiarekin hasiko naiz. Maiatzean izaten da Bilbokoa.

Nola hasi zinen lasterketetan parte hartzen?

Etxean denek egin izan dute antxintxika. Txikitan, amarekin hasi nintzen, baina belauneko arazoak izan nituen eta operatu egin behar izan ninduten. Gero, berriro hasi nintzen antxintxika eta Bergarara joan nintzenean lan egitera, han sartu zidaten zorakeria.

Apustu kontua izan zen: ezetz egin hau, edo bestea... Egia esan, ordurako egiten nuen korrika, baina nire kontura: Aretxabaletara, Elorregira...

Zer dauka atletismoak horrela lotzeko?

Presioa kentzeko balio du... haserre guztiak asfaltoaren gainean uzteko. Gainera, gero eta hobeto baldin bazabiltza...

Entrenatzaile partikularrarekin zabiltza?

Bergarako lagun batek egiten dit entrenamenduak. Apustua bota zidan berberak...

Debagoieneko emakumeen artean zeu izan zara azkarrena. Nola ikusi zenuen emakumearen presentzia maratoian?

Egia esan, Donostiako maratoian emakume asko zeudela iruditu zitzaidan. 3.000 lagunetik gora ginen eta emakumeak 200 inguru izango ginen. Maratoietan parte hartzen duen jendea nagusiago izaten da, horregatik uste dut nahiko emakume egon zirela Donostian.

Arrasaten eta Bergaran egin izan dira emakumeak antxintxika hasteko ikastaroak. Zer iruditzen zaizkizu horrelakoak?

Zerbait ezagutzen dut, baina ni ez naiz hor sartu. Nik ikusten dut oso zentratuta daudela seriek eta horrelakoak egiten. Eta, nire ustez, antxintxika hasteko eta gustua hartzeko ez da erlojuari begira egon behar.

Nere Arregi, Zigorrolan daukan gimnasioan luzatze ariketak egiten. | A.E.

Donostiako maratoian emakume asko zeudela uste dut

Maratoi bat egiteko orduan burugogorra izatea ezinbestekoa da

Denbora jaisten hasteko asko entrenatu behar da. Aurrerapenak nabaritzeko denbora behar da, eta oinetakoak jarri eta antxintxika egin behar da. Ezin zara denborari begira egon: gaur euria da, gaur elurra da...

Maratoi bat egiteko orduan zer da, zure ustez, gogorrena?

Burua, duda barik. Edozein momentutan minarekin has zaitezke... eta buru gogorra ez baldin badaukazu... Aurtengo maratoia, adibidez, bukatu dut burugogorra naizelako.

Oso garrantzitsua da, baita ere, nork bere erritmoa hartzea. 11 kilometroko lasterketa baten, zure ahalmenetik gora joan arren, helmugara iritsiko zara. Baina 42 kilometroko lasterketa baten behar baino azkarrago hasiz gero, 15. kilometrorako ezinean joango zara. Oso garrantzitsua da ondokoari ez jarraitzea. Nire helburua beti izaten da helmugara iristea.

Politena, ostera, zer da?

Donostiako maratoian, adibidez, giroa oso ona da. Jende mordoa egoten da bide bazterrean lasterketa ikusten. Jendeak animatu egiten zaitu; izan ere, horrenbeste jende dago, beti ezagutzen zaitu norbaitek.

Maratoian bi emakume etiopiarrek parte hartu zuten, eta, gainera, irabazi.

Bai, baina esan behar da Ana Caseresekin ez zirela ondo portatu. Esan zuten 10 kilometro bakarrik egingo zituztela, eta Ana Casares atzetik zioan. Baina etiopiarrak ez ziren geratu eta 25. kilometroan ihes egin zuten. Besta maila bat dute, izugarri onak dira.

Gimnasioan egiten duzu lan, eta ikasketak ere kirolaren inguruan egin dituzu.

Bai; txikitan hasi nintzen gimnasioan, amak esanda. Egia esan, beti ibili izan naiz kirola egiten, baina ez naiz fanatikoa. Nire burua zaintzen dut, baina zerbeza bat hartzen dut, edo afaltzerakoan hartzen dut ardotxo bat. Tafyd ikasketak egin nituen Arrasaten, eta spinning ikastaroak ere hartu ditut.

Daltonismoa arazo iturri izan daiteke umeek egoki ikasteko

Arazo horiek nabarmen gutxi daitezke testu-liburuetako koloreak aldatuta

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Daltonismoa ikusmen arazo bat da; koloreak nahastea, hain zuzen ere. Gaixoek erretinako konos izeneko zelulen pigmentazioan dute arazoa. Sintoma ohikoena kolore gorria eta berdea nahastea da. Zenbait kasutan, baita urdina eta horia ere. Gaixotasun genetikoa da, jaiotzetik ekar daitekeena edo urteen buruan gara daitekeena. *X* kromosomaren bitartez transmititzen da.



Daltonikoendako Rubik jokoa. | SPLINTER

Liburuetako koloreak

Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan egindako ikerketa berri batek azaldu du matematika liburuen %11 nahasmen iturri direla daltonismo arazoak dituzten ikasleendako. "Matematikako liburu gehienek kolore gorria, berdea eta horia erabiltzen dituzte gehienbat, eta daltonikoek tonalitate marroietan ikusten dituzte kolore horiek guztiak", azaldu dute. Ondorio horretara iritsi dira matematikako 70 liburu aztertu eta hainbat irakasle elkarrizketatu ostean. Argitaletxe nagusiei ikerketaren emaitzen berri eman zaie eta gertu azaldu dira erabilitako koloreak aldatzeko.

Bizioen edo heste-zizareen aurka egiteko adituek berakatza gomendatzen dute

Azaldu dutenez, merkatuan dauden botikek bizio helduak hiltzen dituzte, baina ez arrautzak

L.Z. | ARRASATE

Errun eta 10 bat egunera jaiotzen dira bizio berriak. Horregatik da garrantzitsua tratamendua behar beste errepikatzea. Adituek gomendatzen dute lehenengo tratamendua jaso eta 7-10 egunen buruan berriz egitea, eta, tratamendu naturala egin nahi izanez gero, ezinbestekoa da berakatza jatea. Lau bat buru gomendatzen dituzte eta jarraian infusio bat hartzea. Infusio hori pitusgarriarekin, malbarekin, asentsio-belarrarekin eta frangula izeneko belarrekin egin behar da.

Garagardoa ere gomendatzen dute naturistek. Bost egunean jarraian edan behar da, baraurik. Asentsio-belarraren 10 gramo hauts bota behar zaizkio garagardo bati. 12 orduz nahasten utzi ondoren edan behar da, esan bezala, baraurik.

Gurasoa atsekabetuta. | ALL-I-OLI

OHARRAK

SEXUALITATEA HIZPIDE

Arrasateko Udal Prebentzio Sailak antolatutako guraso eskolan sexualitatea izango dute hizpide hilaren 9an eta 14an. Lehenengo saioa seme-alabak nerabezaroan dituzten gurasoendako izango da, eta bigarrena haurtzaroan dituzten gurasoendako. Informazio gehiagorako deitu 943 25 20 07 telefono zenbakira.

DANTZA FAMILIAN

Txatxilipurdik antolatuta gurasoendako eta seme-alabendako beste dantza saioa bat egingo du Eneritz Urrutiak. Kulturateko Loramendi gelan egingo du hilaren 11n, zapatua. 11:00etan hasiko da eta 12:30ean amaitu. Saioa bi zatitan banatuko du. Bigarren zatian txerri-dantza ikasteko aukera izango dute gurasoek.

JOSTAILU TRUKE AZOKA

Jostailuak batzen jarraituko du Txatxilipurdik abenduaren 19an Okendoko ludotekan egingo duen jostailu truke azokarako. Beste hiru hitzordu dituzue etxeko jostailuak eramateko: hilaren 13an Arimazuri plazan, 14an Santa Marinako ludotekan eta 15ean Okendoko ludotekan. Ordutegia: 17:30etik 19:00etara.



Ume jaioberria pediatra baten kontsultan. | BENEDILOLA

Pediatra euskaldunak eskatu dituzte UEMAtik eta Kontseilutik

Euskaldunen hizkuntza eskubideei garrantzi handiagoa emateko eskatu dute

L.Z. | ARRASATE

Euskadiko Lehen Mailako Pediatria Elkarteko lehendakari Pedro Gorrotxategiri egin diote eskaera, besteak beste. Urriaren 21ean *El Correo* egunkariak argitaratutako Gorrotxategiren adierazpenen harira dator eskaera. "Adierazpen horietan baieztatzen zen pediatrei administrazioko euskara-mailarik baxuena ezarri behar zitzaiela (1. HE), antza denez, oraingo hizkuntza-eskakizunak (2. HE) pediatra askori kalte egiten diela-eta", jakinarazi dute UEMAk eta Kontseiluak (OEE).

Jakinekoa da milaka umek ez dutela euren hizkuntzan atentzioa jasotzen eta ez dira gutxi euskara teorian derrigorrezkoa izanda hizkuntza-eskakizunik gabe lanean diharduten pediatrak. "Osakidetzan, ia 140 pediatrak egiaztatu dute hizkuntza-eskakizuna, eta, lanpostuan euskara derrigorrezkoa izanik ere, ia 60 pediatra salbuetsita daude euskararen ezagutzatik, 45 urtetik gorakoak direnez gero".

Onartuko lukete erdaldunek?

UEMAtik eta Kontseilutik uste dute administrazioaren euskara-mailarik baxuenak (1. HE), definizioz, ez duela umeak eta gurasoak euskaraz atenditzeko gaitasunik frogatzen, are gutxiago gurasoei eman behar zaizkien tratamenduak (dietak, zorriak kentzeko, beherakoak moztekо...) irakurtzeko eta azaltzeko ere. "Bestalde, euskara maila baxu hori ez dator bat pediatren maila profesionalarekin: maila baxuagoa duten kategori gehienek 2. HE edo altuagoa daukate ezarrita", ekarri dute gogora OEEtik. "Onartuko lukete erdaldunek, ezinbestean ez bada (mediku faltagatik, demagun), gaztelaniaz oinarrizko gaitasuna baizik ez duten pediatrek euren umeak atenditzea? Onartuko lukete maila eskas hori daukatenak, edo gaztelania ez dakitenak, gaztelania normaltasunez erabiltzen dutenen baldintza berdinetan sisteman sartzea?".

Bi erakunde horiek datu gehiago eman dituzte: "Osakidetzako hizkuntza-eskakizunen azterketak 2004an hasi ziren. Harrezkero ia 7.000 langilek egiaztatu dute hizkuntza-eskakizuna, eta 3.500 langile baino gehiagok egiaztatu dute Osakidetzatik kanpo (...). Jakina, langile askorentzat onuragarria izan zena kaltegarria izan zen beste batzuen interesentzat, baina ez da zilegi batzuen arazoa talde oso batena balitz bezala aurkeztea. Euskara duintasunez tratatzeko eskatu dute bi erakun horiek. "Administrazio publikoek zein elkarte profesionalek duintasunez tratatu behar dute euskara", gogoratu dute.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

guraso.com

KULTURA

Ibarreko sortzaileak ere hauspo Durangoko azokaren zurrunbiloan

- Eguaztenera arte, Durango izango da euskal kulturgintzaren hiriburu
- Liburu, disko zein DVD, ibarreko eskaintza zabala aurki daiteke Landakon

TXOMIN MADINA | DURANGO

Goibel ekin zion Durangoko Azokak 45. edizioaren bigarren egunari. Goibel, eguraldiagatik. Baina are goibelago zapatu gauean hil zelako **Xabier Lete**, euskal kulturgintzaren ikur garrantzitsuenetakoa.

Azokako zuzendari **Jon Irabazalen arabera**, Lete azokari oso lotuta zegoen. "Betidanik izan dugun presentzia bat izan da. Azokaren bigarren edizioan dagoeneko hartu zuen parte, Xabier Lete beharrean komunikabideetan oraindik ere, Javier Lete zenean. Eta iaz bertan ere egon zen bere liburua sinatzen". Atzo egun guztian zehar izan ziren poeta eta musikariaren omenezko ekitaldi txikiak. Eguerdian esaterako, *Xabaldorren heriotzean* abestu zuten hainbat bisitarik. "Denbora faltagatik ez da Leteren omenezko ekitaldi handirik egingo, baina bere presentzia egunero izango dugu", iragarri zuen Irazabalek. Aurtengo gai nagusia den erotismoarekin eta herrialde gonbidatu Kurdistanekin batera beraz, Xabier Lete izango da azokaren protagonistetako bat.

Handientzat zein txikientzat Durangoko azokaren 45. edizioak aukera zabala eskaintzen du. | JULIO CALLEJA

Ibarreko ordezkaritza zabala

Bisitariei dagokionez, atzokoa egun jendetsua izan zen, eta sortzaile ugari bildu ziren Landakon. 30. orrialdean jarraitzen du.



JUAN MARTIN ELEXPURU
'LAMINEN SEKRETUA'

"Erosle moduan edo ekoizle moduan, baina uste dut azokara urtero etorri izan naizela. Niretzako festa bat bezalakoa da, izan ere, gainerako idazleak, editoreak edo aspaldiko lagunekin elkartzeko aukera ematen dizu, baita beste leku batzutan aurkitu ezin diren liburuak aurkitzekoa ere. Egia da baina, azoka nolabait oasia dela; urtean zehar, euskal liburu eta diskoek ez dute indarrik ".

ANAJE NARBAIZA ETA BELEN SAN TORCUATO
'ERREMEIXUAK'

"Esperientzia polita da azoka, produktu bat merkaturatzen duzunean, merkatu horrek berak esaten dizu-eta produktua bizirik dagoen edo ez. Momentuz pozik gaude DVDak izan duen erantzunarekin. Saltzaile edo erosle moduan etorri, ikuspegia ezberdina da. Eroslearen galdera da: topatuko al dut gustuko zerbait? Saltzailearena, aldiz: salduko al dut?"

UNAI AZKARATE
'AZKAITER PELOX & THE ROAD BAND ZUZENEAN!'

"Musikherria diskoetxearen postuan dugu salgai gure azken lana. Nola daramadan saltzaile lanak egin beharra? Ondo, musikari polifazetikoak gara eta denerako gaude. Saltzaile edo kontsumitzaile izan, Durangoko Azoka puntu beroa da, eta gure ekarpena egiten saiatzen gara. Postuan gure txanda amaitzen denean, ematen dut bueltatxo bat gainerako postuetatik".

Gose taldeko Ines Osinaga, *Larrosa* azken lana sinatzen. | JULIO CALLEJA

Hedabidekin berba egitea, azokako beste lan bat. | JULIO CALLEJA

Debagoieneko ordezkaritza zabala bildu zen atzo Landakon. | JULIO CALLEJA

29 orrialdetik dator.

Han ikusi ahal izan ziren, besteak beste, **Kepa Junkera, Alex sardui, Joan Mari Irigoien, Imanol Murua, Irati Jimenez...** Eta nola ez, baita Debagoieneko ordezkaritza zabala ere.

Bigarren aldiz, **Gose** taldeak bere *stand* propioa jarri du Durangon, eta hantxe ibili zen atzo **Ines Osinaga** *Larrosa* diskoak saldu eta sinatzen. "Zure postua jarri behar duzunean, Durango ezberdin ikusten da: muntaia egunean txandalean egoten gara, eta beste egunetan, *txukunago*. Baina pozik halere", zioen Osinagak. Dena den, arrasatearrarentzat, diskoak saltzeko baino handiagoa zen gaur Ahotsenean aritzeko eta zaleekin elkartzeko gogoa.

Juan Karlos Irizar musikari oñatiarrarentzat, galdu ezineko hitzordua da Durango. Hogei urte baino gehiago daramatza bertara bere lanak eramaten. *Hegalak zabalik* diskoa eta *Euskal abesti enblematikoak 2 eta 3* liburuak dira bere aurtengo berrikuntzak. Irizarrek ere bere standa du eta saiatzen da egunero Landakon egoten: "Jendeak nigatik galdetzen du, eta bertan egon beharra daukat".

Juan Ramon Garairentzat, lehenengo aldia da azokara sortzaile moduan doana. Maite Landinekin batera idatzitako *Punto final. Unica testigo* liburua aurkeztu du bertan, eta neurri baten penatuta zegoen. " Debagoienetik kanpo ez gara ezagunak, eta hemen, saltzeko, propaganda aurretik egin behar dela uste dut" zioen Garaik.

Eguaztenera arte

Krisiaren ondorioz aurrekontua %30 jaitsi den arren, Jon Irazabalen esanetan saiatu dira bisitariek hori ez nabaritzen. Horretarako, egitarau zabala prestatu dute eguaztena bitartean. Liburu eta diskoen sinadura eta aurkezpenak, Ahotsenea, Haur Literatur Txokoa... Nola atera zuku gehien Durangoko azokari? Irazabalek argi du gomendioa: "Jai giroan etortzea Durangora eta ez bakarrik azokara, baita inguruak ezagutzera ere".

AHOTSENEA

ABENDUAREN 6AN

14:00 Goseren kontzertua.

ABENDUAREN 8AN

11:00 *Kili kontuak* liburuaren aurkezpena

13:00 Une taldearen kontzertua

19:30 Emonen kontzetrtua

Azoka Telebistan lanean diharduen Goienako lantaldea. | JULIO CALLEJA

Gertatzen denaren berri, Azoka Telebistan

Manent, Gatibu,Zea Mays eta Gose taldeak eta Patxi Zubizarreta, Juan Mari Irigoien eta Toti Martinez de Lezea idazleak, besteak beste, pasa dira dagoeneko Azoka Telebistatik. Goiena Telebistak kudeatzen du berau ETB3 eta H amaikarekin elkarlanean. Azoka Telebistaren bigarren urtea da aurtengoa, eta berrikuntzekin etorri da: detailerik ez galtzeko, bi pantaila erraldoi jarri dituzte azokan bertan, *Goiena.net* webgunean ere ikus daiteke streaming bidez.

KRONIKA

Akordeoi hotsak nagusi Arrasaten

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi elkarteak antolatuta, akordeoi lehiaketa egiten dihardute egunotan Arrasaten. Aurten, guztira, zazpi urtetik gorako 300 musikari pasako dira egunotan bailaratik.

Zapatutik domekara bitartean, Gipuzkoako XXIII. akordeoi jaialdia egin zuten Amaia Antzokian, Kulturaten eta Arizmendi ikastolan. Edizio arrakastatsuenetarikoa izan da aurtengoa, iazkoarekin alderatuta parte-hartzea %10 handiagoa izan da; hain justu, 260 musikari inguru. Euskal Herrikoez gain, Katalunia, Murtzia, Madril, Errioxa edo Galiziatik etorritako akordeoi jotzaileak batu dira; Zenbaitek bakarka jo zuten, eta beste hainbatek, ostera, taldeka. Sari moduan, guztiek urre, zilar edo brontzezko domina jaso zuten atzo iluntzean Amaia antzokian egindako sari banaketan.

Amaian ekimen hori egiten zuten bitartean, Kulturaten, Gipuzkoako XXXI. lehiaketako senior mailako kanporaketa jokatzen ari zen. Gaur, astelehena, jarraituko dute lehiaketa horrekin.

FITXA

MUSIKA

GIPUZKOAKO XXXI LEHIAKETA

Astelehena: 09:00etan eta 15:00etan, juniorrak Amaian; eta 10:30ean, senior, eta, 15:30ean, infantilak, Kulturaten.

NAZIOARTEKO XVIII LEHIAKETA

Martitzenean, 09:00etan eta 15:00etan, azken faseak Amaian; eta 20:00etan, ekitaldia eta sari banaketa toki berean.

8 herrialdeetako musikariak

Bestalde, kanporaketekin hasi zen atzo *Arrasate Hiria* Nazioarteko XVIII. lehiaketa. Agerian geratu zen horietan Polonia, Finlandia, Serbia, Kroazia, Errusia, Austria, Eslovenia eta Norvegiako musikarien abilezia. Bihar ezagutaraziko da irabazlea.

Errusiarra zapatuan, Arkupen. | JULIO CALLEJA

Iazko irabazle Semion Shmelkov, Arkupen

Arrasateko Akordeoi Lehiaketaren harira, zapatuan, iazko nazioarteko lehiaketako irabazle Semion Shmelkoven kontzertua eskaini zuen Aretxabaletako Arkupen. Ordubete inguruko emanaldia eman zuen; oso gustura irten ziren errusiarra ikustera joan zirenak.

Arkupekoa ez da izango kontzertu bakarra. Gaur, astelehena, Arrasaten egongo da. Kulturaten dago hitzordua eginda, 20:00etan.

Gipuzkoako XXIII. akordeoi lehiaketan parte hartu zuen hirukotea, zapatuan, Arrasateko Amaia Antzokian. | JULIO CALLEJA

'Olentzero & Co!' musikalaren estreinaldi arrakastatsua Eibarko Coliseoan zapatuan; oraingo asteburuan Arrasaten

Dantza eta musika taula gainean; algara eta txaloak nagusi ikus-entzuleen artean

IRATI GOITIA | EIBAR

Olentzero ohikoa baino lehen jaitsi da menditik aurten. Hala ere, oraingoan zakua albo batera utzi eta abesten aritu da Eibarko Coliseoan *Olentzero & Co!* ikuskizunaren barruan. Izan ere, zapatuan estreinatu zen musikala eta izugarrizko arrakasta izan zuen. Bi izan ziren eskaini zituzten emanaldiak, bat 17:30ean eta bestea 20:00etan, eta bietan bete zen Coliseoa.

Ikutu modernoa

Olentzero & Co! pop-rock musikalak ukitu modernoa du, eta, horrela, rap doinuak entzun genituen Eibarren, kabaretaz gozatu genuen edota break-dance-a dantzatzen ikusi genituen basoko iratxoak.

Zoriontasuna

Ikazkinak opariak banatzen ditu urteko egun berezienean, baina atzo, musikaleko protagonista Peruk eskatzen dion bezala, zoriontasuna banatu zuen Coliseoko ikusleen artean. Haurrak zein gurasoak pozik ikusi genituen ikuskizunarekin batera abesten, dantzatzen eta txaloka.

Emanaldiaren amaieran emozioa nagusi: haurrak erabat txoratuta ikusitakoarekin eta parte-hartzaileak arro eginikoaz.

Oraingo asteburuan Arrasaten izango dugu ikuskizunaz gozatzeko aukera. Izan ere, Olentzero Arrasateko Amaia Udal Antzokira etorriko da. Emanaldiak zapatuan eta domekan izango dira, baina dagoeneko ez da sarrerarik gelditzen.

Olentzero & Co! musikaleko parte-hartzaileetako batzuk zapatuko emanaldiaren amaieran. | JULIO CALLEJA

5.KONTZERTUA

abenduak
17
EGUBAKOITZA
22:30
ELGETAKO KAFE ANTZOKIA

SARRERAK ETA ABONUAK //
SALGAI DAUDE:
1> GOIENAKO EGOITZETAN
2> 943 25 05 05 ZENBAKIAN
3> ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN

SARREREN SALNEURRIA 5 EURO //
GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO
ABONUA 22 EURO //
GAZTEKUTXAREKIN 12 EURO

DARK CODE
BERGARA
KUBERS
SORALUZE
ASFIKSIA
OÑATI
INDUSTRIA DOLOR
ARRASATE

DANBAKA
IV. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENA DEBAGOIENA DURANGALDEA

www.danbaka.com

BABESLE NAGUSIA
kutxa gazte

LAGUNTZAILEA
PREST
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Elgetako Udala
gaztelupeko HOTSAK www.hotsak.com
SHOT! grabaciones
PIL-PILEAN
B BARREN
eta kitto! Euskara Elkartea
GAURKO grupo SEIN taldea
Ganesha Tattoo Arrasate
laino SKATEPARK
anboto komunikabideak
drogetenitturri

ANTOLATZAILEAK
goiena
KAFE ANTZOKIA espaloia ELGETA

GURE MUSIKA TALDEAK

DENIAL

Ezkerretik eskuinera, Rober, *Murray*, Ibai, *Roma* eta M. *Akerburu*. | DENIAL

"Black death melodikoa lantzen dugu, suediar ukituarekin"

- Denial aretxabaletarrek *Ophiuchus* delako diskoa grabatu dute
- Mikel Kazalis tekniariarekin grabatu dute, Zarautzen

MIREIA BIKUÑA | ARETXABALETA

Denial taldeak *Ophiuchus* delako diskoa kaleratu berri du. Taldeko kide Manexekin egin dugu berba lan berriaren gainean.

Zer moduz diskoa berria? Gustura zaudete?

Bai, egia esan, gustura gaude. Disko batzuk saldu ditugu, baina oraindik askoz gehiago zabaldu behar dugu. Hasi besterik ez gara egin.

Ze musika lantzen duzue?

Black death melodikoa lantzen dugu. Askotan esaten dugu suediar ukitua ematen diogula gure musikari. Estilo hau gehienbat Europako iparraldean lantzen dute, baina gurean, apurka-apurka hasi dira taldeak sortzen. Maila handiko taldeak dira, baina oso gutxi entzuten da euren musika; besteak beste, Numen eta Darkness by Oath daude. Ez da oso ohikoa gurean, baina taldeak egon badaude.

Ze entzun daiteke disko berrian?

Soinua berritu egin dugu, baina kantuak idazteko orduan gai berberak erabili ditugu. Oro har, gizakiaren suntsipenaren inguruko gaiak erabili ditugu. Gai ilunak dira. Horretan, behintzat, ez dugu ezer aldatu.

Leloa aldatu egin duzue.

Bai, hala da. Horixe da diskoan antzeman daitekeen berrikuntzetako bat. Taldearen leloa aldatu egin dugu.

Soinua ere aldatu egin dugu. Oinarri sendo bat bilatzen saiatu gara. Soinu aldaketak ekarri digu logotipo aldaketa egitea. Bi diskoak alderatuz gero, oso nabariak dira bi berrikuntzak.

Non grabatu duzue diskoa? Gustura zaudete?

Zarautzen grabatu dugu Mikel Kazalisekin. Lehen diskoa ere harekin grabatu zuten, eta orduko esperientzia ikusita, ez zuten bitan pentsatu. Nik ez nuen ezagutzen, baina plazera izan da harekin lan egitea. Pertsona jatorra da, eta aholku oso onak eman dizkigu. Oso gustura egin dugu lan harekin. Esperientzia handia duen teknikaria da, thrash metala asko landu du-eta. Horregatik guztiagatik, eskerrak eman gura dizkiogu. Ekoizpena ere Mikel Kazalisek berak egin digu.

Lana, baina, zuek kaleratu duzue?

Bai; kopia batzuk bidali ditugu, baina ez dugu laguntzarik jaso.

Taldea ezagutzen ez dutenendako, aurkeztu zuen burua. Nortzuk zarete Denial?

2000. urtean sortu zuten taldea Alesek, Ibaik eta Luisek, beste izen batekin. Ondoren, Rober eta Murray elkartu ziren eurekin eta Denial izena erabiltzen hasi ziren. Maketa bat grabatu zuten. 2006an *Fobia* diskoa grabatu zuten, eta ni sartu nintzen taldean. Egun, Rober, Murray, Ibai, Romo eta bostok gara taldeko kideak.

Non eros daiteke diskoa?

Aretxabaletako tabernetan eros daiteke, eta laster ipiniko ditugu Arrasaten. Ahaleginduko gara *underground* katalogoetan ipintzen. Gure zuzenekoetan ere salgai ditugu. Hori da onena, zuzenekoa ikusi eta diskoa erosi. Internet bidez ere lor daiteke: *myspace* orrian (*www.myspace.com/denialdenial*) edo mezu bidez (*moxnoxproductions@gmail.com*).

ZERTZELADA

OPHIUCHUS

Estiloa: Black-metala.

Egilea: Denial.

Argitaletxea: Mox Mox Records.

Iraupena: 36,5 minutu.

Malenkoniaren garraztasuna

Aretxabaletako eta Arrasateko kideak dituen taldeak borroka handia egin behar izan du aurrera egiteko; izan ere, urteotan oztopo handiak izan dituzte. Horrek guztiak sendotu egin du euren eskaintza. Talde gutxi dira black-metalaren alorrean Euskal Herritik kanpo oihartzuna lortu dutenak, baina Denial horietako bat da eta merezita du gainera. Pasaje orkestralek eta nostalgiaz betetako melodiek garraztasun kutsu nabarmena daukate, black-metalaren eta Denialen marka direnak. Horri, gainera, ukitu epikoa eta amorruz betetako ahotsak gehitzen dizkiote. Hondamendiari eta munduaren bukaerari euskaraz abesten diote, atzean geldidutakoa atsekabez gogoratuz.

IKER BARANDIARAN

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Abadiño. Etxea salgai Muntsaratzen. 2 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, igogailua, trastelekua eta garajea. 4garren solairua, ia berria. 217.000 euro 688-68 65 87 .

Altsasu. Etxe adosatua salgai. Hiru solairu, lorategia eta garajea. Erdi jantzita eta berrikuntzekin. 616-92 44 70 edo 676-85 51 70.

Arrasate. 47 m2ko etxebizitza salgai Erguinen. Egoera ezinhobean. Berogailuarekin. Jantzia. Bizitzera sartzeko moduan. 148.000 euro. Deitu 649-70 33 83 telefonora.

Arrasate. Erguin kalean etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. 205.000 euro. 606867197.

Bergara. Etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Hiru logela, egongela eta bi bainugela. Sukaldea erabat egokitua. Garajea aukeran. 653-74 49 56/688 -80 30 55.

Bilbo. Etxe handia eta eguzkitsua salgai Bilboko Basurtu auzoan. Ospitaletik gertu eta tren geltokiaren ondoan. Basurtuko beheko partean dago, Indautxu ondoan. 180.000 euro. Aukera paregabea! Telefonoa: 635-72 79 37

Durango. Etxea alde zaharrean kokatuta dago. Argitsua da eta erreformako lanak amaitu gabe daude.

Durango. Sasikoa kaleanpisua salgai. 3 logela, komuna, egongela-jangela, sukaldea eta ganbara. Prezio onean. Garajea ere bai, nahi bada. Deitu 679-38 23 69 telefonora.

Durango. Etxea salgai Andramaria kalean. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Etxe guztiak kanpoaldera ematen du; oso argitsua. Pisu altua, 30 m2-ko terrazarekin. 696-25 50 83 (arratsaldeko 17:00etatik aurrera).

Durango. Alde zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komuna. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (elondoa), sukaldea (fagor elektrotresnak eta junkers galdara), gres, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 215.000 euro. 607-71 53 53 .

Durango. Atiko zoragarria salgai alde zaharrean. Duela urte eta erdi erabat berriztatua. Erabat jantzia. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kapritxosoa. Etorri ikustera! 659-42 58 90.

Elorrio . Berritutako etxe eguzkitsua salgai, trastelekuarekin. Nahi izanez gero, garajea ere erosteko aukera. Prezioa negozia daiteke.615-73 27 27.

Etxarri-aranatz. Etxea errentan edo salgai.654-23 41 02.

Iurreta. Etxea salgai Askondo kalean. 210.000 euro. 78m2, 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua badago. Garajea ere bai, gura bada. Tel.:94-681 19 48.

Oñati. 67 m2ko etxebizitza salgai Bakardadeko ama kalean. Sukaldea, egongela, bi logela eta komun bat. 264.000 euro. Garaje itxia aukeran, 35 m2koa, argi eta ur instalazioarekin. 66.000 euroan.Deitu 659-72 06 64 telefono zenbakira.

Oñati. Etxaluzen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela-egongela, lau logela, bi bainugela, bi balkoi, trastelekua-ganbara eta garajea. 647-24 80 02.

103. ERRENTAN EMAN

Anbotoko magalean asteburuetarako borda ematen da errentan. 14:30etik aurrera deitu. 620 10 52 63.

Arakil. Satrustegi Arakilgo kontzejuak kontzejuko lehen solairuan duen etxebizitza alokatzen du. 360 euro hilean. 646-10 28 73.

Arrasate. Altamiran, Jose Luis Iñarra kalean, hirulogelako etxebizitza ematen da errentan.639 -96 01 21.

Arrasate. Erguin kalean hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Berritua. Berokuntzarekin. Jantzia. Bizitzera sartzeko moduan. Eguzkitsua eta kanpoaldera begira. 617-17 18 23.

Arrasate. Zarugalde kalean etxebizitza ematen da errentan. Sukaldea, egongela, bi komun eta bi logela. Berokuntza eta igogailuarekin. 656750094.

Etxarri-aranatz. Pisua alokagai edo salgai.654-23 41 02.

Etxarri-aranatz. Pisua alokatzen da. 615-83 40 28.

Etxarri-aranatz. Pisu bat alokatzen da. Merkea. Detu 607 -31 76 67. telefonora.

Oñati. Lau logelako etxebizitza ematen da errentan erdigunean.663-69 31 16.

Zaldibar. Logela bat ematen dut errentan. 655-73 97 92.

Zumaia. Larretxo auzoan pisu bat alokatzen dut. Hiru logela, sukaldea bi bainu eta egongela ditu. Bigarren solairuan dago eta igogailua badu. Garajea ere badu. Harremanetarako deitu: 943-86 00 65 eta 606-38 55 80.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Pertsona arduratsuak etxebizitza txikia hartuko luke errentan. Presazkoa da.Deitu 666-21 88 95 zenbakira.

Arrasate. Arrasatear neska langile eta arduratsua naiz, eta etxea hartuko nuke errentan arrasate erdialdean. 500 euro arte ordainduko nuke. Mila esker. Iraia.606-74 42 37.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 450-500 euro ordain ditzaket hilean. Deitu 699-66 33 63 zenbakira.

Bergara. Bikote batek etxebizitza behar du errentan. 610-62 65 04.

Durango. Alokatzeko etxe bila nabil Durangon eta inguruetan. Dei637-14 41 62. Momo.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu alokagai Arrasaten. 630 71 35 83.

Arrasate. Ikasleendako logela ematen dut errentan, komun partikularrarekin. Unibertsitatetik gertu, Erguin auzoan. 648 19 10 38.

Arrasate. Logela ematen da errentan. Deitu 18:00etatik aurrera 943 53 21 62 telefono zenbakira.

Donostia. Bi neska langile pisukide bila gabiltza: urtarrilaren 1etik aurrera sartzeko eta denbora luzerako nahi genuke. Hobe langilea bada; hiru logeletako pisua ametzagainan dago egia kaletik gertu. Deitu 615-71 71 55. telefonora

Etxarri-aranatz. Gela bat hartuko nuke, alokairuan, etxarri aranatz inguruan. Deitu 619-86 06 16. telefono zenbakira.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.
Egubakoitzean + Astelehenean: 20,50 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 21 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 28 € (+BEZ).

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

Iruñea. Txantrea auzoan gela bat alokatu nahi diogu neska bati. Bi neska bizi gara pisuan. Etxea polita eta lasaia da eta kalefakzioa du. 200 euro, gastu guztiak barne. 628-04 3853

Oñati. Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan emateko Errekalden. Deitu 18:00etatik aurrera. 653 74 87 51 edo 699 46 76 11

2. GARAJEAK

201. SALDU

Abadiño. Garajea salgai matienan. Zeus-en lokalean. Deitu eta informatu! 94-681 70 67

Durango. Garaje partzela bat salgai Alluitz kalean, 3. zenbakian. 22.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 636-33 82 46. Amaia

Durango. Garajea (marrak) alokatzen dut durango erdian, landako 7 kalean (madalena autobus geltokia dagoen tokian). Interesatuok deitu zenbaki honetara: 625-92 10 57.

Etxarri-aranatz. Garaje partzela alokatzen da plaza aldean. 652-26 28 18.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje itxia, 20 metro koadrokoa, errentan eman edo saltzen da Uarkapen. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: Deitu 943245357 edo 615 73 98 30 telefono zenbakietara.

Bergara. Bi garaje ematen dira errentan. Bat Burdinaten eta bestea Masterrekan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 600 64 67 88.

Bergara. Garaje itxia ematen da errentan Kruz Gallastegi kalean. Bigarren solairuan, 25. zenbakia. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta Estherrengatik galdetu. 665 70 66 73.

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. Garajea hartuko nuke errentan san juan kale inguruan. Berdin da itxia izan ala ez. 627 -62 12 55

3. LOKALAK

301. SALDU

Bergara. 180 (90+90) m2ko lokala salgai labegaraietan. Bista ikusgarria. Goiko pisua bulegotarako egokitua. Prezioa:130.000 euro. 627-53 78 61/627-53 78 62

Etxarri-aranatz. Plazako lokal bat eskualdatzen da. 948-46 03 12 edo 619-96 80 41

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile, nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. Esperientziaduna. Legezko paperak dauzkat. 666 84 17 05,

Arrasate edo Bergara. Neska gertu nagusiak zaindu, garbiketa, sukalde laguntzaile. Legezko paperak eta informeak dauzkat. Esperientziaduna. Deitu 659 37 41 95 telefono zenbakira.

Arrasate. Asteburu eta jaiegunetan lan egingo nuke nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketa zein plantxa lanetan. Baita astean zehar 18:00etatik 20:00etara bitartean ere. Presazkoa da. Fanny Salvatierra. 682 31 97 37.

Arrasate. Arrasateko neska gazte euskalduna goizetan etxeak garbitzeko prest. Esperientziaduna. 618-41 24 79

Arrasate. Emakume euskalduna gertu plantxa egiteko edo etxea garbitzeko, orduka, arratsaldez. Deitu 699-54 17 27 telefono zenbakira.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu orduka plantxa zein garbiketa lanak egiteko edo ume eta nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699 54 17 27.

Arrasate. Hemengo neska prest etxeak garbitzeko, umeak zaintzeko eta beste edozein lanetarako; orduka ere bai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 659 55 27 16.

Arrasate. Nagusi eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Gauez zein egunez. 618 14 71 34.

Arrasate. Neska euskalduna, haur hezkuntza ikasketak burututakoa, umeak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 615 76 19 82.

Arrasate. Asteburu eta jaiegunetan lan egiteko gertu: garbitasun lanak, nagusiak edo umeak zaintzeko... 682 31 97 37.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu plantxa egiteko edo etxea garbitzeko, orduka, arratsaldez. 699 54 17 27.

Arrasate. Neska euskalduna gertu arratsaldeetan umeak zaintzeko. 615 76 19 82.

Arrasate. Neska euskalduna gertu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientziaduna. 659 81 59 15.

Arrasate. Umeak zainduko nituzke. Eskolara bila joateko aukera ere bai. Aisialdi titulua daukat. 661 35 49 28.

Azpeitia. Bi emakume, helduak zaintzeko prest. Geriatriako titulua daukagu. Deitu 695-74 88 35 edo 647-72 23 36 telefono zenbakietara edo idatzi mezu bat loreaig83@hotmail.com e-postara.

Azpeitia. 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606-42 64 14

Bergara. Esperientziadun neska umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 665 75 41 32.

Bergara edo Arrasate. Mutila gertu sukalde laguntzaile, zerbitzari, garbiketan edo nagusiak zaintzen jarduteko. Esperientziaduna eta legezko paperekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 84 41 94.

Bergara edo Arrasate. Neska gertu orduka lan egiteko sukalde laguntzaile edo garbiketa lanetan. Nagusiak zaintzen ere bai, etxean bizi izateko aukerarekin. Esperientziaduna. Legezko paperak dauzkat. 659 37 41 95.

Bergara. Emakume euskalduna gertu umeak zaintzeko. Haurtzaintza titulua eta esperientzia daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 65 30 62 (Arantzazu).

Bergara. Esperientziadun neska etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 665 75 41 32.

Bergara. Umeak zaindu eta etxeko lanak egiten lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 665 75 41 32.

Debagoiena Emakumea gertu manikura eta pedikura egiteko. 12 euro. 654 79 07 58.

Debagoiena. Emakume batek garbiketa lanak egin edo nagusiak zainduko lituzke asteburuetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699 09 46 26.

Debagoiena. Geriatria laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Baita gaixoak ospitalean zaintzeko ere, gauak arne. 08:00etatik 15:00etara edo 20:00etatik 08:00etara egingo nuke lan. Mirian. 646055888, 943 79 79 49

Debagoiena. Gizona gertu edozein lan egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 646 27 70 46.

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest nago. 638 89 98 60.

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziaduna, gertu umeak zaintzen, nagusiei laguntzen edo orduka garbiketa lanetan jarduteko. Telefono finkora 16:00ak arte edo gauetan deitu. 943 71 53 74, 695 73 87 95

Debagoiena. Neska gaztea gertu lan hauetarako: zerbitzari (hiru urte eta erdiko esperientzia), garbiketa lanak (etxeak, atariak eta abar) eta ume zaintzaile. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 664 37 49 85.

Debagoiena. Neska gaztea, lanerako gogo handiz, gertu etxeko lanak egin, ume edo nagusiak zaindu edota bestelako lanetan jarduteko. Ana Maria. Deitu 943 79 90 21 edo 620 83 59 50 zenbakietara.

Debagoiena. Bertako neska esperientziaduna gertu asteburuetan nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 637 18 07 23.

Debagoiena. Edozein lanetarako gertu nengoke. Ordutegi malgua. Beatriz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 99 70 46.

Debagoiena. Emakumea gertu asteburuetan lan egiteko, garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzen. Deitu 699 09 46 26 telefonora.

Debagoiena. Emakumea gertu goizetan nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 626 78 22 95.

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
- Masterreka 92 m2. 237.399 .
- Masterreka. 88 m2. Igogailuarekin.
- Artekale 40 m2. Berritua.
- Irizar pasealekua 70 m2. Igogailuarekin.
- Zabalotegi 60m2. Oso ondo
- Mekolalde 110 m2. 90.000 .
- Osintxu. 84 m2. Igogailuarekin. 153.258 .
- Ibargarai 54 m2. Garajearekin.
- Lorentxoko 73 m2. Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 m2. Prezio ona.
- Matxiategi 65 m2. Igogailuarekin.
- Ibarra 47 m2. 146.888 .
- Bolu 96 m2. Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 m2. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m2. 154.761 .
- Aranerreka 80 m2. 189.319 .
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Herri Lagunak 52 m2. Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan. Aukera ona.

Antzuola:
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m2. Oso etxe ona.

Elgeta:
- **AUKERA**. Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua.

PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 tik hasita.
- **Eraikuntza berriak Torrealdean. 186.805 €tik aurrera.**

Soraluze:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

Deba Garaia Inmobiliaria
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA
- Arrizuri, 97 m2, garajearekin.
- Aranerreka, 80 m2, oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m2, eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m2, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m2, oso eguzkitsua.
- Burdiñate, 104 m2, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m2, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m2, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m2.
- Martoko, 87 m2, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m2, ondo.
- Ibargarai, 80 m2 oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m2 oso ondo.
- Zabalotegi 80 m2, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m2, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Toki Eder plaza, 98 m2, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m2, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m2, oso ondo.
- Zubieta, 125 m2, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m2, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m2.
- San Antonio, 65 m2, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m2, eraikuntza berria.
- Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.
- San Lorentzon aukera ona.
- Basarte. 69 m2. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m2. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m2. Apartamentua. Oso ondo.
- Arrizuri, 90 m2. Terrazarekin. Oso ondo.

SORALUZE
- Baltegieta, 83 m2, berria.
- Sagarerreka, 58 m2, aukera ona.

ANTZUOLA
- Sagasti auzoa. Duplexa garajearekin. Oso ondo.

Debagoiena. Emakumea gertu orduka lan egiteko garbiketan, nagusiak zaintzen edota etxeko lanak egiten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 74 16 15.

Debagoiena. Erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. Ordutegi malgua. Gauez ere bai. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 622 05 21 74.

Debagoiena. Esperientziadun emakume gazte batek hainbat lan egingo lituzke: etxeko lanak, etxeak garbitu, sukaldari laguntzaile, zerbitzari... Deitu 663 46 93 60 edo 943 08 11 07 telefono zenbakietara

Debagoiena. Esperientziadun emakumea gertu asteburuetan sukaldari jarduteko. Garbiketan ere arituko nintzateke. 619 78 63 41.

Debagoiena. Frantses eskolak emango dizkidan norbait behar dut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 93 83 39.

Debagoiena. Gazte boliviarra lan egiteko gertu. B gidabaimena dauka. 606 78 35 94.

Debagoiena. Ile-apaintzaile edo makillatzaile lanetan jardungo nuke. Baita nagusiak zaintzen ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666 21 88 95.

Debagoiena. Mutil gaztea askotariko lanak egiteko gertu. 654 98 69 14.

Debagoiena. Mutila gertu asteburuetan edozelako lanak egiteko. 654 98 69 14.

Debagoiena. Mutila gertu garbiketa edo bestelako laneran jarduteko. 689 88 80 23.

Debagoiena. Neska esperientziaduna gertu zerbitzari edo garbiketa lanetan jarduteko. 679 04 42 68.

Debagoiena. Neska gertu etxeko lanak egiteko, garbiketa lanetarako, laguntzaile jarduteko eta nagusi edo umeak zaintzeko. Legezko paperak dauzkat. 648 01 40 94 edo 943 08 20 79

Debagoiena. Neska gertu garbiketa lanak egin edo etxean bizi izaten zein bestela nagusiak zaintzeko. 610 60 62 29.

Debagoiena. Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 671 15 96 97.

Debagoiena. Paperak dituen emakumea gertu etxeak garbitzeko, sukaldari laguntzaile edo garbitzaile gisa lan egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645 69 36 51.

Durangaldea. Astelehenetik ostiralera goizetan nagusiak eta umeak zaindu, etxeko lanak egin edo tabernan laguntzeko prest. Neska euskalduna naiz. Deitu 648-13 13 27 zenbakira

Durango. 27 urteko neska, goizez umeak zaintzeko edo dendaren batean lan egiteko prest. Esperientzia daukat. Telefonoa: 665-71 74 58

Durango. Neska euskalduna, umeak zaindu eta garbiketa lanetan aritzeko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 619-20 11 19

Eskoriatza. Neska euskalduna gertu goizez etxeko lanak egiteko . Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 68 02 18.

Lana Bergaran Bergaran lana egingo nuke. Administrazioan 18 urte baino esperientzia gehiago. Seriotasuna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 615 71 99 39.

Oñati. 26 urteko neska euskaldun bat haurrak zaindu, eskolara eraman eta etxeko lanak egiteko gertu (orduko), oñati eta inguruko herrietan. Esperientzia daukat hezkuntza eremuan eta sukalde eta garbiketa lanetan. 615-78 10 68

Zarautz. Gizon euskalduna naiz,lan egiteko prest nago, edozein lanetarako. 658-73 08 08

Zarautz. Gizon euskalduna naiz,lan egiteko prest nago, edozein lanetarako. 658-73 08 08

5.IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. Gitarra eskolak jasoko nituzke arrasaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara:657 -71 74 82.

Bergara. DBHko eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. 20:00etatik aurrera deitu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943-76 03 75 edo 605-26 24 62

Debagoiena. Frantses eskolak emango dizkidan norbait behar dut. 617-93 83 39

Debagoiena. 7 urtetako mutiko atzerritar bati, euskarazko klaseak emango dion norbait behar dugu astean 2 orduz komunikatzeko gaitasuna lortzeko helburuarekin673-93 76 94 - tutar.

502. EMAN

Andoain. Lehen hezkuntzako irakasleak klase partikularrak emango lituzke Andoainen edo inguruko herrietan. 675-70 04 57 / 943-30 03 56. Xabier.

Arrasate. Neska euskalduna Lhko eskola partikularrak emateko gertu. 615-76 19 82

Arrasate. Arrasate edo Bergara. Arkitekturanlizentziaduna eskola partikularrak emateko prest, dbh eta batxilergo mailetan. Esperientziaduna. 639-46 07 26

Arrasate. Neska gazte euskalduna. Lehen hezkuntzako ikasleei ikasketetan laguntza emateko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616-32 73 08.

Arrasate. Neska euskalduna, ekonomianlizentziaduna, eskola partikularrak emateko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679-97 76 46.

Atxondo. Eskola partikularrak emateko prest nago. Hezkuntza berezian diplomaduna naiz, eta E.G.A daukat. Hiru urteko esperientzia daukat, eta ingelesa ere emango nuke. Telefonoa: 645-71 02 48 / 94-658 31 55

Bergara. Neska euskalduna, HaurHezkuntzan diplomaduna, lehen hezkuntzako eskola partikularrak emateko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 676-41 12 58

Bilbo. Psikopedagogian lizentziatua den neskak klase partikularrak ematen ditu Bilbon. 639-52 86 79

Debagoiena. Gaztea gertu ingeleseko eskola partikularrak emateko. Ama-hizkuntza ingelesa dut eta euskaraz ere badakit. 682-64 57 37

Debagoiena. Gaztea gertu ingeleseko eskola partikularrak emateko. Ama-hizkuntza ingelesa dut. 682-64 60 99

Debagoiena. Neska gaztea euskera, ingles edo gaztelaniako klaseak emateko prest. 628 -87 02 43 edo 943-79 85 01

Debagoiena. Irakasleikasketetan eta logopedian diplomatutako neska euskalduna naiz. Lehen hezkuntzako arloan zein hizkuntza arazoetan.659-92 89 23/943-79 39 19

Debagoiena. Neska gaztea prest euskara, ingeles edo gaztelaniako eskolak emateko. Deitu 628-87 02 43 edo 943 -79 85 01 zenbakietara.

Durango. 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635-74 61 76

Durango. Ingeles magisteritzan diplomatua, klase partikularrak emateko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 619-20 11 19

Durango. Ingeles irakasletzan diplomaduna, eskola partikularrak emateko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 619-20 11 19

Elorrio. Haur eta gazteentzako laguntza eta helduentzako euskara azterketen prestaketa. 675-70 61 05

Gabiria. Lehen hezkuntzako eta dbhko 1. Eta 2. Mailako klase partikularrak emango nituzke goierriko edozein herritan . Esperientzi haundiko irakaslea naiz . 697-49 38 45

Oiartzun. Irakasle izateko ikasten ari den 18 urteko neska eskaintzen da oiartzungo lehen hezkuntzako eta dbhko ikasleei klase partikularrak emateko(ingelesa barne).

6. MOTORRA

601. SALDU

Mercedes viano. Cdi 2.2 ambiente. 150 zp. 7 lagunendako eserlekuak. Olio azterketa 2010eko urrian eginda. 2008-ko urrian matrikulatua. 30.500 km. Ia berria.688-65 21 19

Volkswagen transporter salgai. Caravelle modeloa, 130 zp, 8 plaza, 240.000 km. 2006koa. 6 abiadura. Grisa. 15.000 euro. Manuel.670-57 27 88.

Vw transporter furgoneta salgai. 1,9 turbo diesela. 6 plaza. 2000ko abenduan matrikulatua. Udaleko zerga 2011ko ekainera arte ordainduta. Iat (itv) otsailera arte. 180.000 km. 6.590 euro. Zenbaki zuzena: 678-30 42 02

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Persiar katakumea salgai, arra da eta zuri-zuria. Oso maitakorra da eta familia baten bila dabil. Irailaren 9an jaiotakoa, ikusteko aukera. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943 79 96 55. 685 72 46 86.

Rottweiler txakurkumeak salgai. Espainiako txapeldunen kumeak dira. 605-75 91 42

Setter ingeles txakurkumeak salgai. Setter ingeles txakurkumeak salgai, 2010eko maiatzean jaioak. Oilagorretarako aproposak. 605-73 75 30

Spaniel txakurkume arra salgai. Spaniel txakurkume arra salgai. 2010eko maiatzaren 15ean jaioa. Zuri-beltza. Arkaitz. 610-36 39 94

703. EMAN

Artzain-txakurra oparitzen da. 4 urte dituen artzain-txakurra oparitzen da, ezin dugulako zaindu.615-73 22 89

Cocker ingelesa ematen da arrasaten. Cocker ingelesa ematen da Arrasaten, ezin dugulako zaindu. Emea, beltza, txerto eta mikrotxiparekin. Lau urte dauzka. Maitagarria da, eta txakur ona. Ondo zainduko duen norbaiti bakarrik emango diogu. 943-79 82 43 edo 943-79 97 17

Cocker zuri-beltza. Ematen da arrasaten. 5 urtekoa. Emea. Ondo hezitakoa. Oso polita. 637 -72 66 73.

Txakur oso polita ematen da opari. Txakur oso polita ematen da opari. 11 hilabeteko txakur meztizoa da. Setter gorputzarekin baina golden retrieverren kolorearekin. Oso polita eta maitagarria. Oso obedientea. Oparitzen da ezin dugulako eduki eta pena handiz oparitu behar dugu. Bakarrik ondo zain dezakeen pertsona bati emango diogu. Umeekin egon dabeti.679 -23 27 93

Txakurrak, opari. Setter ingeles arrazakoak.688-62 78 93 (Miren), 656-74 85 11 (Xabi)

704. BESTELAKOAK

Setterra galdu . Bergaran, goiko estazio inguruan, azaroaren 20ko eta 21eko asteburuan Setterra galdu zen. Setter ingelesa, arra, zuri-beltza. 688 62 84 25

Arratoi txakurra desagertu da. Arratoi txakurra (kanel), uberan desagertu egin da. Lepokoa laranja, aurreko ezker hanka okerra. Ikusten baduzu, deitu, mesedez 617-57 25 43 edo 697-721 836.

Setterra galdu. Setterra galdu da bergaran, goiko estazio inguruan, azaroaren 20 eta 21eko asteburuan. Setter ingelesa, arra, zuri-beltza. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688-62 84 25

8. DENETARIK

801. SALDU

Ekonomika. Lakuntza clasic markako ekonomika. Egoera onean eta oso gutxi erabilia. Interesatuek, deitu 649-59 01 49 telefono zenbakira.

Casualplay umeen kotxea salgai. Casualplay jazz match bi salgai. Kapazua eta aulkia. Bakoitza bere burbujarekin eta aulkirako zaku bat opari.

Euritako plastikoa eta zakua (polarra). Euritako plastikoa eta zakua salgai (polarra). Jane etxekoak eta egoera oso onean. Matrix edo maxi-cosirako. Biak 60 euro. 607-06 22 20

Kotxe-kapota.. Hiru erroberako bebecar kotxe-kapota eta bere aulkia saltzen dira. Egoera oso ona. Urdina. Euriarendako plastikoa. 90 €. 656-73 54 80

Mahaia eta aulkiak. Kristalezko ohola eta forjazko hankak dituen saloiko mahai eta aulkiak salgai daude. 665-74 91 29 Abel.

Pianoa salgai. Paretako piano marroia salgai.Chernyetxekoa.Prezio interesgarria. 607-06 22 20

Trikitia. Hohmer etxekoa. Mexikoko tex-mex berezia. Hiru ilarakoa. Bost erregistro. Prezioa adostu aurretik, probatzeko aukera. Egoera oso onean.696 -37 91 79.

Errepideko bizikleta. saltzen dut. Orbea Onix. 2009koa. Karbonozko tijaduna, 54 neurrikoa. Shimano 105 aldagailuarekin eta Compact sistemarekin. 645 00 56 81.

Gurpildun aulki elektrikoa salgai. Egoera paregabean. 1.500 euro. Arrasaten. 677-38 85 64

Sutarako pago egurra. Sutarako pago egurra salgai, zatituta; lehorra. Tximini edo beheko surako aproposa.656-77 59 43.

Trikitia. Hohmer etxekoa. Mexikoko Tex-Mex berezia. Hiru ilarakoa. Bost erregistro. Prezioa adostu aurretik, probatzeko aukera. Egoera oso onean. Deitu 696 37 91 79 zenbakira.

Ohe berria. salgai. 1,35eko forjako ohea, 2 gau-mahai, 2 lanpara, nordikoa, izarak, koltxoia, somierra. Dena estreinatzeke, oso-oso polita da. Etorri ikustera konpromisorik gabe. Furgonetarik ez badaukazu, galde egidazu! 606 21 37 18

802. EROSI

Elurretako erraketak. Bigarren eskuko elurretako erraketak erosiko nituzke. 628 51 22 78.

804. HARTU

Besaulki txukun bat. Kentzeko moduan bazaude, mesedez abisatu eta gustura hartuko nuke. 618-80 09 32.

807.AURKITU

Giltzak etxarri aranatzen. 2 giltza topatu ditzute. C. D. Lagun artea lakuntza giltzarria dauka. Galdu dituenak beleixe irratian jaso ditzala.

808.BESTELAKOAK

Bergara. Azaroaren 29an etxeko atetik bizikleta hartu ziguten, Zubiaurren. Eraman baduzu edo nonbait ikusi, deitu, mesedez. Laranja kolorekoa da, mota zuriekin. Ia berria da. Deitu 943 76 01 30 zenbakira.

9. HARREMANAK

901. HARREMANAK

Donostia Alde Zaharreko Joaldunak. Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entsaioetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. aldezaharrekojoaldunak@gmail.com

904. BESTELAKOAK

Gasteizera joateko autoa konpartitu. Egunero gasteizera autoan joaten naiz. 9:00etan gasteizen egoten naiz eta 13:00ean bueltatzen naiz. Bakarrik joateko, edo bueltatzako aukera. 690-19 82 79

Gasteizerako autobusa Leintz bailaratik. Leintz bailaratik joanda gasteizen goizeko 8ak baino lehen egon behar baduzu eta autobus ordutegia dela-eta garaiz iristen ez bazara, jar zaitez gurekin harremanetan. Autobus ordutegia aurreratzea eskatu nahi dugu eta ahalik eta jende gehien bildu behar dugu horretarako. 685-72 14 33

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL
ALDIBATEKO LANA
Senpere,7 (zentru komertziala) • BEASAIN
943-16 20 48
Ikusi lan eskaintzak:
www.ikolanaldi.com

Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak
Bizkaia kalea 6 • 20800 Zarautz
Telef.:943-01 07 00 / Mug.:665-71 8596
www.inmosalbide.com

Aia. Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127m2ko terraza. 46.588.000 pezeta.
Aizarnazabal. 89m2-ko BERRITUTAKO etxea. 3 logela, 2 bainugela, trastelekua, igogailua eta gasa. Oso etxe ederra. 36.000.000 pezeta.
Aizarnazabal. AUKERA ONA. Etxebizitza eraiki berria. 2 logela. 30.000.000 pezeta.
Getaria. Herrerieta kalea. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Prezio onean: 42.500.000 pezeta.
Zarautz. AzkenPortu. Guztiz BERRITUTAKO etxea. 3 logela, 2 bainugela eta 2 terraza. Oso polita. 70.000.000 pezeta.
Zarautz. Itxasmendi. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Altua eta egoera onean. 51.000.000 pezeta.
Zarautz. Vista Alegren. 2 logela ditu. Terraza handia. Eguzkitsua. 49.500.000 pezeta.
Zestoa. Arroa behea. 2 logelako etxebizitza. 28.000.000 pezeta.
Zestoa. Erdialdean. Etxe bifamiliar batean, 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezeta.

Etxebila higiezinak
943-44 61 66
USURBIL 100m2. 3logela, sukaldea, egongela, bainugela. Tximeneta. Loralegia. Parkina. 43.500.000 pta
AMARA Ferrerias. Logela, sukaldea, egongela, binugela. Sartzeko. 45.500.000 pta
AMARA Altua. Terraza. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Bistak. 48.500.000 pta
AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 48.250.000 pta
AMARA Azkena terrazakin. Hegoa. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 54.000.000 pta
AMARA 70m2. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 51.770.000 pta
AMARA OSINAGA 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. 62.200.000 pta
GROS Apartamentu oso polita. Logela-egongela-sukaldea, bainugela. 29.785.000 pta
ERDIALDEA Urbieta. Logela, sukaldea, egongela, bainugela.Balkoia. 46.500.000 pta
INTXAURRONDO. 2 logela, sukaldea, bainugela. Bista politak. Berritua. 37.500.000 pta
EGIA. Karmengo ama. Igogailua. 2 logela, sukaldea, bainugela. Berritua. 41.500.000 pta
ANTIGUA Matia. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 52.000.000 pta
MARTUTENE 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. 29.990.000 pta
HERRERA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. Berritua. 36.200.000 pta
BIDEBIETA 2logela, sukaldea, egongela bikoitza, bainugela. Terraza. 32.300.000 pta
ALTZA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. Igogailua. 24.990.000 pta
ALTZA 108m2. 4 logela, sukaldea, egongela, 2bainugela. 30m2tako terraza. 48.000.000 pta
ASTIGARRAGA Plazan. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Polita 35.000.000 pta
PASAI DONIBANE 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 29.200.000 pta
ERRENTERIA. Erdialdean. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 27.990.000 pta
ALOKAIRUAN
LOIOLA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Igogailua. 675€
GROS Apartamentu berria. Logela, sukaldea, bainugela.850€
ELGOIBAR Baserri-billa. 3 solairu. 10.000m2tako terrenoa. 1.000€
INTXAURRONDO 3 logela, sukaldea, egongela, bainuela.850€
URNIETA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 650€
AMARA, ANTIGUO Ekaina bitarteko pisuak, 3 edo 1ogela 1koa. 750€
www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

ULMA
ULMA Taldeak bere Zerbitzu Zentraletarako ondorengo lanpostua betetzea behar du:
TEKNIKARI INFORMATIKOA
FORMAZIOA:
•Ingeniari informatikaria
LANPOSTUAREN EGITEKOAK:
•Zerbitzu Zentraletako informatikariei Mikroinformatikako Laguntza Zerbitzua.
•ULMA Taldeko Sistema eta Datu-baseen koordinazioa eta administrazioa eta horien bilakaeraren jarraipena.
•ULMA Taldeko eta Zerbitzu Zentraletako zerbitzu eta aplikazio komunak kudeatu.
•Oinarrizko aplikazioen garapena eta laguntza Zerbitzu Zentraletako guneetarako.
•Estaldura eta laguntza informatikoa eskaini ULMA Taldeko sustapen berriei.
•Hornitzaile eta laguntzaileekiko harremana kudeatu eta gastuen eta inbertsioen aurrekontua egin.
•ULMA Taldeko formaziorako azpiegituraren barnean, ekipo eta sistema informatikoen erabilera egokiaz arduratuko da.
•ULMA Taldearen informazio segurtasuna zaindu.
GAITASUN PROFILA
•Pertsona dinamikoa, proaktiboa, autonomoa eta konprometitua.
•Komunikaziorako eta harremanetarako gaitasuna.
•Barne bezeroaganako orientazioa.
Interesatuak curriculuma bidali behar dute ULMA Taldeko Departamentu Zentraletako Hautaketa eta Formazio Sailera Garagaltza Auzoa 51. 20560 OÑATI (Gipuzkoa) 2010/43 erreferentziarekin

LAN ESKAINTZA
Txatxilipurdi elkartean pertsona bat behar da lanaldi erdiko kontratuarekin.
KULTUR SAILEKO LAGUNTZAILEA.
Kontratua 6 hilekoa izango da, luzatzeko aukerarekin.
Gutxieneko eskakizunak:
• Batxilergoa egina izatea.
• Euskara maila handia.
• Haur eta gazteen aisiaren alorrean lan esperientzia.
Kontuan izango da:
• Euskalgintzaren ezagutza.
• Sorkuntzarako gaitasuna.
• Taldean lan egiteko gaitasuna.
Arrasate edo ingurukoa izatea lehenetsiko da.
Interesa edukiz gero bidali curriculuma:
idazkaritza@txatxilipurdi.com
Txatxilipurdi Elkartea. Nafarroa Etorbidea 23, 1. solairua
20.500 Arrasate
Tel.: 943 79 54 46
txatxilipurdi

Venezuelan Interneten edukiak zaintzeko neurriak

Venezuelako Telekomunikazio batzordeak Interneten dauden edukiak zaintzeko neurriak hartzeko proposamena egin dio hango gobernuari. Telekomunikazio batzordeak salatu du ez dutela araudirik edukia kontrolatzeko, eta neurriak eta isunak zehaztea komenigarria dela. Eurek diote adingabeak sare sozialetatik babestu behar direla, eta eduki batzuk ikusteko ordutegi bat zehaztu beharko dutela.

Tablet-en salmenta jaitsi egingo da 2014. urterako

Gartner enpresak egindako ikerketa baten arabera, tablet ordenagailuen salmenta jaitsi egingo da 2014. urterako. Eurek aurreikusten dute urte horretan salduko dituzten hamar ordenagailutatik bat tableta izango dela. Horrek erakusten du I-Pod eta bestelako aparailuek moteldu egingo dutela PCen salmenta.

Gartner enpresaren datuen arabera, 2010ean 352,4 milioi ordenagailu saldu dira, iaz baino %14,3 gehiago. Dena den, igoera handiagoa espero zuten saltzaileek.

Euskal web onenen sariak banatu zituzten aurreko astean

Buber sarien VIII. edizioko sari banaketa egin zuten hilaren 2an. Honako webguneak saritu dituzte: *www.nickdutnik.com*; *http://softwarelibre.deusto.es*; *www.euskaljakintza.com*; *www.funcionaparatodos.com*; *www.carniceriadebarrio.com*; *www.gipuzkoakomuseoak.net*; eta, *www.gipuzkoamendizmendi.net*.

Daviden Izarra topatu dute Irango aireportuko eraikin baten

Irango Mehrabad aireportuko langileek Daviden Izarra topatu dute eraikinetako baten sabaian. Google Earth bilatzaileak egin du topo izarrarekin. Hango langileak oso haserre daude aurkikuntzarekin, urte askoan judaismoaren ikurretako batekin lan egin dutelako.

Daviden Izarra. | GOOGLE

Abian ipini dute nabigatzaileak euskaraz konfiguratzeko kanpaina

Euskaraz ez dagoen nabigatzaile batekin sartuz gero, mezu bat agertuko da nabigatzailea euskaraz jartzera gonbidatuz

U.AGIRRE/M.BIKUÑA | BERGARA

Euskararen Egunaren aitzakian, euskal internauten arteko ekimen berri bat sortu dute: *NabigatuEuskaraz.com*. Euskaldunon nabigatzaileak euskaraz konfiguratzeko kanpaina da, *Sustatu.com* webgunearen eta Puntueus elkartearen artean sortua.

Euskal internauten arteko ekimen bateratua izan nahi du eta guztion parte-hartzea bultzatu nahi dute, bai atxikimendua emanez, bai kodea kopiatu eta nork bere webgunean itsatsiz. *Goiena.net*-en ere itsatsi dugu kodea. Hala, euskaraz ez dagoen nabigatzaile batekin sartuz gero webgunean mezu bat agertuko da nabigatzailea euskaraz jartzera gonbidatuz. "Gertatzen da euskaldun askok nabigatzailean lehen hizkuntza gaztelania, ingelesa edo frantsesa daukagula, euskara izan beharrean. Eta lortu nahi duguna da hizkuntza -hobespenetan euskara izatea lehenengo hizkuntza eta aukera", diote ekimenaren antolatzaileek. Nork bere nabigatzaileko hizkuntza-hobespenak zeintzuk diren ikusteko, *Atxukale.com* ataria bisita daiteke, horretarako detektagailua dute-eta.

Sustatu.com-en jarri dute nabigatzailea euskaraz ipintzeko kode puska. | SUSTATU.COM

Oso erraza

Azken urteotan *Sustatun* kanpaina bat izan dute martxan, euskaldunon nabigatzaileak euskaraz konfiguratuta izateko. Hor zeuden instrukzioak berritu egin dituzte, eta, PuntuEus elkartearen babesarekin, kanpaina zabaltzeko bide bat asmatu ere bai: kode puska bat jartzeko aholkua ematen dute webgunea euskaraz baduzu, eta zure bisitarien nabigatzaileak euskalduntzen lagundu ahalko dizu. Dena den, Euskal Internauten arteko ekimen bateratua egin nahi dute. Hori horrela, mezua lagunen eta ezagunen artean zabaltzea aholkatu dute. Informazio guztia eta jarraitu beharreko pausuak *nabigatueuskaraz.com/kanpaina* atarian jarri dituzte.

Lurraldebusko erabiltzaileek sakelakoan jaso ahalko dute ibilbideen informazioa

Ibilbidea, tarifa, ordutegia edota geralekuaren gaineko datuak jasoko dituzte

M.B. | BERGARA

Nabigatzailez hornitutako sakelakoen bidez lortu ahal izango dute Lurraldebusko erabiltzaileek ibilbideen gaineko informazioa.

Aplikazio berri horri esker, edozein lekutatik eta geltokietako markesinetara joan beharrik izan gabe, interesatuek askotariko informazioa eskuratu ahal izango dute: ibilbidea, tarifa, ordutegi edota udalerri bakoitzeko geralekuen gainekoa. Interesatuak hautatutako geralekura hurrengo autobusa iristeko zenbat denbora falta den ere jakin ahal izango da zerbitzu berri horren bitartez.

Gipuzkoako herri arteko autobus sarean 1.300 geraleku daude. Horien guztien gaineko informazio eguneratua izateko aukera izango dugu aurrerantzean. Azkarrago eta zuzenago, sakelakoarekin. Informazioa honako helbidean eskura daiteke: *www.lurraldebus.net/mobile*. Hor azaltzen dute zer egin behar den autobusen gaineko informazio guztia sakelakoan eguneratuta jasotzeko. Azken orduko berriak ere atari horretan sartzen dituzte.

Erabiltzaile bat Lurraldebusko informazioa bilatzen. | GOIENA

Beste kontsulta batzuk

Baina webgune horretan bestelako informazio eta zerbitzuak aurki daitezke. Besteak beste, txartel bakarra dutenek euren datuak ikusi ahal izango dituzte sakelakoan. Zerbitzu horrek beste bide bat eskainiko du egindako mugimenduak eta bidaiak kontsultatu eta eskatzeko.

Euskaltube salbatzeko ekimena martxan

M.B. | BERGARA

Euskaltube bizirik lelopean *Euskaltube.com* salbatzeko finantzaketa kanpaina abiarazi dute sarean entitate eta erakundeen artean, baita norbanakoen artean ere. Dagoeneko bilera batzuk egin dituzte, eta datozen asteotan hitzordu gehiago zehaztuko dituzte babestearen bideragarritasuna aztertzeko. " Webgunearen funtzionamendu egokia, sistemaren eta edukien mantentzea eta, azken finean, egitasmoaren etorkizuna bermatzeko, finantzaketa sistema egonkorra behar du *Euskaltube.com*-ek", esan dute egitasmoaren antolatzaileek.

Eurekin hartu-emanetan jarri gura dutenek *info@euskaltube.com* helbidera idatz dezakete.

Euskaltube.com 2007ko irailean sortu zen, ordutik hona ia 3.000 erabiltzailek 6.000 bideo inguru sareratu dituzte, eta milaka bisitari izan ditu. Baina aurten abuztuan, arazo ekonomikoak direla-eta, bertan behera geratu zen.

TELE-BEGI

AMAIA PAVON
'twitter.com/#!/amaiapavon'

Eguraldia 24

Jakin dugu Euskaltelek kate berria estreinatu duela, pasa den azaroan. Gaikako kateak era berezituan eskainiko du eguraldiaren gaineko informazioa. *Eguraldia ez da euria egitea edo ez egitea bakarrik* lelopean aurkeztu dute proposamena, baieztatuz Sofreseko audientzia ikerketetan EAEko biztanleek arreta handia jartzen diotela eguraldiaren aurreikuspenari.Ez da harritzekoa datu hori.

Bai da ordea aipatzekoa eguraldiaren inguruko parteek nolako tokia bete duten telebistako programazio-tauletan. Informazio saioetan eguraldiaren tartea hogei minutura luzatzea gutxi balitz, Aizarnazabalgo hotzaren eta Ollazkarizketako elurtearen berri ematen duten kazetariez beteta dago informazio-agenda. Euriaz, hotzaz, elurraz… alarma horiaz, laranjaz, gorriaz… ohartarazten gaituzte etengabe, *Eguraldia 24*-n 15 minuturo egingo dute. Nik dakidala, beti existitu izan dira tenperatura aldaketak eta prezipitazioak, orain, puntapuntako informazioaren trataera merezi ahal izateko.

Informazio edukien horitasunaz kexu direnei proposatuko nieke eguraldiaren inguruko informazioaren zuritasunaz hausnartzera, tartea uste baino txikiagoa da-eta.

ASTEA GOIENAN

GOENA TELEBISTA

ASTELEHENA 6

'Mikelen heriotza' filma

21:45

Imanol Uribe zuzendariaren *Mikelen heriotza* filma eskainiko dute astelehenean. Imanol Arias da protagonista.

08:00 Marrazki bizidunak
09:00 Kantari
10:00 Haurrekin jolasean
10:15 Tolosako abesbatza lehiaketa
11:15 Eskuokin
11:30 Erreportajea: Arizmendiarrieta
12:00 Danbaka
13:15 Kantari
14:15 Berbetan
14:45 Kulturzulo
15:15 Organo zikloa
15:45 Ikusmira
16:15 Tolosako abesbatza lehiaketa
17:10 Marrazki bizidunak
17:45 Organo zikloa
18:15 Marrazki bizidunak
19:15 Kantari
19:45 Sakonduz Tertulia
21:45 Filma: Mikelen heriotza
23:45 Gipuzkoa kultura

MARTITZENA 7

Abesbatzen lehiaketa

21:15

Tolosako abesbatzen lehiaketak eman duena eta abesbatza onenen emanaldiak ikusteko aukera egongo da.

08:00 Kantari
09:00 Haurrekin jolasean
10:00 Marrazki bizidunak
11:00 Trikitixa jaialdia
11:30 Klik
12:00 Esatea libre
13:00 Iragana gogoratuz
13:30 Marrazki bizidunak
14:00 Kantari
14:30 Onein
15:00 Ikusmira
15:30 Babarrun astea
16:00 Urrakiko igoera
16:30 Kulturzulo
17:00 Haurrekin jolasean
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Ikusten
18:15 Marrazki bizidunak
18:45 Kantari
19:15 Kantari
19:45 Kiroleroak
20:15 Urrakiko igoera
20:45 Kiroleroak
21:15 Tolosako abesbatza
21:45 Tolosako abesbatza
22:15 Iragana gogoratuz

EGUAZTENA 8

'Gipuzkoa kultura' saioa

20:45

Topagunearen gaineko hausnarketaz jardungo dute, eta baita Ornitorrinkus musika eta bertso proposamenaz ere.

08:00 Marrazki bizidunak
10:00 Ipupomamua
10:30 Haurrekin jolasean
11:00 Tolosako abesbatza lehiaketa
12:00 Lizardiko Bertsolari gazteen txapelketa
12:50 Sakonduz
13:20 Eskuokin
13:35 Kantari
14:00 Ikusmira
14:45 Kulturzulo
15:15 Iragana gogoratuz
15:45 Onein
16:15 Klik
16:45 Tertulia
18:45 Filma: Mikelen heriotza
20:45 Gipuzkoa kultura
21:15 Berbetan
21:45 Klik
22:15 Sakonduz
22:45 Esatea libre

EGUENA 9

Seafoid talde eibartarra

20:45

Danbakan parte hartu duten taldeen aurkezpena: eguenean, Seafoid talde eibartarraren kontzertua ikusteko aukera.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Babarrun astea
15:45 Haurrekin jolasean
16:15 Ur eta lur
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Ipupomamua
18:15 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Danbaka
21:15 Goiena Magazinea
22:15 Gipuzkoa kultura
22:45 Ikusten
23:15 Goiena Magazinea

EGUBAKOITZA 10

'Gipuzkoa kultura'-n, azoka

20:45

Gipuzkoa kultura saioan, Durangoko Liburu eta Disko Azokak eman duenaz jardungo dute. Elkarrizketak ere egingo dituzte.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Ur eta lur
15:45 Kulturzulo
16:15 Nire herria
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Gipuzkoa Kultura
18:15 Ipupomamua
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Gipuzkoa kultura
21:15 Goiena Magazinea
22:15 Danbaka
23:15 Goiena Magazinea

ARRASATE IRRATIA

Eguenean itzuliko da 'Igo autobusera' saioa Arrasate Irratira

Gaurtik eguaztenera arte musika izango da Arrasate Irratian. 107.7ko autobusa eguenean uhineratuko dute. Hain zuzen, 10:00etan hasiko dute irratsaioa. Eguenean eta egubakoitzean hainbat gai jorratuko dituzte irratiko lagunek; eta sarrerak ere zozketatuko dituzte.

'Olentzero &Co.' ikuskizunaz jardungo dute eguenean

Olentzero & Co. ikuskizuna, bigarren eskuko jantzien azoka Arrasaten, Harremanen aurkezpen ekitaldia, Marrupako proiektua eta La Pulgaren ikuskizuna, hori guztia eta gehiago landuko dute Arrasateko Irratiko *Igo autobusera* saioan eguenean eta egubakoitzean.

Lau sarrera zozketatuko dituzte antzerkirako

Abenduaren 19an Amaia antzokian Doke Antzerki taldeak egingo duen *Iragana iragan* antzezlanerako sarrerak eskainiko dituzte. Lau sarrera zozketatuko dituzte. Zozketa abenduaren 10ean egingo dute. Gogoratu behar da eguenean itzuliko dela *Igo autobusera* saioa; ordura arte musika izango da irratian.

TELE-ALBISTEAK

Landakon zuzenean ikus daitekeen Azoka Telebista egiten dihardu Goienak

Maider Arregi eta Julen Iriondo kazetariak dira Azoka Telebistako aurkezleak

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Aurten ere Azoka Telebista egiten dihardu Goienak, Durangoko Azokatik zuzenean. Azokako protagonistak, giroa, emanaldiak, bitxikeriak... Azoka Telebistan ikusteko aukera dago.

Iaz egin zuten lehenengoz Azoka Telebista; eta, arrakasta ikusita, errepikatzea pentsatu dute. Aurtengo telebistak, baina, berrikuntzak ditu: iaz pantaila erraldoi bat jarri zuten Landakon; bada, aurten bi jarri dituzte, gainera, iazkoak baino handiagoak.

Goienako zortzi laguneko lantaldea dago Azoka Telebista egiten; eta aurkezle lanetan dihardute Maider Arregi eta Julen Iriondo kazetariek.

Internet bidez

Landakon ez ezik, Internet bidez zuzenean ikusteko aukera ere badago. Emisioa TokikoTVren bitartez *streaming*-ean ikusi ahal da. *Goiena.net* atariaren azpi-atal baten ikusten da TokikoTV. Hortaz, oraindik ezer ikusi ez duenak gaurtik eguaztenera arte izango du aukera Azoka Telebista Internet bidez ikusteko.

Hamaika Telebistarekin eta ETB3rekin elkarlanean dabil Azoka Telebista egiten Goiena; eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babestu du telebista hori.

'Goenkale'-ko pertsonaiak orain Facebooken

A.E. | BERGARA

Telesaileko bost pertsonaiak orria ireki dute sare sozialean. Hemendik aurrera, Lukas Madariaga, Ikerne Urkijo, Joana Urkijo, Kevin Iturriaga, Itxaso Al Wahid eta Ibon Petralandak Facebooken kontatuko dituzte euren sentimenduak, eguneko nondik norakoak, haserreak...

Pertsonaia horien nondik norakoak jakin gura badituzu, Facebooken bilatzailean euren izenak idatzi eta aurkitutakoan *Atsegin dut* botoiari eman. Modu horretan, pertsonaia horiek euren orrian idazten dutena irakurri ahal izango duzu. Gainera, aukera dago eurei mezuak bidaltzeko. Teknologia berriak, hortaz, iritsi dira Arraldera ere.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

ZUBI HONETAN EGUNERO IREKITA

- Zientzia ikuskizun berezia zubi honetarako:
HOTZAK IRAKIN NITROGENOARI ESKER
- Planetariumeko saioak, 360°tako kupulan proiektatuta
- 170 modulu interaktibo baino gehiago
- Simulagailuak
- Zuzeneko esperimentuak
- Haurrentzako jarduerak (Planetarium Txikia, eskulanak…)
- Doako parkin zabala, pic-nic gune itxia, haur parkea, naturgunea,

Informazio gehiago: *www.miramon.org* edota 943 01 24 78

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

ZUBIKO ORDUTEGIA
11:00etatik 19:00etara

kutxa | www.kutxasocial.net

ZORION AGURRAK

ARRASATE
Ibon Crespo Lamariano
Azaroaren 12an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi-handia etxekuen eta, bereziki, Koldoren partetik.



BERGARA
Paco Moreno
Abenduaren 12an, 52 urte. Zorionak eta urte askotarako! Jada badia urte batzuk gañian ditxuzunak, e? Ondo pasatu eta afaritxo bat ordaindu. Etxekuak, bereziki Uxue.

OÑATI
Enaitz Ugarte elorza
Abenduaren 10ean, 7 urte. Zorionak, Enaitz. ondo pasatu, familixa danan partetik.

OÑATI
Jon Sanchez Gonzalez
Abenduaren 8an, 3 urte. Zorionak, txapeldun, eta oso ondo pasatu eguna! Pila-pila maite zaitugunon partetik, besarkada eta muxu handi bat.

ARRASATE
Luken eta Uxue Urrutia
Abenduaren 8an, 4 urte. Zorionak, bikote, familia eta zuen "kuadrilaren" partetik.

ARRASATE
Nerea Artola
Abenduaren 7an, urtebetetzea. Zaila da zu ikusi gabe zerbait filtratzea, baina lortu dugu!! Espero... Zorionak lankideen partetik.

ARRASATE
Mikel Alonso Esquina
Abenduaren 7an, 42 urte. Zorionak, aitatxo! Urtetxoak aurrera doaz, majo! Ederto pasatu eguna nahiz eta lanean egon. Ospatuko dugu afaritxo batekin, guapo! 42 muxu potolo etxekoen, amatxoren, Beñaten eta Marenen partetik.

ARRASATE
Malen Balerdi Berezibar
Abenduaren 6an, 7 urte. Zorionak etxeko gure tximeletari! Pablo, Aner, Martin, Naroa, June eta Noraren partetik.

BERGARA
Ibai Rodriguez Diaz de Zerio
Abenduaren 5ean, 3 urte. Zorionak, Ibai ! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzian eta patxo handi bat etxekuen, eta batez be, Ekainen partetik.

OÑATI
Maren Arenaza Altube
Abenduaren 3an, urtebete. Zorionak, potxola zure lehenengo urtebetetzian! Muxu handi-handi bat zure etxekuen partetik!

ARRASATE
Julene Sarabia Mendia
Abenduaren 2an, 7 urte. Zorionak! Ondo pasatu zure urtebetetzean, muxu handi bat Jakes eta gurasoen partetik. Horrela jarraitu....

ARRASATE
Itxaso Urgoitia Agirre
Abenduaren 2an, 5 urte. Zorionak, laztantxu! Patxo handi bat etxekoen partetik.

ARETXABALETA
Eusebio Gastañaga
Abenduaren 2an, urtebetetzea. Zorionak, aitita! Zure egunean elegante pasatu gauen! Muxu potolo-potoloak etxeko txikienen partetik! June, Malen, Ekaitz, Julen, Nagore, Jokin eta Lander.

ARRASATE
Aner Pablos Dominguez
Abenduaren 1ean, 3 urte. Zorionak, maitia! Muxu handi bat aitatxo eta amatxoren partetik.

OÑATI
Ainhoa Quesada Casado
Abenduaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak, Ainhoa! Ondo-ondo pasatu eta patxo handi bat kuadrillakuon partetik!

ARRASATE
Nerea eta Gorka Dovao
Gorkak, azaroaren 28an, eta Nereak azaroaren 29an urtebetetzeak. Zorionak, bikote. Ondo pasatu zuen egunean, etxekoen partetik.

ARETXABALETA
Oier Madinabeitia Martelo
Abenduaren 7an 9 urte. Zorionak mutil haundi! Pirata ederra zauz indde! Patxo haundi bat etxeko guztion partetik eta bereziki Izaroren partetik. Legution pastela jateko zain gauz!

URTEURRENA

Xexari Arrizabalaga Urzelai

Manuel Azkoitiaren alarguna

Lehen urteurreneko meza zapatuan,
abenduaren 11n, 19:00etan, Oñatiko
Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

**Elizkizunera joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

GOIENAN ESKELA JARTZEKO
DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05.EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.

Eskelaren prezioa: 122,50 euro. Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 163 euro.
Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

JAIOTAKOAK

Oier Fernandez Lopez

Bergara. 3,100 kilo. Azaroaren 30ean. Gurasoak: Naiara eta Aitor. Argazkian, Oier jaioberria, gurasoekin.

Izar Barbarias Fdz. de Arroiabe

Arrasate. 2,930 kilo. Azaroaren 26an. Gurasoak: Oihane eta Kuir. Argazkian, Izar jaioberria, aitarekin.

Haizea Arroyo Zubia

Arrasate. 3,740 kilo. Azaroaren 29an. Gurasoak: Olaia eta Iker. Argazkian, Haizea jaioberria, aitarekin.

Unai Zabalo Maldonado

Talca (Txile). 2,950 kilo. Abenduaren 1ean. Gurasoak: Anita eta Iker. Argazkian, Unai jaioberria, sehaskan lo.

Ane Urtzelai Sierra

Oñati. 2,550 kilo. Abenduaren 2an. Gurasoak: Marga eta Aitor. Argazkian, Ane jaioberria, amarekin.

Oxel Isazelaia Barrena

Arrasate. 3,330 kilo. Abenduaren 1ean. Gurasoak: Itsasne eta Joseba. Argazkian, Oxel jaioberria, amama amarekin.

Zihara Bergaretxe Gastañaga

Arrasate. 3,020 kilo. Abenduaren 1ean. Gurasoak: Maite eta Gaizka. Argazkian, Zihara jaioberria, amama Lolirekin.

Markel eta Oier Muñoz Garrosa

Aretxabaleta. 2,900 kilo eta 2,550 kilo. Abenduaren 1ean. Gurasoak: Itziar eta Carlos. Argazkian, jaioberriak, gurasoekin.

BABESLEA

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Goizuetako / Zer unetarako?		Mikatzak / Haran		Kordea galdu / Akuri
	* Baliarrain-go urtegia / Nahi bizia				
Zenduentzako hobi / Hidrogenoa + beste gai		Natura / AEBetako diru			
					Boroa / Soinu
Lili / Politikari dagokio			Ore jangarri / Ipar EH-n, inguru		
Ez du lagunik / Mirarizko				Kontso. bustia / Tona	

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.

SOLUZIOAK

9	7	5	6	1	2	8	3	4
2	6	8	4	5	3	7	9	1
1	4	3	7	8	9	2	5	6
5	2	9	1	7	6	4	8	3
4	3	1	5	2	8	6	7	9
7	8	6	3	9	4	1	2	5
6	9	4	2	3	7	5	1	8
8	5	2	9	6	1	3	4	7
3	1	7	8	4	5	9	6	2

		G		A		Z		
	N	O	I	Z	K	O		
		I	B	I	U	R		
	H		I	Z	A	D	I	A
H	I	D	R	U	R	O		B
	L	O	R	E		A	H	I
P	O	L	I	T	I	K	O	A
	B	A	K	A	R		T	T
M	I	R	A	R	I	T	S	U

U	R	B	E	L	T	Z	E	A
L	K	U	L	E	T	O	R	A
A	U	R	B	E	X	A	R	A
N	U	R	B	E	L	C	O	A
P	A	I	A	A	A	A	T	A
E	A	T	A	A	A	A	A	A
R	R	Z	E	L	T	Z	R	A
N	A	A	A	A	A	A	R	A
A	A	N	P	E	R	A	I	A



Hieroglifikoa:
Epe luzeak.

SUDOKUA

			6			8	3	4
	6	8	4			7		
					9			6
5		9			6	4	8	
4				2	8	6		
			3					
		4	2		7	5		
8								
3		7	8	4	5			

HIZKI SALDA

Bost perretxiko jangarri.

U	R	B	E	L	T	Z	E	A
L	K	U	L	E	T	O	R	A
A	U	R	B	E	X	A	R	A
N	U	R	B	E	L	C	O	A
P	A	I	A	A	A	A	T	A
E	A	T	A	A	A	A	A	A
R	R	Z	E	L	T	Z	R	A
N	A	A	A	A	A	A	R	A
A	A	N	P	E	R	A	I	A

HIEROGLIFIKOA

Ordaintzeko onak?

AI, ENE!

Sagua ere hezurretan geratu da!

Krisialdian gaudela-eta, jakinekoa da askok eta askok gerrikoa estutzearen aldeko erabakia hartu dutela. Baina, horrenbeste...
www.todohumor.com

AHOBERO

"Politiko batzuen helburu nagusia telebistan irtetzea da, ez besterik"

JOSE MARIA IÑIGO | AURKEZLEA

Eurovisioneko ahots ezagun izan zenak gogor kritikatu ditu, Intereconomia etxean egin dioten elkarrizketan, telebistan hainbatero azaltzen diren politikoak: "Telebistan beharrean, herritarren eskaerak entzuten egon beharko lukete, kalean".
www.intereconomia.com

EGURALDIA

Max. 15º
Min. 08º

Astea hego haize zakarrarekin hasiko dugu eta tenperatura atseginarekin.
www.euskalmet.net

ASTELEHENEKOA

goiena

2010-12-06

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Xabier Amuritza Euskara batuaren birjaiotzea proposatuz atera du azken liburua bere garaian bertsolaritzaren pizkundea ekarri zuenak (Zornotza, 1941). "Osoa, nazionala eta lehiakorra", hala beharko luke euskarak, haren ustez. | **JON BEREZIBAR**

"Amazonian bagina ez genuke hizkuntza arazorik, baina..."

1. Plazan baino gehiago, telebista eta egunkarietan ez al ditugu ikusten bertsolariak?
Bertsolariak telebistan ikusten dituztenendako izango da. Alabarekin Barrikako auzo baten elizan bertan kantatzetik nator.

2. Alabarekin? Pack berezirik -edo eskaintzen duzue elkarrekin?
Alaba orain neu baino *figurago* bilakatu da. Ez dugu eskaintza berezirik egiten, ez. Herritarrek parte hartu ohi duten saioetan egon ohi gara elkarrekin.

3. Ermita baten eginiko saio batetik zatozela diozu. Pulpitu ederra izan ohi da bertsolaritza.
Hala da, bai, baina oso pulpitu horizontala da. Neu abade izandakoa naiz eta oraindik ere nagusienei atentzioa ematen die.

4. Lehenago ikusi dugu emakume bat bertsotan txapela janzten meza esaten baino .
Gogoratu beharra dago 90eko hamarkadan oraindik ere zalantzan jartzen zela emakume bertsolaririk egongo ote zen edota euskaldun berririk. Begira, egun.

5. Euskara sarri "baldar" zaizula esan izan duzu liburu berria aurkeztean. Ausarta.
Hori ondo dakite hizkuntzarekin lan egin behar dutenek eta ez hainbeste hizkuntzari buruz hitz egiten duten horiek. Testu bat itzultzerakoan hiztegira 40 bider joan eta esku-hutsik itzuli denak daki hori.



LEXURI DOYAGUE

6. Euskarari sarri "beldur" diogu. Ez zikintzeko?
Purismoarekin gabiltza oraindik bueltaka eta handik irten ezinda. Gure hizkuntzaren erdi-ghettoan gaude.

7. Hizkuntza lehiakorra behar dugula.
Amazonian biziko bagina ez genuke problemarik, baina bi hizkuntza handiren artean bizi behar dugu, erdara beti aurretik doa.

8. Ezin uka, baina, asko aurreratu dela.
Baina aurreratutakoak ni ez nau kezkatzen, baizik eta poztu. Ez gara konponduta dagoena konpontzen hasiko.

9. Azken nobela sarean deskargatzeko ipini zenuen eta alboan kontu korronte zenbakia. Kultura libreak ematen du sosik?
Nik baserriko pentsaeratik egin nuen hori, azokan bezala neure jeneroa zuzenean saltzeko aukera moduan. Oso emankorra ez da izan, baina bestela ere ez neukan arrakasta komertzial handirik; hala ere, inprimatzeko gastu handirik ere ez dago.

10. Bizarrik ez duzu moztuko zer lortu arte?
Bizarraren atzean ez dut nik promesik. Aspaldi utzi nuen emaztearen kapritxoz eta orain moztuz gero ez ninduke inortxok ere ezagutuko. Gainera, moztuko banu jende guztiari azalpenak ematen egon beharko nuke.

LEHENDAKARIA BANINTZ

"Ba, erretiratu!"

Erretiroa atsegin handiz hartu zuen Amurizak eta galderari birritan pentsatu barik erantzuten dio: "Lehendakaria izango banintz zer? Ba, berehala erretiratu, ze... zer egingo nuke nik orain adin honekin?"

BIHARAMUNA

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Espioitza, bizitza bera

Paradisuko Adanen egunerokoan irakur zitekeen –beti ere Mark Twainen bertsioan- Eva espiatzen zuela, lehen emakumearen mugimenduak nolakoak ziren dezifratzeko. Eta estrategiaren ifrentzua balitz bezala, Evak ere antzerako operazioak burutzen zituen Adan menderatzeko asmotan. Urte mordo baten ostean, Kosme Zubia agente sekretua egundoko abenturetan enbarkatzen zen nire eleberrietan, eta gai zen ezkutuaren muineraino heltzeko, irteten zitzaizkion oztopo guztien gainetik.

Ez dakit zer gertatu zen Adan-Eva binomioarekin. Kosmerekin, berriz, bere nondik norakoak agertzeari utzi nion, zergatik eta, adiskide batek esan zidalako nire irudimena handiegia zela eta espioitzako nire liburuetako pasadizoek ez zutela eguneroko bizitza arruntarekin zerikusirik.

Wikileaks web orritik mundura agertutako informazio jarioak bazterrak harrotu eta harritu ditu, eta magiazko ariketa bailitzan dantzan jarri dira AEBen ezkutuko operazioak, garbi asko geratu delarik mundu honetan bizi garen guztiok dugula dagokigun espioia gure aldamenean. Bizitza bera da espioitza jarraikia.